

SORNE UNZUETA
"UTARSUS"

Idazlan Guztiak



Labayru-Ikastegia

Bilboko Udala



SORNE UNZUETA «UTARSUS»

IDAZLAN GUZTIAK



SORNE UNZUETA «UTARSUS»

IDAZLAN GUZTIAK

*Edizioaren arduraduna eta
testuen aukera: Igone Etxebarria*

BILBOKO UDALA
LABAYRU IKASTEGIA
BILBAO
1997

© Sorne Unzueta

© Edizio honena: Labayru Ikastegia

Barruko argazkiak: Sorne Unzueta

Azaleko argazkia: Jose Ignacio García

Diseinu editoriala: Ikeder, S.L.

Fotokonposizioa: Ikur, S. A.

Silutegia: A. G. Rontegui, S. A. L.

Lege Gordairua: BI-947-97

ISBN: 84-89816-76-X

Bilboko Udalaren dirulaguntzarekin.

Aurkibidea

Agur Utarsus'i	11
Aurkezpena	13
Omenduaren agurra: <i>Guda aurreko euzko idazlien omenaldia</i> .	17
1. Miren Esturo: <i>Sorne Unzueta: euskaltzale, irakasle, idazle eta emakume</i>	19
2. Sabin Barruetabeña: <i>Euskal eskolaren aintzindariak</i>	25
3. Igone Etxebarria: <i>Sorne Unzuetaaren literatura</i>	31
4. Bibliografia	39
Sorne Unzueta «Utarsus»en lanak	39
Sorne Unzueta «Utarsus»en lanak generoka	42
5. Idazlanak	47
Olerkiak	49
1. Umeak irakatsia	51
2. Itxartu, eusko alabea!	53
3. Zaletasunak	56
4. Gau argia (Abestia)	58
5. Gomutazokiak	60
6. Nire herrian	62
7. Udabarrian	64
8. Gogo ituna	66
9. Gabon abestiak	68
10. Edurtzean	70
11. Garilan	72
12. Miren Deunaren Jasokundean	73
13. Artxanda	74
14. Barriro, Unzueta	76
15. Gudari barriak	78
16. Suizkiluz erailda	79
17. Lehenengo Jaunartzea	80

18. Margolariaren emaia	81
19. Lehengusinaren heriotzan	82
20. Bitxori margolaria	84
21. Bila	85
22. Laztandu nau, semea...	87
23. Agur	88
24. Eliza itxirik	90
25. Ez hausi irudia!	92
26. Borobil antzera	93
27. Emoiguzu gaur: Deuntasun era barria	95
28. Itziarrera bidean	96
29. Gomutagarriak	97
30. Jazoriko bat	99
31. Hiloste	101
32. Hauts bihurtuko haz...	102
33. Eusko lorea	104
34. Ikertaldia	105
35. Izenik ete dauko	106
36. Etsaiak?	107
37. Bihotz-jaubea	109
38. Eusko-enda	110
39. Erleak eta zorriak	111
40. Iragarria?	112
41. Eginkariak	113
42. Neuretzako bikainena	114
43. Gorago beti, zeure gogo hori...	116
44. Aldape	117
45. Jakin-eza	118
46. Eusko lurra	119
47. Zoriontsua, zu!	120
Narrazinoak	121
1. Txoria kaiolan	123
2. Otsoa ta txakurra	125
3. Aitita ta ilobea	127
4. Belea ta usoak	130
5. Keperin eta Karmele	132
6. Barri pozgarria	133

7. Bermeo	140
8. ¿Quieres trabajar con nosotros?	148
9. Itxasoan galdua	151
Artikuluak	159
1. Comentando	161
2. Jazorikoa	163
3. Ikastoletan bi elez	165
4. ¿Cuándo...?	168
5. En el gran día	170
6. En el camino de la liberación	171
7. ¡Ezpatadantzaris!...	174
8. Raza vasca	176
Aipamenak	179
1. Getxo. La labor de Emakume Abertzale-Batza de Ondarreta	181
2. Los actos organizados por Emakume Abertzale-Batza. Conferencia de la señora Untzueta de Errasti	182
3. En el XXIX aniversario del maestro	188
4. Para el patriota «Utarsus»	189
5. Una hermosa conferencia de doña Sorne de Untzueta	191
6. Doña Sorne de Unzueta, en Deusto	193
7. Aberri-Eguna	195
8. El V Aberri-Eguna ha revestido gran importancia en toda Vizcaya	196
6. Eranskina: Hiztegitxoia	197



Agur Utarsus'i

Sorne Unzueta, Unzueta'r Sorne, edota laburduraz eta ezizenez «Utarsus» deritzan emakume idazlearen liburu honi sarrerako berbak eskeintzea pozgarri eta ohore handia da niretzat, Bilboko alkate nazan aldetik.

Eta Bilboko Uriko Udala literatura-sortzapenen bildumatxo honen babesle izateak badauka arrazoi sakon bat. Gaur Bilbogaz bat eginik dagoan Abandon jaioa dogu liburu honen egilea; orain amaitzen doan mende honegaz batera. Bilbon jaio, hazi, euskaldundu eta nortasuna jaso. Emakume hau eredu dogu alde askotatik bilbotar eta euskaldunontzat. Erdaldun jaio eta gaztetxotan euskera ikasi eban, edo hobeto esanda, gogo-bihotzak euskaldundu zituan Sorne Unzuetak, mendearen lehen hamarkadetan Bilboko Uriak ezagutu eban euskalzale eta abertzale giro sutsuaren epelean. Gazterik konturatu zan, abertzale izateak gitxi balio ebal euskera ikasi ezean, eta euskera ikasteko orduko sasoiari gaurkoen aldean metodologia eta ikas liburu txatxarrak izanagaitik, gogoak, adorea eta borondateak ezintasun guztiei ganea hartu eutsen.

Irakasle edo andereño bihurtu zan ikasketen ondorik, eta hor ibiliko jaku Bizkaiko auzo eta herri euskaldunetan neska-mutiko txikiei eskolea euskeraz emoten. Liburu honen irakurlea berehala ohartuko da idazlearen andereño senaz. Literatura sortzerakoan, ikasle edo irakurle gaztetxoak gogoan izan dituala arin susma daiteke. Horrexegaitik bada, erraz eta atseginez irakurtekoak dira helduontzat be, eta euskera irakurtera gitxi ekandu diranentzat be bana-banakoak dira ipuinok.

Kontakizunok irakurri ahala, berehala ohartuko da, bestalde, irakurlea, irudimenez eta sorkuntza senez beteriko idazle baten aurrean gagozala; gogotik lumara berez-berez jatorko berben isuria, irudien jariora, gertaeren etorria. Berezko senak daroa idaztera Utarsus, ez militantismo soilak. Eta barruko sortzapena euskeraz eskeintzeko ahaleginak egin ditu, aberriari eta euskaldunoi zerbitzu on bat egin gurarik. Bihotzez eskertzekoa ahalegin hori!

Bilboko Uriko alkate legez zorionik beroenak opa deusadaz emakume euskalzale honi liburua argitaratzean, eta bide batez uritar eta

herritar guztioi, eta berariaz emakumeoi, eredu legez aurkeztu gura neuskizue «Utarsus»: idazle, irakasle, emakumeen eskubideen jagole eta euskaltzale legez emon deuskun guztiagaitik.

Josu Ortuondo
Bilboko Alkatea

Aurkezpena

Aurtengo Derioko Udako Ikastaroan, urtero ohi dan lez, euskal kulturari zertan edo hartan nabarmendu dan pertsona bati omenaldia egiteko asmoa hartu zan. Nori omenaldia egin zan galdera. Aspalditik egon da gure artean lan isila eta apala baina guztiz oinarrikoa egin daben emakume eta andereñoi euren lana sarituteko asmoa, edo autortuteko behintzat. Eta hara, Sorne Unzueta ren barri izan genduan orain dala gitxi, gerra aurreko aldizkarietan euren lanak argitaratu ebezan idazleei buruz Jon Kortazarrek egindako ikerketa baten bitartez.

Ikerketa lan hori abiapuntua izan zan, bizirik egoan ala ez be ez genkian-eta. Baina handik hortik hemendik bila hasi, eta 94 urte dituala sasoi-sasoian aurkitu dogu, burua guztiz argi dauala. Eta ez hori bakarrik, gerra aurreko aldizkarietan agertutako olerkiak ezeze beste hainbat gauza be idatzi dituela jakin dogu, olerkiak eta narrazioak, baita nobela bat be.

Sorne Unzueta k beragan bat egiten ditu berez aparte be omentzeko modukoak diran giza-talde ez bardinak. Batetik, Bizkaiko Foru Aldundiak gerra aurretik egin eban auzo-eskolen planean euskerazko lehenengo irakasleetakoa izan zan, zelanbait geroko ikastolen aintzindarietakoa.

Bestetik, abertzaletasuna eta euskalzaletasunaren aldeko lanean be aurrelaria dogu: propagandista sutua; hitzaldi, batzar eta mitinetan hizlaria, eta emakumeak zeregin honetan parte hartzera bultzatuteko eragilerik garrantzitsuenetakoa. Emakume Abertzale Batzaren sortzaileetakoa izan zan, eta erakunde horren barruan langile fina.

Era beste alde batetik idazlea dogu. Mende hasieratik abertzaletasunak, Sabino Aranaren ideologian oinarrituta, indar handia hartu eban, eta horrek hainbat arlotan aurrerakada handia ekarri eban. Kulturari eragin oso positiboa izan eban, eta ordukoak ditugu euskal poesiako idazlerik gogoangarrienak: Lauaxeta, Lizardi eta Orixe. Baina ezagunenak ordukoak badira be, esan behar da garai hartan egoala inoiz euskeraz egon dan idazle multzorik handiena be. Eta multzo horretan, jakina, era askotako idazleak egozan: poesia landua jorratu ebenak, bertsolaritzari lotuago egozanak, gero be idazten

jarraitu ebanak eta gerra arteko urteetan bakarrik ezer argitaratu ebanak. Giro horretakoa dogu Sorne Unzueta, «Utarsus» ezizeneko idazlea.

Hori dana beragan batzen dauan emakume honek omenaldia merezi ebala eritxi geuntsan, bide batez bere moduko beste hainbat behargin apal, ezezagun, anonimori be omena eginez. Eta halan pres-tatu zan Derioko Udako Ikastaroaren barruan Sorne Unzuetaren inguruan Ikas-Ospakizuna.

Ekitaldi akademikorako hiru hitzaldi egin ziran. Miren Esturo Sorneren ilobak haren bizitzaren barri emon eban. Ia mendebeteko bizitza gorabeheratsuak zeresan eta zer pentsau handia ekarri euskun danoi. Sabin Barruetabeña pasiotarrak, Lauaxeta ikastolako irakasle eta Ibaizabal argitaletzeko langilea dan aldetik, euskerazko eskola-ikastolak, pedagogia eta irakaskuntzaren ganerako esparruak barrutik ezagutzen ditu. Horrez ganera, Gregorio Arrienegaz batera, gai honen ikuspegi historikoa jorratuta dauka, eta horregaitik, Sorne Unzuetaren irakasle-zeregina eta Emakume Abertzale Batzaren barruan egindako lana kokatzeko, esparru biok erabili ebazan bere hitzaldi jakingarri-dotorean.

Hirugarren atala Sorne idazleari buruzkoa izan zan. Bai garaia eta garai hartako literatura, bai emakume moduan euskal emakume idazleen artean kokatu, eta haren lanen barri emotea izan zan Igone Etxebarria Ikastaroko irakaslearen hitzaldiaren mamina.

Azkenean omenduak berak, eskerrak emoteko, harako berenberegi egindako olerki bat irakurri eban, oraindino be sasoian dago-ala erakutsiz.

Ekitaldi akademikoaren ostean afaria egin zan, euskaldunon artean ospakizunak egiteko ohitureari eutsiz. Baina omenaldiak, ekitaldi zehatz-jakin horretan amaitu eta gure historiaren zati garrantzitsua dan hau barriro ahaztu ez daigun, geroke geratuko dan beste zeozer behar eban, eta hona beste zeozer hori. Liburu honetan batu doguz alde batetik Sorneri egindako omenaldiko hitzaldiak, eta bestetik bere lan guztiak, argitaratuta nahiz argitaratu barik dagozanak. Nobela falta da, izan be ez da inoiz argitaratu, ezta hemen be, luzee-gi joko leukeelako.

Liburuaren osagarri hainbat irudi sartu dira. Hau dala-ta, Sorneri eskerrak emon beharrean gagoz, bai eskuratu deuskuzan argazkiakaitik bai berak margoztutako koadroak argitaratzen ixteagaitik.

Argazkiak dokumentu grafikotzat hartu leikez irakurleak, Sorneren bizitzari buruz, eta bere inguruan eiho zan euskal historiari buruzko erakusgarri ezin hobea dira-eta. Margoak, ostera, berak daukan sortzaile eta artista senaren beste agergarri bat gehiago ditugu. Eta era berean, margoztutako leku, paisaia eta pertsonak, bere kezka, zaletasun eta gustuen adierazgarri be badira.

Eskerrik asko, ba, Sorne Unzuetari egindako lan guztiagaitik, eta egindako hori saritu gurean, guri omenaldi apal hau egiteko aukera emotearren.

Eskerrik asko be Sorneren familiari, Sorne Errazti alabeari batez be, holango gauzak prestatzeak, apalenak izanda be, gorabehera eta buruko min handiak sortzen dabezan arren beti ondo hartu gaitulako eta emondako laguntzagaitik.

Izan daitela liburu hau gure historiaren hariak josten isilpean lan egin daben hainbeste pertsonaren omengarri eta esker-emole.

Labayru Ikastegia
Derio, 1995eko udagoiena.



Mungiako jai baten (1923).

Omenduaren agurra

GUDA AURREKO EUZKO IDAZLIEN OMENALDIA*

Itz onegaz itxartu deuste
neure gogoan lo egozan gomuteak
idazle onak neure irakasleak
bizi zarie muga igarota
alde onetan geratu da bakarrik
ondakina.

Eurek baziran zuben aziak
zubek zarie euren egaliak.
Eurek izan badira irakasliak
zubek euren ikasle on maitiak.

Entzun neure bitartez euren abotsak
entzun neure bitartez dei zoliak.
Nik esango deusubet, euren aginduz
antzinako eresiz abestia;
Jaunak emonik Aberri eder
ain garbi ta bikaina
ta bere izkuntza maitagarria
ikastaro onetan ikasia.
Tralala, erabili egunero,
Tralala, eztozube aitzu biar.

Auxe da dana. Amaitu dot.
Agur Jaunak, jaunak agur, agur t'erdia.

«Utarsus»

* Olerki hau Sorne Unzuetak XXVI. Derioko Udako Ikastaroan egin jakon omenaldian irakurri eban, eta ikastaroko ikasle gazteei zuzenduta dago.



1. Sorne Unzueta: euskaltzale, irakasle, idazle eta emakume

Miren Esturo

Sorne Unzueta Bilboko Marzana kalean jaioa dogu, Abandon, bost ahizten arteko hirugarrena, 1900eko azaroaren 27an. San Vicente eleizan bateatu eben, Sabino Arana moduan, eta kasualidade honek bizitzan zehar erakutsiko eben jokabidean bat egin ebazala emoten dau.

Izen bat baino gehiagogaz agiri da batean eta bestean. Primitiva, Sabina eta M^a Concepción izen ofizialak ditu. Etxean Concha esaten eutsien, eta abertzale egin zanean, 16 urte zituala hasi zan Sorne erabiltzen, Concharen itzulpena. Primitiva nortasun agiria eta gainerako agiri ofizialetakoa da.

Aita arratiarra eban, Igorrekoa, ama Gernikarra jaiotzez, baina ume-umetan umezurtz geratu eta Bilbora eroan eban izeko batek. Erderaz egiten eben etxean, baina Sornek euskalduna izateko euskeraduna behar zala-eta, 16 urtegez euskera ikasten hasi zan, Consuelo Gallastegi (Elías Gallastegiren arreba) irakasle ebal. Euskalduntze prozesu horretan beste irakasle batzuk be izan ebazan, Ebaristo Bustintza, guk “Kirikiño” moduan ezagututen doguna, tartean zala.

Lehenengo ikasketak Bilboko Atxuriko eskolan egin ebazan, irakaslerako ikasi gero, eta irakasle ibili zan Bizkaiko hainbat lekutan, Aldundiak ume euskaldunek euskeraz ikasteko zabaldu eban A kategoria edo ereduko eskoletan. Halango eskoletan euskera hutsean irakasten zan, nahiz ta liburu eta material lagungarri gitxi euki. Luis Eleizalde, orduko eskola-inspektoreak (1919-1923) oinarrizko material batzuk osatu zituan, eta horreek erabili ebazan Sorne Unzuetak batez be. Sorne Unzueta auzo-eskoletako irakaslerako egin zan lehenengo deialdikoa dogu. 1920an onartu zan lehenengo promozino honetakoak dira Julene Azpeitia, Consuelo Gallastegi eta Eulalia Azkuenaga besteak beste, 26 guztira.

Lehenengo beharlekua Errigoitiko Rigoitiolea eskolan izan eban Sornek, 1922an, Maria Rementeriaz batera. Eskola horretan egoa-

la Fruizen bizi zan, eskolatik 3 kilometrora. Egunero bazkaria eskolan bertan jateko eroaten eban, baina janari hotzak estomaguan kalte egiten eutsan, eta gainera, Bilbora joateko bai Mungia bai Muxikara 9 km eukazanez, aukera izan ebanean beste leku baterako eskaria egin eban. Han egoala euskaldun askok ez ebela euskeragan sinisten barruntau eban, eta umeak eskolara bialduten ebezan guraso askok ez eben gura euren seme-alabei euskeraz irakasterik, gurago eben gazteleraz ondo ikastea probetxugarriagoa izango jakielakoan. Arazo honek eztabaida asko ekarri eutsazan Sorneri. Ha ta guzti be, eskolan esku-lanak be egiten ebezan, eta kurtso amaieran gurasoek, konforme egon ezta be, azkenengo emaitzak ikusita, onartu eben behar ona egin ebal.

Rigoitioleatik Plentziara joan zan, Isuskizara. Han irakasle bakarra zan eta eskolan bertan egoan etxean bizi zan. Oroipen ona dauka han egindako denporaz, aldi lasaia izan zan. Eta Plentziatik Gorlizera, Uresarause eskolara. Hemen egon zan bitartean Gorlizen bizi zan, baina ez eban denpora asko egin bertan.

1925ean ezkondu egin zan (1925-4-23) Abandoko San Bizenti elizan. Senarra Gregorio Errazti Araluze, Bilbotarra eta Bilboko Caja de Ahorros Municipaleko enpleatua. Ezkonbarritan Lemoara aldatu ziran, holan gizonak Bilbora joateko modua eukiteko trenez.

Lemoan, herrian egon zan bitartean ondo, baina bera egoan eskola eskola nazional egiteko asmoa hartu eben, eta auzo-eskola barria Arrañon egin. Arraño herritik urrin geratuten zanez ez jatorkon ondo, eta Lemoan bizi zala, Bediako eskolara aldatu zan, Ugartera. Ugarten egon zan aldiko oroipenak be onak dira. Eskola-bitarteetan ikasleek ezpata-dantzan egiten eben. Isidor Zenarruzabeitiak, 13 ikasleei erakusten eutsien, eta horrez ganera, han Eulalia Azkuenaga eukan irakasle-lagun, eta bere esanetan, euki ebazan beharlagun guztien artean hauxe izan eban lagunik handiena, Eulalia hil zan arte iraun eban adiskidetasunak.

Lemoan bizi ziralda hiru seme-alaba euki ebezan: Andone (1926-7-14), Jon Ander (1928-4-27) Caracasen hil zana 1970ean (1970-8-1), eta Iñaki, jaiokeran hil zana.

Eta handik Berangora, Santa Ana eskolara, gerra hasi arte. 1934tik 1937ra bitartean egon zan Berangon, eta bitartean Algortan bizi ziran, Sarrikobaso kalean. Han jaiio ziran beste alaba bi, Gotzontze (1934-10-2) eta Sorne (1937-3-13).

Hau izan da Sorne Unzuetaren ibilbidea euskerazko eskoletan, irakasle hasi zanetik harik eta gerrak hau guztiau hautsi eta eten eban arte. Baina irakatsi ezeze, Sorne Unzuetak beste ekintza asko egin ebazan. Idatzi, esaterako. Gerra aurretik, orduan argitaratzen ziran aldizkari-egunkari abertzaleetan begiratu ezker, "Utarsus" ek sinaturako artikulua eta olerkiak aurkituko ditugu. Sornek ezizen hau erabilten eban garaiko jokaerari jarraituz. Izen honek zer esan gura dauan berari galdetu eta halan erantzuten dau: «U(nzuet) tar S(orne)». Eta 'Sus' Sabino Aranak alfabetoko letren izenak emotean 's'ari ipinitakoa da. Hau da, 's' letrea ez da 'ese', 'sus' baino, hortik ba izena.

Idatzien artean mota ezbardinetakoak dagoz, baina gai bi erabilten ditu gehien, eta horreek gogoratuko ditugu bere jardunbideagaz zerikusirik argiena daukelako.

Bata eskolari buruzkoa da. *Euzkerea* aldizkarian "Ikastoletan bi elez" izeneko artikulua atera eban 1930ean. Artikulu horretan ume euskaldunek eskolan gaztelera ikasten behartuta dagozala salatuten dau, eta ez hizkuntza bakarrik, baita geografia, historia, eta gainerako gaiak be Espainiari buruz, euskalduntasuna beti kanpoan geratuten dala. Horren ondoan, ume euskaldunek kristau-ikasbidea euskeraz ikasteko modua dauke, baina orduan arazoa beste bat da, etxean ikasten daben hizkuntzak ez deusiela balio liburukoa aituteko, eta berba barri asko ikasi behar dabezala ordura arte inoiz entzun bakoak.

Orduan, irakaslea abertzalea ez bada, zer gertatuko da? Gurago izango dabe erderaz irakatsi errazago egingo jakelako, eta euskera etxerako bakarrik gordeko dabe, beste ezertarako balio ez daualakoan.

Gehiagotan be agertuko dau euskeraren aldeko jarrera, abertzaleen zeregin moduan gainera. Ezin da abertzaleztat agertu eta euskerrik jakin edo ikasi ez. Ha ta guzti be, beti nahiago ez erabiltea modu txarrez eta euskaldunen kontra erabiltea baino.

Sorneren idatzietan sarri aurkituko dogun beste ideia nagusi bat: emakumeei aberriaren alde behar egiteko egiten deutsena deia. 1931an *Euzkerean* "¡Itxartu, euzko-alabea!" olerkia argitaratu eban. Olerki horretan, titulu bertan ageri danez, emakumeei ez geratuteko geldi esaten deusie. Emakumeak zeregin handia dauka gizartean eta aberria salbatzeko, eta ezin dau dana gizonen eskuetan itxi.

Idea bera dakar urte bereko beste artikulua batean, *Bizkaitarra* aldizkarian argitaratua, "¿Cuando...?" galdera ipini deutsa izenburu-

tzat eta hor be ideia bera dakar. Gizonen garaipena ospatu dabe, baina gauza batek emon deutso pena handia, emakumeen parte hartzea ez ikustea. "Utarsus"en ustez, andrak *Emakume Abertzale Batza*-ren bitartez gizonen beharra osatu behar dabe.

Izan be, Elías Gallastegik (Consueloren nebak) ingeles irakasletzat irlandar bat euki eban. Irakasle horren bitartez Elíasek Irlandako alkarteen barri euki eban, eta han andrak be euren erakundeetan alkartuta egozala jakiteak Euskadin be gauza bera egiteko gogoia eragin eutsan. Halan sortu zan Emakume Abertzale Batza, eta bertako lehenengo partaideen artean Karmele Errazti, Ibaseta, Gotazne (Consuelo) Gallastegi aipatu daitekez. Sorne bera be bokala izan zan erakunde honen zuzendaritzan 1931-32 urteetan. Erakunde honetan sukaldaritza eta josten irakasteko ikastaroak emoten ebezan, eta "postoliñak" prestatu.

Emakume Abertzale Batza Euskadi Buru Batzarretik banandu zanean, Bidebarrietatik Correo kalera aldatu zirenean, Sornek propaganda edo zabalkundearen ardura hartu eban. Beragaz egozan Mari Tere Zabala (D. Federicoren alaba), Nati Uribe, Aide Agirre, Polixene Trabudua, Lucía Ardanza.

Sorne gizarte arloko hainbat zereginetan ibilia dogu. Berak dinonez, 1932an andrazkoak botoa emoteko eskubidea hartu ebenean, ikusi eban ezkerreko alderdietakoak aurreratu eta emakume-hizlari sozialistak andrazkoen botoa bereganatuten ebilzala. Orduan pentsatu eban abertzaleek be gauza asko eukezala esateko, eta urten egin behar ebela abertzaletasunaren alderdi onak azalduten. Halan hasi zan mitinetan parte hartzen. Lehenengo hitzaldia Algortan egin eban baina bereziki gogoratuten dau Bermeon egindako hitzaldi bat. Bere aurretik beste batek berba egin eban, hizlari ona zan eta gai ekonomikoetan jakituna ganera, baina halango gaiak herriko jendeari, erderaz azalduta gainera, ez jakozan ondo egokituten. Orduan berak, jendeaurrera urten eta euskeraz hasi ei zan esanez: "Bermeotarrak!" eta jende guztia txaloka hasi zan eta itzelezko arrakasta euki eban. Mitinaren ostean herritik joiala jendeak txaloka agurtuten eban.*

Bai hizlari moduan bai idazteko euskeraz egiten eban batez be. Algortan egindako lehenengo hitzaldia erderaz egin eban, baina

* Pasarte hau berau "Bermeo" izeneko narrazioan azaltzen da.

Gipuzkoan euskeraz egiten ebezala-eta berak be halan egin behar ebala ikusi eban. Aurrerantzean beti euskeraz egin eban, lehenengo prestatu egiten zituen eta buruz ikasi. Bere esanetan erdereza bada berez aberatsa, eta badauka aberastasun hori nork landu, beraz ez dago erre kara ura eroan beharrik, erreka horrek badauka ura. Guk gure ura geuretzat gorde behar dogu.

Baina gerra hasi zan eta aurreko guzti hau eten egin eban. Sornek, orduan, lau ume txiki hartuta, danak be otzara baten sartzeko modukoak berak dinoanez, Frantzira alde egin behar izan eban. Beragaz joan zan Asun bere ahizta be. Erbestealdia 1937an hasi zan, "Goizeko Izarra" untzian egindako bidaian. Oso eskertuta dago orduko Eusko Jaurlaritzagaz sasoz atera ebe zalako, Gobernu ko kideen familiekaz batera. Bidea zorabiatuta egin ta gero, Bordelera heldu ziran, eta gero Saint-Christaud eta Kanbora. Bizimodua ez zan bape ona, berak jertseak egiten zituen enkarguz, eta sua egiteko errekatik ateraten eben egurra. Eskola bat eratu zan han eta bera zan andereño, baina ez eban dirurik hartzen behar horregaitik.

Senarra Bilbon geratu zan, eta gero Bartzelonara bialdu eben. Urte bi geroago bat egin eben Lourdesen. Baina han ezin eben lanik aurkitu, eta umeak gosez hilgo jakiezan bildurrez, hiru zaharrak Bilbora bialdu ebezan izekoagaz. Familia ez bardinetan banandu ebezan, aitita-amamen etxeetara batzuk, eta gazteena Gregorio Larrucearen familiarenera.

Frantzian erbesteratuak ezin eben beharrik egin, hori dala-ta Sorneren senarrak inork gura ez ebazan beharrak baino ezin ebazan lortu. Sornek oster a (bizitzaren joan-etorriak) gaztelera irakasten lortu eban irabazpidea. Sasoi mingarria izan zan seme-alabek ez eutsielako idazten. Hain aldi txarra izanda, barriro haurdun geratu zan, eta haurdunaldia eteteko be aholkatu eutsien arren semea euki eban. Xabier Lourdesen jaio zan 1942ko azaroaren 11an.

Juan de Ajuriagerrak eskatuta senarra erresistentzian sartu zan. Sorne be sartuta egoan, eta bere zeregina alderdi libretik alemanek okupatutako alderdira mezuak eroatea zan. Leizaola be inguru haretako erresistentziko euskaldunen taldean sartu zan.

Gerra amaiera ospatzeko, heriotza zigorra eukan arren, txahal bat hil eben taldeko guztien artean jateko.

Gerra amaituta, Eusko Jaurlaritzak Parisen hartu eban egoitza. Jose Antonio Agirre zan lehendakaria eta Gregorio Erraztiri han

behar egiteko deitu eutsan, *Euzko Deyako* bulegoetan. Euskal Ordezkaritzako atezainaren etxea itxi eutsien biziteko, 11 avenue Marceau-n.

1947an Andone, alaba zaharra Parisera joan zan familiagaz barriro bat egiteko, eta Gotzontze 1949an.

1951eko ekainean Espainiako Gobernuak Frantziakoari egindako indarragaitik Euskal Ordezkaritzak handik alde egin behar izan eban, han liburutegia egiteko zirala-eta, eta orduan eurak be etxetik urten eta rue Curiel-eko hotel-apartamentu batera joan ziran 1953ko azarorarte.

1953an azaroaren 20an, 16 urteko erbestealdiaren ostean, barriro Euskal Herrira itzuli zan senarra gaisorik eukala, hemen hil gura ebala-ta haren gogoia beteteko, eta handik bost egunera hil zan, azaroaren 25ean, Sabino Aranaren heriotzaren 50. urteurren egunean.

Bilbora etorri orduan lehenengo bere ahizten etxean egon zan. Hemen frantses eta kultura orokorra irakasten jarri behar izan eban, eta eskolei eta bere seme Jonen laguntzari esker seme-alaba gazte biak aurrera atera ebazan. Alaba nagusi biak euren kontura jarri eta Parisen geratu ziran.

1968tik hona Algortan bizi da, baina ez ezer egin barik. *Zer* aldizkarian hainbat olerki argitaratu ditu, batzuk gerra aurrean idatzitakoak, beste batzuk barriak. Azken urteotan margolaritza ikasten dabil, 75 urtegaz ikastaro bat egin eban eta harrezkero hainbat margo egin ditu. Beti be zeozertan ibili behar, eta gainera kreatibitateari urtenbidea emonez.

Iazko abenduan jausi eta kadera apurtu eban. Beretzat ospitalean egotea eta Gurutzetan operatutea esperientzia zirraragarria izan zan. Hobeto osatzeko Gorlizko Ospitalean egin eban aste pare bat. Baina hortik gora, burua argi be argi dauka oraindino be, baita bera baino gazteago askok baino.

Sorneren bizitzaren laburpena amaitzeko, eta bere izakera erakusten dauan neurrian, berak behin eta barriro esan izan dauan esaldia ekarriko dogu:

“Haize gozo batek unkitu egiten nau eta haize-erauntsiak ez nau botatzen” (Una brisa me conmueve y el huracán no me abate).

2. Euskal eskolaren aintzindariak

Sabin Barrueta

SARRERA

Hasteko, eskerrik asko Sorne Unzuetari, aspaldiko «Utarsus»i, eskeinitako omenaldi hau historiaren tantakada batzuez girotzen parte hartzeko aukerea emon deustazuelako. Euskal Eskolaren sorrera zailak zerbait ezagutu eta hori gauzatu eben atzo hurbileko maisu-maistra lehiatuen gomutea zaindu beharra ikusten dabenei euroi eskeinitako gorazarreak txit egoki begitantzen jakez. Azken hamarkadan behin baino gehiagotan egin izan dira antzeko ekintzak, baina beti ere pertsona bakarrei edo talde txikitxoei eskeiniak. Atzeregira jo barik, eta eskuartean erabili ditudan datuen arabera, 1983an Euban eskeini jaken omenaldi handi bat gerra zibilean erbestera joan ziran berrogeita hamar maisu-maistrari. Beste batzuetan ere burutu dira antzeko ekintzak, berbarako, Durangoko Liburu eta Disko Azokan eta. Era berean, Udaletxe batzuk eta kultur talderen batzuk ere arduratu izan dira eta arduratzen dihardue euren eskualdeetako maisu-maistrak —jubilatzean edo agur dinoskuenean eta— agiriko omenaldian txalotu eta eurekandik jatorkun bidea eredu lez erakusteko. Baina, aitatu dot lehen be, bakarka eta erdi lotsariz lez egiten dirala. Askozaz ere egokiagoa litzateke honelako gorapen jaiak talde osoari eskeiniak balitzaz, talde osoari eta Euskal Erakunde publikoetatik bultzatuta. Eusko Ikaskuntzen Munduko II. Kongresuan, 1987an, pedagogi materialen erakusketan ere aitatu zan baterako omenaldi handi hori eskeintzea komenigarri lez ikusten zala; eratzailleak be baiezkoa edo begi onez ikusten ebenekoa aitatu eben, baina gero, eta egundo be argitu ez diran arrazoiak dirala eta, beranduagoko noiz-baiteko aukera hobearen zain edo geratu zan.

LEHENGO ANDRA ETA GIZONEN GOMUTA SAMURRA

Gaiari oratzen hasiz, mende honen lehenengo erdialdean zehar —hortxe kokatzen ditut nire ihardunalditxo honen datuak eta—, bata bestearen ondoren agertu ziran gure artean euskal mugimendu

eta pedagogi ekimen desbardinak, bakoitza bere inguru eta ezaugarri zehatzez jantziak, nahiz eta euren artean ukaezinezko hartuemona eta eragina izan.

Mugimendu honeen ingurumarian, bai bultzagile bai euron gidari lez ibili ziran andra eta gizonen izenak behin eta barriro errepikatzen dira gaur egun euskal hezkuntzaren historia aztertzen diharduenen ikerlanetan. Eguneroko eskolako heziketa-lana zehatz eroateari gitxi eretxiz edo, irakasleotariko asko oso azkar sartu ziran politiko-sozial giroko ekintzetan ere, euren ezaupidea eta ospea zabalago egina. Honeetariko batzuk behin eta barriro jo eben egunkari eta sasoi haretako aldizkaririk ezagunenetara euren ideiak eta ekarpenak, bai euskeraz bai erderaz, eskeintzeko. Horretarikoa dogu, beste batzuen artean, gaur hemen omentzen dogun Sorne Unzueta ere. Dana dala, alperrik ez luzatzeko eta inoren izenik aitatu barik ez izteko, gure maisu-maistra baliotsuon barri zehatzagoa euki gura izan ezkerro, hor ditugu Mercedes Ugaldere *Mujeres y nacionalismo vasco, 1906-1936* (1933an), Gregorio Arrienen *La Generación del exilio* (1983an), *Educación y escuelas de barriada de Bizkaia* (1987an), *Las ikastolas de Bizkaia 1957-1972* (1993an) argitaratutako liburuetan.

EUSKAL EKIMEN EDO PEDAGOGI MUGIMENDUAK

Joan zan XIX. mendearen azken partean Azkuek Bilboko Jardines kalean hasitako irakaskuntza esperientzia alde batera itziz, 1908an edo sortu ziran Bilbon Plaza Barriko Euskal Eskolak, geroago Itziarko Andra Maria izenez ezagutuak; urte batzuk geroago, antzeko eskola barriak sortu ziran Colon de Larreategi kalean ere. Rosario Arribiren eskuetan egon zan eskolearen zuzendaritza. Aldi berean, “Emakume” taldearen eraginez, sortu eta hasi zan lanean “Ropero Vasco” (Euskal Jantzitegia) ere. Erakunde honen sortzaileetariko saiatu, inor izan bazan, gaur hemen omentzen dogun Sorne. Zoritxarrez, eta diru urritasunak jota batez ere, lehenengo eskola honeek bizitza ahula izan eben eta amatau egin ziran Diktadurea etorri zanean; “Ropero Vasco” alkarteak, oster, andrazkoen mugimendu bizi-bizia taiutu eban inguruan eta bere helburu ongileaz gain, eta ahalbideen neurrian, eragin nabaria izan eban abertzaletasun mugimenduaren garapenean. Polikarpo Larrañagak aitutzen ditu “Emakume” alkarte honen lehenengo gidarien izenak: Victoria Larrinaga Basabe, Sofia

Mc Mahon de la Sota, Carlota Olano Orue, Concepción Azaola, Rosario Gorbea, Juana Chalbaud Rotaetxe, etab.

Bigarren hamarkadearen amaieran eta hirugarrenaren lehenengo urteetan, hemengo hezkuntz eta kultur giroan aldaketa itzela etorri zan, abertzaletasunaren bultzadeak eta alde haretako autonomi indarrak eraginda. Bolada honetan erne eta garatutakoak ditugu, besteak beste, Bizkaiko Foru Aldundiaren Hezkuntz eta Kultur Batzordeak, eta batez ere, Eusko Ikaskuntza Alkartea. Une horretantxe eregi ziran Bizkaiko Auzo-Eskolak, baserri giroko auzoetatik analfabetismoa erauzi, hezkuntz elebiduna indarbarritu eta gizarteagaz eta kultureagaz hartuemon biziagoak egitera joteko. 126 auzo desbardinetan kokatu eta, beste batzuen artean, Luis Elizalde eta Eduardo Landetak taiututako arauen arabera eregitako Auzo-Eskolok irakaslego ugaria izan eben, partaide izateko lehiaketara agertzen ziran irakaslegaien artean aukeraketa zehatzez hautatuak. Elkarren heziketa eta kultur maila garatua zan guztion ezaugarrietan bat. Bizkaiko Foru Aldundiak bideak ondo eratu zituan bere nazionaletan jasoten eben oinarrizko maisu-soldatearen aldean hobari eta eskubide beroagoak eskeiniz.

Asmatu leikenez, asko izan ziran irakasle honeen artean nabarmendu ziranak. Hor ditugu, isildu ezinezko batzuen artean, Julene Azpeitia, Maria Lejarreta, Maria Nieves Gomeza, Consuelo Gallastegi, Gregoria Zufiaurre, Maria Luisa Leibar, Ines Zubeldia, Maria Pilar Arana, Augusto Vecino, Amad Arnaziz, Sorne Unzueta, etab. 170 irakasle ziran guztira 1934an, eurotatik 161 andrazkoak eta 9 gizonezkoak.

Julene Azpeitia, bere bizitza eta lanari buruz liburu bapo bat be argitaratu genduan alkarlanean 1988an, irakasle eta idazle lez txitozkoa izan zan. Hezitzaile lez, oso ondo ezagutzen zituen Montessoriren metodoa, Manjonen Agur Maria eskoletako pedagogi esperientziak eta une haretako beste metodologi eta didaktikazko teoria batzuk be. Idazle lez, bere idazlan ugarien edukina, oinarrian, pedagogiari buruzkoa zan, baina baekian pedagogi ortua jorratzen ziharduala abertzaletasun hazitxoak ereiten ere, kasurako, Autonomi Estatutoaren aldeko kanpaina umeen artean, edo eskola abertzale konfesionalaren aldeko zabalkunde ekintzak ere tarteko emenez. "Arritokieta", Julene Azpeitiaren ohizko ezizena, Euskal Herriko abertzale mugimenduan andrazkoak partaidetza bizia izatearen alde-

koa zan, abertzaletasunaren garapenerako oso egoki eta beharrezko ikusten ebalako ekintza politiku hau.

Edo gaur omenaldia eskeintzen jakon Sorne Unzueta, bilbotarra, euskaldun barria, hamasei urte loratu barrietan euskaldundu eta Auzo-Eskola aldenduetan euskera hutsean lan egiten ahaleginduz gainera, barruan eroan euskal suaz dana kutsatu guraz, aldizkarietan idatzi eta berbaldiez giroa berotzen ibilia. Behin eta barrero kaleratu zituan abertzaletasun garrak bere luma gorituak.

Eratutako pedagogi lorratzei pausoz pauso jarraituz, II. Errepublika denporan Eusko Ikastola Batza sortu zan Bilboko Emakume Abertzale Batzaren ekimenez. Ideia hau kaleratuaz batera onartu eta bultzatu eben beste erakunde Jeltzale batzuk be “Emakumeen” proposamena. Andrazko Jekideon ekimenaren aldeko eta eragingarri ziran jazoera batzuk gertatu ziran, —kontrako erasoak euskal kontzientzia biziagotu egiten ei deusku eta—, adibidez, II. Errepublikako Gobernuak ezarritako laizismoa eta eskolan euskal ikuspuntua emoteko zailtasunak. Federazioaren obra, hezkuntza osoa euskeraz eta kristau ikuspegitik emotearen aldeko filosofian oinarritua, urte gitxiren buruan ia Bizkaiko herri handi samar guztietara zabaldu zan. 1932an aukeratutako 20 andereñoak, —euretariko batzuk bizi dira oraindino— ardura barria eurenganatu aurretik, lanari hobeto erantzun ahal izateko, ikastaro bat egin behar izan eben: euskeraz alfabetatzeaz gainera, euskal historia eta folkloreak, umearen hezkuntzarako metodologiak eta eskola-kantu eta dantzei buruz izan zan ikastaroa. Gaiok emon eutsiezan irakasleen artean, On Joxe Migel Barandiaran, Julene Azpeitia, Aita Donostia, etab.

Oso ezagunak diran arren, ezin ditut aitatu hemen Eusko Ikastola Batza osotzen eben irakasle guztien izenak. Hori ezagutzea gura izan ezker, *La Generación del exilio* liburuko 110. orrialdea irakurtea litzateke egokiena. Honetaz gehitu neiken bakarra, eskola honeek bizitza laburra izan ebela, gerra zibilak sustraitik hondatu ebalako halako proiektu interesgarria lehenengo pausoak baino emon ez zituanean eta indarra hartzeko asko falta jakola. Ikasle eta andereñoetariko askok erbestera urten beharra izan eben 1937an.

Urte batzuetako isilaldi eta iluntasunaren ondoren, barriz hasi ziran Donostian euskera erakusten berrogeiko hamarkadaren erdi aldean; Elbira Zipitria izan zan lehenengo pausook emon zituana, eskolea bere etxean eta ezkutuka eraturik. Urte batzuk geroago, bide

bardinetik jarraitu eben Gipuzkoako beste andereño batzuk ere: Itziar Arzelus, Faustina Karril, Karmele Esnal, M. Karmen Mitxelena, M. Karmen Lasarte eta Kontxi Beitiak, hain zuzen ere.

Zipitriaren lanak eta jokabideak jarraitzaileak izan zituan eta laster heldu zan Bilbora ere. Arrazoiz joten dabe Elbira hau andereñoen hezitzaile lez, izan be, bere ikastolan hartzen zitualako irakasle-gaiak hilabete gitxi batzuetako praktika saioetan.

Bizkaian kida horretako ikastola mugimendua asmatu eta bultzatu ebana Xabier Peña izan zan, eta ez zan gelditu San Nikolas Parrokian lehenengo ikastola martxan ikusi arte. 1957an gertatu zan hau, irakaslego egokia, diru-laguntzaileak eta, euskera eta euskal kultura berbizteko gauza handia egiten eben ziurtasunean, euren seme-alabak eskola barrietara bialtzeko ezbairik izan ez eben hamabiren bat guraso leialen eskuari eskerrak. M. Angeles Garai eta Agurtzane Alberdi izan ziran San Nikolasko ikastolan lan egin eben lehenengo andereñoak.

Bigarren une baten beste pertsonaia garrantzitsu batzuk sartu ziran, adibidez, Juliana Berrojalbiz, Tere Rotaetxe, eta beste andereño pila bat, aitaturik dagoan gerraurrean Auzo-Eskoletan lan eginak.

Ezkutuko aldia hirurogeiko hamarkadan amaitu zan, 1966ko hezkuntza munduko aldaketen giro barruan, Elkano 6 kalean funtzionatzen eban Resurrección M. Azkue ikastola legezztatzea lortu zanean. Une beretsuan hasi ziran beste herri handisketan ere ikastola barriak indar barriz agertzen. Sortuak bai, baina oraindino zentruen eredu finkorik ez egoalako, ikastola molde asko agertu ziran, bakoitza bere nortasun eta bizitzeagaz, kasu bakoitzean izandako finantzaketa-bideen, baldintza sozio-kulturalen eta bizi izandako giroaren arabera.

ONDOREN BATZUK

Gehiegi ez luzatzeko, lerroon ondoren barri berezirik ekarteko asmo barik, hauxe esan lei handi-handika eta era oso laburrez:

- Aitatu diran faseak eta mende honen lehenengo erdialdean egindako bideak oinarri-oinarrizkoak dira geroko ikastolaren bilakaera aitzeko.
- Eskolaren bitartez euskerea eta euskal giroa salbatzera jo eben andrazko eta gizonetzkoak, gehien baten, abertzale idealak bultzatuta ziharduen.

- Ikasgeletako hezkuntza lana, gehien baten, andrazkoen eskuetan egoan, administraziokoak eta eraketakoak, ostera, gizonezkoenetan.
- Eguneroko eskoletako hezkuntza-lanaz aparte, andereño honeztariko batzuk —gaur omendua dogu motore bizienetariko bat— abertzale ekintzetan be parte hartzea erabagi eta arrakasta ederrez parte hartu eben. Ekintza hau asko erraztu jaken Emakume Abertzale Batza ondo eratzea lortu ebenetik aurrera.
- Azpimarragarria aldi haretako egunkari eta aldizkarietan argitaratzen zituen lanez irakasleok euskal idazleen munduan sarturik ikustea.
- Gerra zibila egiaz be lazgarria izan genduan pertsonen aldetik begiraturik, eta beste hainbeste esan behar euskal eskola eta kultura mundutik be, erauzita geratu ziralako: liburu eta liburugietan garbiketa egin zan, eta zer esanik ere ez, autonomia giroan irakaskuntzan eta abertzale giroko mugimenduetan ihardundako maisu-maistrengan.
- Baina Behe-Pirinioetara erbesteratu ziran irakasleak eta umeak lortu eben salbatzea, ahal zan neurrian behintzat, bai euskera eta, era orokorrean, baita euskal kultura ere, espiritu hori bizirik zaindu ebelako eratu ziran zentru eta kolonietan.

3. Sorne Unzueta ren literatura

Igone Etxebarria

EMAKUME IDAZLEAK EUSKAL LITERATURAN

Sorne Unzueta besteak beste idazlea dogu, eta hori gauza berezitat hartu daiteke, hain andrazko gitxi egonda gure literaturaren historian. Baina Sornek gerra aurrean bere poesiak argitaratu eban aldizkariei erreparatu ezker bere ondoan beste andrazko asko aurkituko doguz era bateko edo besteko idatzien egile. Hona izen batzuk: Pantzeska Astibia «Onintze», Errose Bustintza «Mañariko», Miren Elixabete Aginaga «Ete», Polixene Trabudua, Aide Agirre... eta hori urte gitxitako aldizkari batzuk bakarrik begiratu-ta.

Egia da, ha ta guzti be, ez dirala behar bestean ezagutzera emon eta literatura aztertzaileak ia inoiz ez dabela idazle honeen lanean erreparatu. Zergaitik izan ete da hori holan? Niri arrazoi bi jatortaz bapatean burura egoera horren eragiletzat. Alde batetik, garai honetako gainerako idazle guztien moduan, emakumeok ezizena erabilten dabe, eta horrek gatx egiten dau azpian dagoana andrazkoa ala gizonetzkoa dan jakitea. Nik neuk be, kasurako, sarritan ikusi dodaz «Ete» dalako batek sinaturako artikulua, eta beti gizonezkotzat hartu dodala aitortu behar dot, harik eta holango aldizkari batean berari buruzko ohartxo bat aurkitu neban arte izen osoa agertuz, eta sorpresa hartu neban.

Beste arrazoi bat idazle honeen lan kopurua izan daitekela bururaturen jat, izan be gehienak sasoi mugatu baten idatzi dabe, lan bakanen batzuk aldizkarietan sakabanatuta argitaratu, eta hor geratu eta galdu da lan hori. Argitaratutako uneko irakurleak izan dira lan horren barri eta balioa izan daben bakarrak. Bakotxak kopuru txikia idatzi izanak eta idatzitako hori sakabanatuta egoteak ezezagun egin ditu.

Baina horrek ez dau esan gura beste barik maila eskasagokoak diranik, kasuan kasuan aztertu beharko dira ze idazlan mota diran eta norainoko literatur balioa dauken.

GERRA AURREKO IDAZLEAK

Sorneren olerkiak 1930etik 1932ra bitartean argitaratu ziran batez be, gerra aurreko lanari dagokionez, eta izan be, sasoi hori euskal literaturaren (eta poesiarena batez be) goraldia da. Idazlerik gorengoenak aldi honetakoak dira, eta euren lana Sorne eta gainerako emakume idazleen olerkien ondoan ageri da argitaratuta. Baina goraldi hau bere kontestuan kokatu ezker abertzaleak herrigintzan murgilduta dagozala ikusiko dogu, eta bete-betean dabilzala lanean: euskera indartu, eskolak zabaldu, aldizkariak argitaratu, gizarte arloan ideologia zabaldu jende guztiarengana helduteko... Horrek guztiorrek kulturaren be zabalkundea dakar eta inguru horretan kokatu behar dogu produkzioa ugartutea.

Baina garai honetako idazleak ez dabe idazten idaztearren, literatura egiteko helburuagaz, beste helburu baten menpe baino. Helburua ezbardina da kasuan kasuko idazlearen arabera: irakasle askok euren ikasleentzako irakurgairik ez daukela-eta euren pentsatuta idatziko dabe, beste batzuk abertzaletasuna goraiatzeko idatziko dabe, aberriaren alderako deia egiteko beste batzuk... Helburuaren arabera idazteko modua be ezbardina da: irakasgairaren bat daukan ipuina, eritxi artikulua, olerkia...

Danen artean ez dago dudarik balio handiko idazlanak dagozala. Beste batzuk oster, bigarren mailakoak dira, baina besteen osagarri honek be.

Idaztea ez dala idazleen lehenengo helburua argi geratuten da ikusten badogu idazten dabenak normalean beste arlo batzutan be konprometiduta dagozala: gizarte edo kultura arloko alkarteetan sartuta dagoz, mitinak emoten dabez, Emakume Abertzale Batza edo Euzko Gaztediko partaide dira, euskera irakatsi eta irakaskuntza euskeraz egiteko ahaleginetan murgilduta dagoz, beste era bateko idatziak be egiten dabez ez literatura hutsa... Azken baten, ez dauke euren burua idazletzat, baina horrek ez dau esan gura beste barik idazle ez diranik be.

Sasoi honetako gainerako idazleen artean nabarmentzekoak doguz Esteban Urkiaga «Lauaxeta», Eusebio Erkiaga «Endaitz», Imanol eta Kepa Enbeita, Bizkaikoak baino ez aipatutearren. Maila oso ona hartu eban garai horretan euskal poesiak, eta gaur egun batzuk bakarrik ezagun doguzan arren beste asko dagoz isilpean eta

anonimatoan galduta baina benetan gogoan hartuteko modukoak. Idazle horreen lana eta ekarria aztertzeak argibide asko ekarriko leus-
kigu gure literaturaren historia hobeto ezagutzeko.

SORNE UNZUETA POETA

Sorne Unzuetak, bere garaiko gainerako idazle guztien moduan izenordea erabili eban bere lanak sinatzeko, «Utarsus», eta «Utarsus»ek hainbat lan sinatu ditu gerra aurreko nahiz osteko aldizkarietan.

Idatzi guztiak batu ezkerro corpus sendoa osatuko geunke, eta benetan ederra izango litzateke danak batera argitaratzea.

Berak emondako materiala eta aldizkarietan arakatuz aurkitu dogunagaz, «Utarsus»en lan guztiak batuta kopuru ederra egiten dabela ikusten da argi eta garbi. Guztira hurrengo honeek dira: zortzi artikulu, zazpi ipuin, 47 olerki eta nobela bat. Artikuluetariko batzuk eta nobelea izan ezik beste guztia euskeraz idatzita dago. Nobela geroagokoa da, gerra osteko erbestealdian oinarritua eta ez dago argitaratuta.

Olerkietatik 12 dira gerra aurretik argitaratutakoak, danak *Euzkerea* aldizkarian. “Artxanda” izenekoak 1952an argitaratu zanaldi berean *Euzko Gogoa* eta *Euzko-Deyan*. Gainerakoak 1977tik aurrera *Zer* aldizkarian agertu dira oraintsura arte, azkenengoa 1990ekoa da-ta.

Lehen esan doguna Sorneren kasuan be betetzen da, hau da, beretzat idaztea bide batez egiten dauan zeregina da, ez deutso alderdi horrerik aparteko baliorik emoten, gizarte-arloan egoan konprometiduta batez be. Eta gainera ez dauka belaunaldi edo talde kontzientziarik arlo honetan. Argi dago ezagutzen dauala besteek zer idazten daben, idazteko moduan antzekotasun handiak dagoz-eta, baina idazleen artean ez dago literatura barria egiteko aurretik prestatutako asmorik.

Gizarte-arloko ardura da poesietan be gai nagusia, “Itxartu euzko alabea!” esango dau «Utarsus»ek emakumeei zuzenduz bere deia. Baina berak egiten dauan balorazinoa argi dago “Gomutazokijak” izeneko olerkian:

Ibaia lez, gentzean, neure gogua
Ipini gura neuke: barrenian,

Giza-maitetasunak, ahaztu ezinak
Izan arren, benetan basazkuak.

Eurak baino gorago, Aberrijentzat
Maitetasuna, hauxe da, ur gardena
Baina gorago ondino, dan bikainena
Jaungoikuarentzako maitasuna.

Hiru mailak argi dagoz, beraz, giza-maitasuna beherenganon, Aberriarena gero, eta Jaungoikoarenganako maitasuna danaren gainetik. Giza-maitasunari dagokionez ama-semearen arteko hartuemo-na da gehien edo sarrien agertzen dana, andrazkoa dalako behar-bada. Aberriari be maitasuna zor jako eta horretarako deia egiten dau, beti be giza-balioak errespetatuz, jakina. Baina danaren gainetik Jaungoikoaren borondatea dago, izan be, gizakiak daukana Jaungoikoak emon deutsalako dauka-ta.

Baina Jaungoikoaren nahia beti betebeharrekoa bada be, Elizako agintariak ez dira beti hain aintzakotzat hartzekoak. *Me voy contigo* izenburua daukan nobelan abade eta gotzain batzuren jokabidearen kontrako kritika ageri da Espainiako agintari diktadorearen ondoan ikusten diralako besoak altxatuz, eta ez Konsagrazinorako. Eritxi hori Sornerena dala esan daiteke, nobelako protagonistaren ahotan egon arren.

Baina hori gorabehera, Jaungoikoa da danaren sortzaile eta helburu. Natura, bizitza bera, dana da Jaungoikoak emondakoa, eta harenganako maitasunak gidatuko dau pertsonen jokabidea beti. Era berean bera da laguntza behar izan ezkeru lagundu leikigun bakarra.

Ardatz nagusiak horreek badira be, beste gai batzuk be garrantzi handia dauke Sorneren olerkietan. Gerra, esaterako, edo amatasuna ama-semeak agertzen dirala, gogo-egoera, natura eta urte-sasoi bakoitzari dagokon paisajearen deskribapenak...

Olerki gehienak, ostera, orden edo egitura antzekoa dauke. Hasteko, naturan ikusten dituen fenomenoek deskribapena egiten dau, eta horregaz irakatsi gura dauana azaldu gero, elementu bakoitzari pareko dagokiona emonda. "Udabariyan" olerkian adibidez, aita-semeak baratzan dana loratan ikusita, semeak intxaurra eta gaitaina neguko-itxuraz dagozanez, hilda dagozalakoan egurretarako gura ditu, baina aitak itxaroteko dinotso orrilan ikusiko dauala-ta orriz eta frutuz beterik. Horren ostean dator irakatsia edo mezua:

halantxe dira euskotarrak. Abertzaleak pozik dagoz ikurriña airean ikusita, baina euzko-odola euki arren aberria maite ez dabenak be badagoz, eta horreen bihotzak be behar ditu aberriak, horregaitik maitatu behar dira.

Gauza bera da “Umiak irakatsia” olerkian esaten dana. Amak, lo dagoan umearen bakeak hunkituta, haren egoeraren gozoa deskribatuten dau natura osoa horretara ekarrita. Baina amarentzat umearen bakea gozoa dan moduan, guretzat Jaungoikoa umeari babesa emoten deutsan amaren gainetik dago.

Olerki amaieran beti argituten da aurreko irudiak euki dauan bigarren irakurketa, eta normalean irakatsi morala da.

Modu horretara jokauten dabe «Lauaxeta»k eta «Loramendi»k be, hau da, gerra aurreko poetarik ezagunenetarikoak.

Idazkera dala-ta oso deskriptiboa dala esango dogu. Deskribapen zehatz-argiak egiten ditu, eta adjetibo asko darabilz bai egoerak bai paisajeak ahalik eta argien adierazteko. Hona adibide batzuk: izar barri-garbi-kutsagea, ohial zantar-lio-zikina, errukitasun neurribakoa, semetxu kutuna, loratxu politak... Argia eta zurtasunari lotutako hiztegia sarri erabilten dau, eta baita be iluntasuna eta gauari buruzkoa be.

Afektibidadeak garrantzi handia dauka eta samurtasuna adierazten daben deskribapenak lirikotasuna emoten deutse testuei. Jon Kortazarrek dinoanez, ikusten eta sentitzen dan poesia, begietatik eta bihotzetik sartzen dan poesia dogu «Utarsus»ena. Koloreak, gogo-egoera, maitasun-afektibidadeak adierazten daben berbak bata bestearen ondoan aurkituko ditugu, ez ostera irudi barregarria emoteko bestean, neurriz baino.

Gauzak, lekuak edo egoerak deskribatzeko irudiak erabiltzen dituenean, irudi errezak, argiak egiten ditu, irakurleak errez ulertzeko modukoak, baina politak, deskribapen fisikoa osotzera datozenak. Trenari “buztan balztun arra” dinotso, adibidez.

Argitasuna eta mezua zuzenean adieraztea alkarri lotuta doaz. Irudiak erabiltzen ditu baina mezua argi adieraziz beti.

Bere inguruko beste olerkari batzukaz konparatu ezkerro («Lauaxeta» eta «Endaitz» esaterako) alde askotatik antza daukela aurkituko dogu: ideiak adierazteko olerkia zelan eratuten daben, estrofa mota barrikaz jokatzen dabe, hiztegi aberastasun-ugaritasuna... nahiz eta aldea egon bakoitzaren estiloan bada zerbait danak bateratuten dituen.

Idazle honeen artean ez dago talde ez euren lana literatura dalako kontzientziarik, baina bateratsu dabilz. Ikasiak dira, edo gitxienez asko irakurritakoak, eta literatura egiteko modu beretsua darabile. Irakurgai atsegin, bigun, gozoak ditugu.

Gerra osteko olerkietan antzeko bidetik jarraitzen dau, baina aberiaren aldeko dei gogotsuaren ordez sarriago aurkituko doguz eguneroko gauza txikiak eragindako sentipenak. Beti be berezkoa dauan indarra agertuz, batzutan ironiaren bidez bestetan sentimentuak gordinik azalduz eta baita bihotzak zentzuaren bidetik aldentuteko euki leiken joera fedearen haritik barriro bideratuz. Ikusi adibidez hurrengo olerki honetan zeinen argi, artez eta umoretsu agertuko dauan bere ikuspegi kritikoa.

ERLIAK ETA ZORRIAK

¡Zelako jai ederra
gaur ba da egun andia!
Zubek lan egin zenduben
beti gogor ¿ezta, aitita?
Ara ba, ¡gaur eltzen dira
zubentzako egaliak!
Alde guztietatik
dagoz ain beste ikurriñak...
¡Geure erria, benetan abertzalia!

Bai illoba, ikusten dodaz,
ori ba da atsegiña...
Baña, zuk ba dakizu
erle ta zorrien artian
beti dagon alde andia?
Erliak egiten dabe, lorakaz
geutzako ezta.
Geure odola zurrututa
biziten dira zorriak.

Ara ba, egun onetan,
¡Ai, gure Euzkadi maitia!
Euzko-Jaurlaritza'k daukoz
erle gitxi, ta beti ugari zorriak.

Kritika zorrotza alegi itxuraz jantzita, amaierako moraleja eta guzti. 1986an argitaratutako olerki honek zerikusi gitxi dauka gerra aurrean goraiatutako aberriaren irudiagaz. Garaia aldatu da eta baita gaien tratamentua be.

SORNE HITZ-LAUZKO IDAZLE

Baina poesia ezeze Sornek ipuinak eta eritxi artikulua be egin ditu. Gerra aurreko idatzien artean lau ipuin ditu: "Txoria kaiolan", Labayru Ikastegiak *Idatz & Mintz* aldizkarian aspaldian barriro argitaratu ebana, "Otsua ta txakurra" (Samaniegoren ipuinetik itzulita), "Aitita ta ilobea" eta "Belea ta usuak". Alegia modukoak dira, baina egileak alegiaren irakatsia bere pentsakera adierazteko erabiliko dau, ipuinaren esanahia bere esparrura ekarriz. Izan be, kaiolan dagoan txoria bere amak hilten dau katibu ikustea baino hiltea gurago daua-la-ta. Txori hori Euskal Herria da, hau be, katibu dagoalako. Beraz, hortik aterako geunken ondorioa da herria katibu egotea baino desgertzea ez ete dan hobeto.

Idea hori berori azaltzen dau "Ikastolan bi elez" izeneko artikuluan. Euskera egin bai, egin behar da, baina euskaldunok geuk gaitzesten badogu eta baztertu, hobeto da ez egitea txarto erabiltea baino. Esan gura dauana argiago geratu daiten konparaketa bat egin dau: nork gura dau norbere amaren erretratu zahar bat antzina-ko arropakaz jantzita dagoalako barreka dabilkozala ikustea?

Beste ipuin bat Samaniegoren "Otsoa eta txakurra" alegiaren itzulpena da. Honetan basoan bizi dan otsoa eta etxe batean lotuta bizi dan txakurra batu dira, eta alkarren bizimoduaren alde onak eta txarrak gogoratuten dabez. Otsoak basoan egunero jatekoa bilatu eta eguraldiaren gorabehera gogorak jasan behar ditu, baina libre bizi da. Txakurrak ostera, gura dana jan, aterpean lo egin eta ondo bizi da, eroso, baina kate bategaz lotuta. Gizonak be era bietakoak ei dagozala-ta hona zelan amaitzen dauan ipuinak:

Izan gaitez an otsoak, baina ez, Jaungoikoarren! ipuin honen txakurraren antzekoak.

Narrazino lineala eta argia da kasu guztietan. Euskera dotorea, eta Aranaren ereduari lotuta dagoan arren, herriko euskeraren berba, esamolde eta esakerakaz ondo osotuta dago.

ONDORIOAK

Amaitzeko esan behar da Sorne bere garaiko idazlea dala alde guztietatik: gaiak eguneroko bizitzan pil-pilean darabilzenak dira; gainerako idazleen moduan ezizen batez sinatzen ditu bere idatziak; irudiak egiteko naturan oinarrituko da batez be haren iturri emankorretik probetxu ataraz; lehenengo irudi bidez ideia bat azaltzen badau be gero ideia hori argitu egingo dau esanahia argi adierazi eta nora bideratu gura dauan agirian itxita.

Eta esan behar da Sornek ez eutsala inoiz idazteari itzi, izan be, gaur egun oraindino gitxi asko idatzi eta argitaratzen dau, *Zer* aldizkaria ikustea baino ez dago horretarako, argitaratu barik daukazan ipuinak be tartean dirala. Bere lanaren eragina mugatua izan bada be berak aurrera egin dau apurka apurka garauez garau multzoa egin arte.

Aurrerantzean mereziko leuke lan guzti hori batuta eskura euki ahal izatea. Ia laster ikusteko aukera daukagun. Eta bide batez, eskal literaturan emakume idazlerik ia ez dagoala esaten danez beti, aurrerantzean beste bat eukiko dogu orain arte baino leku ageriago koan.

BIBLIOGRAFIA:

- Jon KORTAZAR, *Euzkerea eta Yakintza aldizkarietako olerkigintza*, Labayru Ikastegia-Amorebieta Etxanoko Udala, Bilbao, 1995.
 Aita Santi ONAINDIA, "Sorne Unzueta", *Zer*, uztaila 1977, 1. zb.
 —, *Euskal Literatura* V, 87-88 or.

4. Bibliografia

SORNE UNZUETA «UTARSUS»EN LANAK

1923

1. U.T.S., "Comentando", *Aberri*, 20-1-1923.

1930

2. "Jazorikua", *Euzkerea*, 1930, I, 312. or.
3. "Ikastoletan bi elez", *Euzkerea*, 1930 azilla 15, XXIII zb., II urtea.

1931

4. "Otxua ta txakurra (Samaniego'ren ipuñatik idorokija)", *Euzkerea*, 1931 urtarrilla 15, XXV zb., III urtea.
5. "¿Cuando...?", *Bizkatarra*, 1931 mayo 30, 34 zb., 9. or.
6. "Txoriya kayolan", *Euzkerea*, 1931 bagilla 15, XXX zb., III urtea. *Idatz & Mintz*, 8. zb., 1984, 3-4 or.
7. "Umiak irakatsija", *Euzkerea*, 1931 garilla 15, XXXI zb., III urtea.
8. "¡Itxartu, Euzko-alabea!", *Euzkerea*, 1931 irailla 15, XXXIII zb., III urtea.
9. "Zaletasunak", *Euzkerea*, 1931 azilla 15, XXXV zb., III urtea.
10. "Gau argija", *Euzkerea*, 1931 lotazilla 15, XXXVI zb., III urtea.

1932

11. "Gomutazokijak", *Euzkerea*, 1932 urtarrilla 15, I zb., IV urtea.
12. "Nire errijan", *Euzkerea*, 1932 epalla 15, III zb., IV urtea.
13. "Udabarijan", *Euzkerea*, 1932 jorralla 15, IV zb., IV urtea.
14. "En el gran día", EUZKO-IDAZKALTZA-BURUBA: *Aberri Eguna: Revista nacida a la luz de un domingo de Resurrección para perpetuar "El Día de la Patria"*, Bilbao, 1932, 25. or.
15. "Atita ta ilobeá", *Euzko*, 1932 dagonilla 13, 3 zb., 5 or.
16. "Belea ta usuak", *Euzko*, 1932 dagonilla 20, 4 zb., 12 or.
17. "Gogo ituna", *Euzkerea*, 1932 urrilla 15, X zb., IV urtea.

18. "En el camino de la liberación", *Euzkadi*, 1932-11-25.

1933

19. "¡Ezpatadantzaris!...", *Jagi-jagi*, 11-2-1933, 21. zb., 2 or.
20. "Raza vasca", *Jagi-Jagi*, 4-3-1933, 23 zb., 7 or.
21. "Gabon abestijak", *Euzkerea*, 1933 jorralla 15, XVI zb., V urtea.
22. "Edurtzean", *Euzkerea*, 1933 orrilla 15, XVII zb., V urtea.
23. "Garilla'n", *Euzkerea*, 1933 garilla 15, XIX zb., V urtea.
24. "Miren deunaren Jasokundian", *Euzkerea*, 1933 azilla 15, XXIII zb., V urtea.

1952

25. "Artxanda", *Euzko Gogoa*, 1952 epaila-yorraila, 3-4 zb. III urtea, 4. or. eta *Euzko-Deya*, 1952 junio, 59 zb., Paris XVI, Suplemento del nº 348, 6 or.

1977

26. "Barriro, Unzueta", *Zer*, 1977 urrilla, 3. zb., 15. or.
27. "Gudari barriak", *Zer*, 1977 urrilla, 5. zb., 5. or.

1978

28. "Suizkilluz Erailda", *Zer*, 1978, 2. zb., 2. or.
29. "Lenengo jaunartzia", *Zer*, 1978 maiatza, 10. zb., 10. or.
30. "Margolariaren emaya", *Zer*, 1978 iraila, 13. zb., 10. or.

1979

31. "Lengusiñaren eriotzan", *Zer*, 1979 zezeilla, 18. zb., 16. or.
32. "Bitxori margolaria", *Zer*, 1979 jorrrailla, 20. zb., 3. or.
33. "Billa", *Zer*, 1979 bagilla, 22. zb., 13. or.
34. "Laztandu nau, semia...", *Zer*, 1979 iraila, 24. zb., 3. or.
35. "Agur", *Zer*, 1979 zemendia, 26. zb., 16. or.

1980

36. "Eliza itxirik", *Zer*, 1980 urtarrilla, 28. zb., 12. or.
37. "Ez ausi irudia!", *Zer*, 1980 zezeilla, 29. zb., 16. or.
38. "Keperin eta Karmele", *Zer*, 1980 epailla, 30. zb., 13. or.

39. "Borobil antzera", *Zer*, 1980 epailla, 30. zb., 16. or.
 40. "Emoiguzu gaur: Deuntasun era barria", *Zer*, 1980 bagilla, 33. zb., 7. or.
 41. "Itziar'era bidean", *Zer*, 1980 azilla, 37. zb., 7. or.
 42. "Gomutagarriak", *Zer*, 1980 abendua, 38. zb., 5. or.

1981

43. "Jazoriko bat", *Zer*, 1981 epailla, 41. zb., 14. or.

1982

44. "Illozte", *Zer*, 1982 epailla, 52. zb., 11. or.

1983

45. "Auts biurtuko az...", *Zer*, 1983 epailla, 63. zb., 13. or.
 46. "Euzko lorea", *Zer*, 1983 urrilla, 69. zb., 14. or.

1984

47. "Ikertaldia", *Zer*, 1984 jorrailla, 74. zb., 12. or.

1985

48. "Izenik ete dauko", *Zer*, 1985 epailla, 84. zb., 13. or.
 49. "Etsaiak?", *Zer*, 1985 jorrailla, 85. zb., 14. or.
 50. "Biotz-jaubea", *Zer*, 1985 uztailla-dagonilla, 88. zb., 2. or.
 51. "Euzko-enda", *Zer*, 1985 urrilla, 90. zb., 7. or.

1986

52. "Erliak eta zorriak", *Zer*, 1986 uztailla (garagarrilla), 99. zb., 7. or.
 53. "Iragarria?", *Zer*, 1986 urrilla, 101. zb., 13. or.

1987

54. "Eginkariak", *Zer*, 1987 bagilla, 109. zb., 15. or.
 55. "Neuretzako bikañena", *Zer*, 1987 urrilla, 112. zb., 7. or.
 56. "Gorago beti, zeure gogo ori...", *Zer*, 1987 abendua, 114. zb., 15. or.

1988

57. "Aldape", *Zer*, 1988 bagilla ekainilla, 120. zb., 6. or.

1990

58. "Jakin-eza", *Zer*, 1990 iraila, 144. zb., 14. or.

ARGITARATU BAKOAK

59. "Euzko lurra" (Paris, 1945-53 bitartean).

60. "Zoriontsua, zu!" (1963-4 ingurukoa).

61. "Barri pozgarriya".

62. "Bermeo".

63. *Me voy contigo* (nobela, erderaz).

SORNE UNZUETA «UTARSUS»EN LANAK GENEROKA

OLERKIAK

1. "Umiak irakatsija", *Euzkerea*, 1931 garilla 15, XXXI zb., III urtea.
2. "Itxartu, Euzko-alabea!", *Euzkerea*, 1931 iraila 15, XXXIII zb., III urtea.
3. "Zaletasunak", *Euzkerea*, 1931 azilla 15, XXXV zb., III urtea.
4. "Gau argija", *Euzkerea*, 1931 lotazilla 15, XXXVI zb., III urtea.
5. "Gomutazokijak", *Euzkerea*, 1932 urtarrilla 15, I zb., IV urtea.
6. "Nire errijan", *Euzkerea*, 1932 epalla 15, III zb., IV urtea.
7. "Udabarrijan", *Euzkerea*, 1932 jorralla 15, IV zb., IV urtea.
8. "Gogo ituna", *Euzkerea*, 1932 urrilla 15, X zb., IV urtea.
9. "Gabon abestijak", *Euzkerea*, 1933 jorralla 15, XVI zb., V urtea.
10. "Edurtzean", *Euzkerea*, 1933 orrilla 15, XVII zb., V urtea.
11. "Garilla'n", *Euzkerea*, 1933 garilla 15, XIX zb., V urtea.
12. "Miren deunaren Jasokundian", *Euzkerea*, 1933 azilla 15, XXIII zb., V urtea.
13. "Artxanda", *Euzko Gogoia*, 1952 epaila-yorrraila, 3-4 zb, III urtea, 4. or. eta *Euzko-Deya*, 1952 junio, 59 zb., Paris XVI, Suplemento del nº 348, 6 or.

14. "Barriro, Unzueta", *Zer*, 1977 urrilla, 3. zb., 15. or.
15. "Gudari barriak", *Zer*, 1977 urrilla, 5. zb., 5. or.
16. "Suizkilluz Erailda", *Zer*, 1978, 2. zb., 2. or.
17. "Lenengo jaunartzia", *Zer*, 1978 maiatza, 10. zb., 10. or.
18. "Margolariaren emaya", *Zer*, 1978 iraila, 13. zb., 10. or.
19. "Lengusñaren eriotzan", *Zer*, 1979 zezeilla, 18. zb., 16. or.
20. "Bitxori margolaria", *Zer*, 1979 jorrailla, 20. zb., 3. or.
21. "Billa", *Zer*, 1979 bagilla, 22. zb., 13. or.
22. "Laztandu nau, semia...", *Zer*, 1979 iraila, 24. zb., 3. or.
23. "Agur", *Zer*, 1979 zemendia, 26. zb., 16. or.
24. "Eliza itxirik", *Zer*, 1980 urtarrilla, 28. zb., 12. or.
25. "Ez ausi irudia!", *Zer*, 1980 zezeilla, 29. zb., 16. or.
26. "Borobil antzera", *Zer*, 1980 epailla, 30. zb., 16. or.
27. "Emoiguzu gaur: Deuntasun era barria", *Zer*, 1980 bagilla, 33. zb., 7. or.
28. "Itziar'era bidean", *Zer*, 1980 azilla, 37. zb., 7. or.
29. "Gomutagarriak", *Zer*, 1980 abendua, 38. zb., 5. or.
30. "Jazoriko bat", *Zer*, 1981 epailla, 41. zb., 14. or.
31. "Illozte", *Zer*, 1982 epailla, 52. zb., 11. or.
32. "Auts biurtuko az...", *Zer*, 1983 epailla, 63. zb., 13. or.
33. "Euzko lorea", *Zer*, 1983 urrilla, 69. zb., 14. or.
34. "Ikertaldia", *Zer*, 1984 jorrailla, 74. zb., 12. or.
35. "Izenik ete dauko", *Zer*, 1985 epailla, 84. zb., 13. or.
36. "Etsaiak?", *Zer*, 1985 jorrailla, 85. zb., 14. or.
37. "Biotz-jaubea", *Zer*, 1985 uztailla-dagonilla, 88. zb., 2. or.
38. "Euzko-enda", *Zer*, 1985 urrilla, 90. zb., 7. or.
39. "Erliak eta zorriak", *Zer*, 1986 uztailla (garagarrilla), 99. zb., 7. or.
40. "Iragarria?", *Zer*, 1986 urrilla, 101. zb., 13. or.
41. "Eginkariak", *Zer*, 1987 bagilla, 109. zb., 15. or.
42. "Neuretzako bikañena", *Zer*, 1987 urrilla, 112. zb., 7. or.
43. "Gorago beti, zeure gogo ori...", *Zer*, 1987 abendua, 114. zb., 15. or.
44. "Aldape", *Zer*, 1988 bagilla ekainilla, 120. zb., 6. or.
45. "Jakín-eza", *Zer*, 1990 iraila, 144. zb., 14. or.
46. "Euzko lurra" (Paris, 1945-53 bitartean) (argitaratu barik?).
47. "Zoriontsua, zu!" (argitaratu barik? 1963-4 ingurukoa).

NARRAZINOAK

1. "Txoriya kayolan", *Euzkerea*, 1931 bagilla 15, XXX zb., III urtea. *Idatz & Mintz*, 8. zb., 1984, 3-4 or.
2. "Otxua ta txakurra (Samaniego'ren ipuñatik idorokija)", *Euzkerea*, 1931 urtarrilla 15, XXV zb., III urtea.
3. "Atita ta ilobea", *Euzko*, 1932 dagonilla 13, 3 zb., 5 or.
4. "Belea ta usuak", *Euzko*, 1932 dagonilla 20, 4 zb., 12 or.
5. "Keperin eta Karmele", *Zer*, 1980 epailla, 30. zb., 13. or.
6. "Barri pozgarriya" (argitaratu barik).
7. "Bermeo" (argitaratu barik).

ARTIKULUAK

1. U.T.S., "Comentando", *Aberri*, 20-1-1923.
2. "Jazorikua", *Euzkerea*, 1930, I, 312. or.
3. "Ikastoletan bi elez", *Euzkerea*, 1930 azilla 15, XXIII zb., II urtea.
4. "¿Cuando...?", *Bizkattarra*, 1931 mayo 30, 34 zb., 9. or.
5. "En el gran día", EUZKO-IDAZKALTZA-BURUBA: *Aberri Eguna: Revista nacida a la luz de un domingo de Resurrección para perpetuar "El Día de la Patria"*, Bilbao, 1932, 25. or.
6. "En el camino de la liberación", *Euzkadi*, 25-11-1932.
7. "¡Ezpatadantzaris!...", *Jagi-jagi*, 11-2-1933, 21. zb., 2 or.
8. "Raza vasca", *Jagi-Jagi*, 4-3-1933, 23 zb., 7 or.

AIPAMENAK

1. "Getxo. La labor de Emakume Abertzale-Batza de Ondarreta", *Euzkadi*, 1931-7-30.
2. "Conferencia de la señora Untzueta de Errasti", *Euzkadi*, 4-12-1931.
3. "En el XXIX aniversario del Maestro", *Euzkadi*, 24-11-1932.
4. Manuel FERNANDEZ-CASTAÑEDA, "Para el patriota «Utarsus»", *Jagi-Jagi*, 11-3-1933, 24 zb. 7 or.
5. "Una hermosa conferencia de doña Sorne de Untzueta", *Euzkadi*, 24-3-1933, 6. or.
6. JONMENDI, "Doña Sorne de Unzueta, en Deusto", *Euzkadi*, 6-6-1934.
7. "Aberri-Eguna", *Euzkadi*, 2-6-1936.

8. "El V Aberri-Eguna ha revestido gran importancia en toda Vizcaya", *La voz de Navarra*, 2-6-1936.

NOBELA

Me voy contigo (argitaratu barik).



Ezkontza egunean, Abandoko San Bizenti eleizan (1925).

5. Idazlanak

LAN BILDUMA OSOA

Jarraian Sorne Unzueta "Utarsus" en lan bilduma osoa dakargu gogora. Argitara emon ebazan obra guztiak dagoz hemen, eta agertu barik itxi ebazanetatik gehienak be agertzeko ahalegina egin dogu.

Bere bibliografia zabaleko idazlanok hiru atalotan banandu doguz: olerkiak, narrazioak eta artikuluak. Tamalez ezin izan dogu hemen sartu argitaratu barik daukan *Me voy contigo* izeneko erdal elaberri luzea. Izango dau lan honek agertzeko toki hoberik hemendik aurrera!

Azken aldean jarri doguz bere aldiko aldizkarietan eta egunkarietan aurkitu doguzan Sorne Unzuetaren aipamenak, idazlearen eta, batez be, Emakume Abertzale-Batzako kide honen gizartearen aurreko agermena gaurko irakurleentzat interesgarri izango dalakoan.

EDIZINO HONETAKO ERIZPIDEAK

Idazkera gaurkotu egin dogu, idatzi ziran sasoiko idazkera interesgarria dan arren, gaurko irakurleari eskura errezago jartzeko. Idazlea bera bizi danez, ganera, ez dau berak arazorik ipini sasoian sasoikoa behar dala eta. Dana dala, norbaitek interesa baleuko bibliografia aipamenean aurkituko dau non begiratu jatorrizko idatzia.

Idazkera gaurkotzea hurrengo aldaketak egin dira:

— Gaurko grafia arautua jarri da: 'r' = 'rr' eta 'l' = 'll'.

— Hiztegian, gaur zabalen dabilzan formak aukeratu dira: 'astu' = 'ahastu', 'espan' = 'ezpan'... 'Zubek', 'bigurtu' eta halakoak, ostera, dagozan moduan itxi doguz.

— Bokalismoan, aldatu egin dira hitzen amaierak errimagaitik aldatu ezin danetan izan ezik: 'Jaungoikua' = 'Jaungoikoa', 'umia' = 'umea', 'guazan' = 'goazan'...

— Deklinabide atzizkiak laburtuta idatzita dagozanean osorik idatzi doguz, bertsoaren neurrian eraginik ez daukanean. Beste batzutan ezin izan da eta dagozan dagozanean itxi doguz: 'Andra Marin' = 'Andra Mariren', 'ezoan' = 'ezoaren'...

— Gauza bera gertatzen da beste laburdura eta deklinabide atzizki batzukaz. Errima eta silaba kopuruan eraginik ez dauken

neurrian gaurko idazkerara ekarri doguz, baina beste batzutan agertu diran moduan itxi doguz: *'dauzala'* = 'dagozala', *'dauñ'* = 'dauan', *'abarrarik abarra'* = 'abarrik abar', *'udean'* = 'udan', *'azalan'* = 'azalean'...

- 'Orain' edo antzeko berbea laburtuta dago beti, eta holan itxi dogu, gaurko idazkera holan ez izan arren: *'ontxe'* (= 'oraintxe'), *'ondino'* (= 'oraindino')...

OLERKIAK



1. UMEAK IRAKATSIA

Gaba datorkigu oinkada luzeaz
baso erdian semetxu kutuna
bitxabaleraino jasteko bidea
zugatzen artean egongo da iluna.

Loratu politikak itxi ene semea,
nik eroango zaitut lepoan hartuta,
hiru urte be ez dozuz, Jon Ander geurea,
ta ezin ni jarraitu zeure hanka bigunaz.

Neure besoetan hartzen dot umea,
urirantza bizkor abiatzen noa.
Laster hasiko da mendi bitartek
eta ibai-aldea, estaltzen lainoa.

Aretxak, leizarrak, gaztainak, pagoak,
ilunduten dabe gehiago estarteak,
Odoldi ta bedar orlegi ta ezoan
azpitik, dantzugu uren zaratea.

Neure semetxuak begi zabal-zabal
ezin ondo ikusi hango iluntasunan.
Baina nasai dago, ez dauko bildurrik
zer jazo leiteke amaren besoan?

Hango aldetik barriz, inoiz ez da igaro
ta ez deust itanduten norantza goazan,
zelan dago hain ilun, joateko arinago
gabiltzala belu, etxea non dagoan.

Neure sorbaldean burua jarrita,
umetxu maitea hartu egin dau loak.
Gutziz arte dago. Neure belarrira
epel dator bere arnasa biguna.

Bitxabaleraino heldu gara ta ontxe
joten dauz zortzirak txadon-gabeukatzak
Atsedenduteko jarten naz bidean.
Ikatzaren antzez basoa da baltza!

Umea ipinten dot altzoan hobeto,
ezpan gorritxuetan dau barre gozoa.
Eizu lo polita, zu zagoz ederto,
inok ez deutsu egingo ezer neure altzoan!

* * *

Gu gara semeak eta Jaungoikua
da geure aita ona, baita aloroduna.
Zeren bildur gara, goiko Jaun ahaltsua
baita geure aita, ta geure laguna?

Esku indartsu horretan, Jauna, neuk gogoa
izten dot betiko, orain bai benetan,
neuk umea altzoan daukadan moduan.
Nora naroazun ez eistazu esan!

Heriotz gerizpez, baltz estalduriko
haran itzalera eroaten banozu,
zeure besoetan ez naz bildurtuko.
Neure itxaropena Zeugan dago osoro.

Zu zara geutzako aita baino hobea!
Amarik onena ez da hain biguna!
Gogoen maitale, geure Jaun maitea,
Zu errukiorra, Zu aloroduna!

Umearen antzez donokiratzeko,
Zeuk esan zenduan, izan behar garala.
Ez jat, ez ahaztuko, neure ume maiteak
irakatsi deustan gaurko irakaskaia!

(Jorrailean)

2. ITXARTU, EUSKO ALABEA!

Ortzia garbi ta oztin
dakusku, sorkaldean
argi gorri biguntxua
zabalduten hasi da.
Itxartu, eusko alabea;
jagi, ba, emakumea!

Euskadi, geure aberria
da arrotzaren jopua.
Oinar-tean, ilunpetan,
danok lo egon gara ta,
bere negar, zotin, oihu
mingotsak, entzun baga.

Sabin, geure neba onak,
lehenengoa, entzun eban
Euskadi urgazi eske
egiten euskun deadarra:
deadarra entzun eta zutik
bera aldezten, jagi zan.

Sabin jarraitzen, edonon,
hasi dira eusko herrian,
aberriaren kateak
astinduten euskoak.
Ugartuta dagoz eta
behin apurtuko dira.

Eta zu ondino lo zagoz,
ene ahizta kutuna?
Ez zaitu, ba, ondino itxartu
lanaren zarateak?
Itxartu eusko alabea,
jagi, ba, emakumea!

Umea, geixorik badau
osatzeko izaten da
osagarririk onena,
amaren maitasuna;
baita emakumeen bihotzak,
gaizkatzeko aberria.

Geure goiko Jaun onari
egin otoi, euskeraz,
eskatu, Euskadirentzako
betiko askatasuna,
geure Aita bigun onak
entzungo deuntsue-ta.

Zeure odolaz hazitako
seme txiki politak,
sehaskan, lo samurkiro,
egiten dauan bitartean,
abestu olerki aberkoiak
eusko abesti gozoak.

Semearen bihotzean
txikia dan artean
erein Euskadirentzako
askatasunen nahia,
batera Jaungoikoaren
maitetasun deunagaz.

Umea egingo da gizona,
hazia, landarea,
ta izango da, bai, gogorra
atzeratzen ez dana
heriotza ikusi arren,
Euskadi aldez eginda.

Zuk josiriko ikurriña
zuri-gorri-orlegia,
Josu ta Deun Anderren

IDAZLAN GUZTIAK

gurutzak daukana,
egun baten, mendi goian,
egongo da zibuka.

Zuk hazitako semeak,
zuk egindako ikurriñak
lortu-iragarriko dabe
Euskadi-askatasuna.
Itxartu, eusko alabea;
jagi, ba, emakumea!

3. ZALETASUNAK

Gozo-atsegingarria jezarrita
udean gerizpean egotea!
Itzal iluna
egiten dabe zugatzak ibaiandoan.

Arrasti guztietan egoten da
ibai-arrantzalea, bere ertzan;
kainuberea
dauko bere eskuetan luze-luzea.

Haizeak bultzeginda, ibaien urak
uhin txikitxuak daukoz, zidarrezkoak.
Barruan, baina,
ezkata dizditzidun arrain bikaina.

Gizonak, adi, luzaro egonda
ikusten dau txorkua beherantza joanda.
Orduan poza!
Arrain bizkortxuren bat amu zorrotzan!

Mendirantza, ehiztaria, goiz-goizetik
txakur bategaz doa, arin-arin.
Haran-arroak
estaltzen dauz ondino, guztiz, lainoak.

Basoko landareak, inontzak
bete dauz, tanto garden txikitxuaz.
Oin eguzkiak
bigurtzen dauz tantoak, ikatz-harriak.

Arin doa gizona, ta txakurrak
aztertzen dauz sasi eta oteak.
Dagon lainoaz,
busti-busti egin dauz euren buruak.

Sasian zaratea. Hegaz txoria:
su-izkiluko tiroaz jausten da hilda.

Txori gaixoa!
Ehiztariak erailda dakar txakurrak!

Neuretzako, benetan, atseginago
da, igoteko mendiko gailurreraino.

Han jezarrita
begiratu geldirik, neu-Aberria.

Belaunetan ipini ukondoak,
esku bietan, barriz, arpegia,
luzaro nago,
ikus barik begituten han, urrunago...

Neure buru barruan asmo eder bat
Jaunak bialduriko, sartzen jat han

Bera barruan,
iluntzean, etxera poz-pezik noa.

Asmo ederra argitzen deust bihotzak;
erabagi sendoa dot gogoan!

Aberri maite,
neure bizitza hartuta, gaizkatu zaitez!

4. GAU ARGIA (Abestia)

Lotazileko gaba,
Neguko bihotzan.
Mendietan edurra;
behean, lehia ta hotza.
Artaldeak batuta
aterpe zahar baten,
artzainak erdi-lotan
su ondoan berotzen.

Bat batez eresia,
ta abesti gozoak.
Ludian ez dira entzun
haretarikoak.
Artzainak arin doaz
urtetan atera.
Dana argia dakuse
eguna bezela.

Donokitar gotzonak
hego zuridunak,
abesten samurkiro
gora, behera, hegazka.
“Aintza Jaungoikoari
donoki goietan,
baita gentzea behean
gizon apalentzat”.

“Jainkoaren semea
jaio da Belenen.
Ikertzera lehen bai lehen
danok joan zaiteze”.
“Ortzian dakusuen
izar argiena,
zuen aurrean doa.
Bera jarraitu ba”.

Izarra korta baten
ganean lotu da.
Artzainak barruraino
danak sartu dira.
Bertan askatxu baten
lastoen ganean
ume txikia eginik
dago Jaungoikoa.

Artzainak gurtzen dabe
belaunbikaturik
Seinak barre egiten deutse
besoak zabalik.
Amak, Semea hartuta
artzain zahar bateri,
samurki egiten deutso
besoetan itxi.

Pozaren pozaz negar
egin dau agureak
oin txiki zuri baten
honei mosu emonda.
Gotzonak bitartean
atetik begira,
horixe, eurek pozarren
gingo leukela.

Baina zorion hori
ez da gotzontzat;
gizontzako egin da
gizona Jainkoa.
Maite-maite zaitugu
Sein jaioparria!
Zu, geurea ba zara
gu beti zeureak!

5. GOMUTAZOKIAK

Hemen dago bidea; mendi aldapean
ibai ondoan dagon bide zabala.
Antzinan lez, orain be, honaino heltzen da
urrunetik datorrun itxas-usaina.

Oi, zelan usain honek, neure gogoan
lo egoan gomuta berbiztu deustan.
Bihotzean, barruan, izarren argiz
begi urdinak, barriro izetu jataz.

“Zugatz ostean zagoz, ene maitea?”
ditauntsot une baten. Ez, begi urdinak
dagoz nigandik urrun, izarren antzez,
neuretzako betiko lortu-ezinak.

Begietan malkoak uxatu dodaz
niregandik amets zoragarriak.
Urteak joan dira-ta, larrosa-ametsak
bakarrik dira onak, udabarrian.

* * *

Itxas-gorantza doa, ibaia bete
ortzeko argiaz dago oztin-urdina.
Sarkalderantz gorria dago zerua;
hango aldetik ibaia dago gorria.

* * *

Ibaia dago geldi. Bere barruan
basea dauko, goien ur gardena,
ta ganean, azalan, antzezkura lez,
dago ortzeko margoaz, bai, margoztuta.

Ibaia lez gentzean, neure gogoa
ipini gura neuke: barrenean,
giza-maitetasunak, ahaztu ezinak
izan arren, benetan basazkoak.

Eurak baino gorago, Aberrientzat
maitetasuna, hauxe da, ur gardena.
Baina gorago ondino, dan bikainena
Jaungoikoarentzako maitetasuna.

6. NIRE HERRIAN

Bagagoz herrian.
Hortxe begi aurrean
baserria zaintzen daun mendi-zorrotza.
Lotu da bultzia.
Bidera jatsita,
nasaituten jat bai, benetan bihotza.

Arrotzez beterik egon da bultzia.
Hitz lotsabakoak, abesti zantarrak,
nahi ta nahi ez, entzun behar izan dodaz
Jainkoaren aurka biraoaz nahastauta.

Bere mosu leunaz gabeko haizeak
hotzituden deust bekoki beroa.
Bultzian, deadarrak, zarata ta kea.
Hemen, atsedena, gentzea ta loa.

“Tut” luzea eginda buztan balzdun harra
badoa barriro. Begi biribilak
zabalak daroaz. Bultzia joanda,
baserrira, ostera, etorri da ixila.

Zer dauko gau honetan, neure herriak?
Ikusten dot inoiz baino argiagoa.
Goi-aldean iletargia beteta
estaltzen dau, miesa miakaz, lainoak.

Lehenago euriak, busti dauz zidor-bideak,
goiko argiak orain dagoz dizditsuak.
Laino artean, gora eginda abar igerrak,
neure eritxiz zugatz zaharrak hegaz doaz.

Deritzat garbiagoa,
deritzat zuriagoa
gau honetan, hilda lez dagon herria.

Bere gogoak, gorantza
igoteko dauko antza
damaturik garbai-negarrez bustia.

7. UDABARRIAN

Negu hotza igesi doa;
basoetan lats-ertzetan
hazten dira loratxuak.
Dana pozkiro benetan
udabarri alaitsuak.

Ortze oztin argiagoa;
landak, barriz, orlegiak.
Lehenengoz jaunartzen dauan
neska antzean, madariak,
loretan, zuri-zuriak
basetxe zaharren ondoan.

Aretxak eta txopoak
jantzi dauz udabarriak
orri txiki biguntxuaz;
eurekaz, laster, txoriak
ostenduko dau kabia
abesten txio gozuak.

Ortze, intxaurra ta gaztaina
begiratu, ze itun dagoz.
Negua igesi da, baina,
ez dira agertzen pozago.
Ez dabe, beraz, gurago
igazko itxura liraina?

Zugatz horreek dagoz hilik.
Eguzkiaren mosuak
ez dauz ipinten bizirik.
Aizkoraz jaurti ta egurrak
egin. Datorren neguan
ez da egongo hotzen bildurrik.

Ez holakorik, gaztea,
erantzun deutso bere aitak;
zugatz horreek bizi dira.
Orriz beterik orrilan
ikusiko dozuz, baita,
igali ederraz urrilan.

Geure Aberritik negua
igesi da. Udabarriak,
etorrita, zoruntsuak
egin gaitu. Eusko ikurriña
haizeaz zabalik zibuka
hara, zelan dabilen.

Baina beste anai horreek
abertzaleak ez dira.
Ez da indartzen, ba, daroen
eusko odola bihotzean.
Maite ez badabe aberria
gorrotau, guk ba, bihotzez?

Ez guk holakorik dinot.
Izan ezkeru euskotarrak
itxartuko dabez inoiz
aberriaren deadarrak,
eta bere alde beharra
zintzo egingo dabe ondino.

Anaiak dira; ez arrotzak.
Geure bihotz maitasunaz
hartu daiguzan gogo hotzak.
Lortuteko askatasuna,
ta "aberriaren" zoriona,
behar dira horreen bihotzak.

8. GOGO ITUNA

Oste artean
 nagonean,
 ingurutzen jat tamala,
 mitxeletak
 argiari
 inguratzen jaken antzaz.
 Neu bakarrik
 nagonean,
 bihotzean jarten jataz.
 Kendu ezinak
 gomutako
 mitxeleta baltzak.

Neu-gogoan,
 galdu jatan
 maitearen irudiak.
 Urratu bai!
 Oi! sakondu,
 bihotz barruko zauria.
 Halan ta be,
 nok sinestu?
 Gomuta itunen tamala
 da, neuretzat
 gozo, maite,
 atsegin garratz-bakana.

Boaz horreek
 bizkor arin
 ludi honetako alai bila.
 Eurentzako
 izan daitela
 beheko guzur-atsegina.
 Neu bakarrik,
 neure gelan,

IDAZLAN GUZTIAK

gurago dot egotea,
neure gelan,
barriztuten
neure gomuta saminak.

9. GABON ABESTIAK

Neskutzaren altzoan
horra Josu-Umea,
geure Jaungoikoa ta
Donokiko argia.

Lora usaintsu baten
igali gozoa
aterpe zahar txikian
Amaren altzoan.

Eder garbia, Ama,
Garbi ederra, Umea;
deunen artean deuna
Jaungoiko Semea.

Umea hotzez dardaraz
aterpe zaharrean,
Amak, bai maitekiro,
estutu bihotzean.

Joseba Deuna hantxe
dago euren aurrean,
Ama-Semeakandik
kendu ezin begiak.

Gaur, gau zorintsua!
Gau honen argia!
Donokitik jatsi da
geure zoriona!

Etorri dira artzainak
Umea gurtuten
ahal dabenik onena
opaltzen bihotzez.

Josuren irribarrez
zoriondu bihotzak,
Urtziren goi-argiaz
argitu begiak.

Nik bere dakartzut, ba,
Goiko Jaun-Umea,
bihotzean daukoda
maiterik maiteena.

Hona hemen neure Euskadi,
neure aberri zaharra;
Zeuretzako, Jaun ona,
Zeutzat, Josu-Umea.

Begiratzen badozu,
Josutxu maitea,
joango da iluntasuna
izango da argia.

Hartu zeure eskuetan!
Zeure ukututxuaz
birrinduko deuskuzuz
aberi-kateak.

Aberria askatuta
poz-argi-alaia,
Zeuretzako bakarrik
betiko izango da.

(1932ko lotazilean)

10. EDURTZEAN

Edurrak estaldu dauz zidor-bideak
bere izar barri-garbi kutsageaz.
Mendiak dagoz zuri, zuri larreak,
zuri-zuriak landa zabal leunak.

Bitxabal alboetan dagoz zugatzak
edurragaz jantzita loratxuak,
eta euren bitartean bitxabal luze-
-luzea, bai zuririk oinatzeak.

Bakarrik dagoz ilun ortze zabala,
hodei baltzaz beterik, eta erreka.
Beste batzutan argi, alai, egozan
gaur edurren aldi, ilunduak.

Mendi baten aldatzan ardiak dagoz.
Gaur ez dira zuriak, dira harriak,
artulea bustita epel-motelak
edur aldi diran zantar-lohiak.

Bitxabal ertzan bere dagoz harriak
kareaz zurituta, gau ilunan
bidea nondik doan, jakin dagian
gurdibilaz, igaro behar daunak.

Beste batzutan zu, ta gaur ilunak
agertzen dira harriok goiz honetan.
Ilun dago erreka, ilun ortzia,
ilun harri zuriak eta ardiak.

Zerutik jatsiriko edur barria
zeu bakarrik zuria, zeu garbia!
Zeuren aldia ludiko gauza guztiak
kutsatuta dakuskuz, zikinduta.

Jauna, zeure deuntasun amaige aldi
gure egipen onenak zelakoak?
Odol iguingarriaz lohituriko oihal
zantar-lohi-zikinaren antzekoak.

Neure eginak, Jaun horrek, ez begiratu;
onenak, txarrak dira zeure aurrean.
Zeure errukitasuna neurribakoak
eroan nagiala, arren, Donokira.

11. GARILAN

Horra hor garia, hasi da horituten.
Solo zabalean haize epel launak,
itxasoko uhiak ibilten diran lez,
buruak darabiz harantz eta honantz.

* * *

Zugatzak, adarrak orlegiz jantzirik,
igali gorriak bere ugariak;
mendi aldapeko bedarren ganean
sagar azpian gerize leuna.

* * *

Erreka munitan altzak hasten dira.
Batetik bestera ur-azalean,
hegoak zabalik, inon lotu gabe,
biraka, eguzkitan, orratz urdinak.

* * *

Igali helduaren usainez beterik
haizea hegaz dabil sagasti-zehar,
ta neu loguratzen, bazkaloste honetan
erlea burrunka, neure inguruan.

* * *

Egun luzeenak jatortuz, Euskadi.
Udan inoiz baino ederragoa
aberri maitea, ikusten zaitudaz
baina, hau tamala, oin be jopua!

12. MIREN DEUNAREN JASOKUNDEAN

Aldatz handia ikusten dagoz Belduak
harriturik hilobi inguruan:
hobi-harria kendurik bere barrua
lora ederraz beterik ikusten da.

Neskutzaren gorpua ez dago hantxe.
Goigotzon-hegoetan Donokira
jaso dau bere Ama, Alguztidunak
izan daiten Donoki-Bakalduna.

Urtzi Aita-Semeak burestunduta
Donokiko Bakaldun Neskutz ona!
Euskadi aberri maite-gaixo honegana
bigurtu begi horreek errukiaz.

Aberria lotuten daben estuntzak
zeuk birrinduta jausi daitezala,
ta Euskadi askatuta, Jainkoarena
bakarrik, beti izango da.

13. ARTXANDA

—Ama, ez dot gaur ikusten
geure ikurriña
goiz guztitan bezela
mendi ganean.
Zer jazo ete da?

—Ene seme hegazkinak
atzo izan dira hainbeste
bai, hain sarritan!

—Bost bidarrez amatxu
galduta ginan
Artxandan. Eurak jabe
ta gu menpean.
Eguzkiaz batera,
jagiten nintzan
mendi hori ikusteko.
Egun barriak
ekarran beti poza.
Geure ikurriña
Artxanda-ganez beti
hegaz... jaubea!

—Ezin betiko eutsin...
Galdu, geureak...
gehienak, zaurituta
besteak hilda...
Atzerritarrak doguz
orain jaubeak.

Geldirik eta ixilik
egon etxean.

—Ezin, ezin, amatxu,
ez da hori egia!
Bizirik euskotarrak
horren menpean?

Entzuten dot, bai, entzun
abesten gudariak
geroago ta urrago
goraltzen aberria.

—Etsaiak harrapauta
geure gazteak,
gaixoak!, daroela
tarrantaz hildegira.
Laster horma ondoan
ene semea,
suzkilukaz erailda
jausiko dira...

—Abestu, aintzaldu Euskadi
anai zintzoak!
Ama itxi naizu, urteten.
Eurekaz noa.

14. BARRIRO, UNZUETA

I

Arratsalde

Mendi arteko gentza, bitxabal luzean,
arratsalde honetan, belbilak hausia.
«Zer jazoten da, ama, hainbeste belbila
astegun izanda?» ditantso mutilak.
Margo guztitako hamaika ba dira,
baina bat da baltza, euren bitartean.
«Beitu, beitu ama, beitu bere atzean
lora zuri-gorritz, ze koroï handia!»
Beharrak lagata, basetxe aurrean
hainbeste lagunak, badagoz begira.

* * *

Adarrak igitzen mendi pinudiak
agurtuten dabe uzaban semea.
Ba daroe, bai ba, baserri hildegira
lurperatuteko, bertoko gaztea.

* * *

Estalgabetua itxi dabe kutxa.
Bertara heltzen dira herriko lagunak;
bihotz bigundurik, legortzen malkoak,
itun egiten dautse azkeneko agurra.

* * *

“Ai enetxue!” da amaren oihua;
bigunkiro urrundu senideen besoak.
Gatxa sinestu hilotzik dagola.
Esango leiteke hartu daula loak.

* * *

Gero ta handiago arratsen iluna...
 Hildegitik urten eta danak doaz.
 Han bakar-bakarrik lotu da gorpua.
 Ixil, ilunetan, beragan hartua,
 besarkatzen dau estu, betiko Ama Lurra.

II

Berbiztu

Itxasoak iruntzi dau eguzkia
 ilunak dana betetzen dau gabean
 txoriak zugatzetan ixildu dira.
 Geldi-geldirik dagoz euren habian
 ez da ezer entzuten dana dago hilda;
 dana ilunetan dago heriotz gerizpean.
 Itxaropena ez galdu, laster goizean
 argituko da barriz zeru guztia.
 Baita txio-txioka, barriz txoriak
 agurtuko dau alai egun sentia.

* * *

Gau iluna goiz argi, Jaungoiko Ahaltsoak
 egunoro bigurtzen dau bere ahalmenaz.
 Zuben bihotzetatik uxatu itunak.
 Beragan izan daigun itxaropena.

* * *

Lurperatuta, hobian, dagon gorpua,
 berbiztuta egun baten agertuko da.
 Goiko Legea beti zuzen betetu,
 alkartuta izan daigun zoriona.*

* Bertso hau argitaratu zanean hurrengo ohar hau eukan:

“Zeren lehenengo zenbakian Aita Santik aspaldion ixilik daukagun idazle on bat agertu euskun: Unzuetatar Sorne.

Idazlearen ixiltasun honek min emoten eutsan, euskerea hain maite dauan eta hain-beste lan gure euskerearen alde egin dauan aita Santiri.

Horregaitik, bihotzez eskatzen eutson idazleari, barriro idazten hasi daitela.

Berak margolaritzan dihardu aspaldion. Andereño erti-zalea benetan! Baina entzun dau erregua eta Esturotar Jonen omenez, Mendatan 77ko dagonillaren 25ean egindako bertsoak bialdu dauskuz: Barru-min edo lirika-bertsoak, «elegia» tankerakoak.

Aurrerantzean be bialduko al ditu holako bertso irakurgarriak. Pozik argitaratuko doguz!”.

15. GUDARI BARRIAK

Atzo ikusi zaitut Aralar bidean
abenda zaharraren aldaska barria,
lerdena, indartsua, begikor, gaztea,
ikurriña eroaten sorbalda ganean.

Guda ankerrean, gazte asko jausi ziran
eta odol beroa, ongarri mendian.
Negua igarota, oin udabarriak
loraz estaltzen dau geure Euskalerria.

Mikel Deun ondoan, lehengo gudariak,
gizon urtetsuak, bertan batu dira.
Honexek bakarrik? Oi, zenbat hil ziran!
Esan dot tamalez, baina neure atzean
zuk esan deustazu: "Hona hemen barriak!".

16. SUIZKILUZ ERAILDA

Bada egunsentia...
Izkilu dunbadak hildegin aldean.
“Zer izan ete da?” dinot neure artean.
Gehiago ez da entzuten ezer, dana ixila.

Baina zoritxarrez, eguerdi aurrean,
dinoste lagunak: barriz gaur goizean,
berton erail dabe beste gudari bat.
Eskuak lotuta kordelaz, atzean
Euskadi goraltzen, hil da gudaria.

Ezina, burutik aldendu irudia.
Azkenez iluntzez, ba noa hildegira.
Barru-ormak, itzalaz, astiro begira...
Badakust tiroaz zulatuta harriak.
Zulo batzuk goian, buruan aldean,
besteak, beherago. Honek bihotzean...

Bihotza estuturik, malkoak begian
belaunez jausten naz lur honen ganean.
ametsetan dakust klabelin guria
ostotxu makurrak, zutina hausia,
burua beherantza ta beren azpian
odolaz egindako potxingo gorria.

Alde baten gaba ta ekaitza igesika,
klabelin geizpe, bakarrik da oztina.
Gero ta handiago, odolen ganean
argituten dagoz Eguzki-dizdirak.

17. LEHENENGO JAUNARTZEA

Bada udabarria, bada jorraila.
Orri bigunaz bete dira zugatzak.
Pozik, egun honetan, etxeko jaunak
begitzen dauz hortuan, loran sagarrak.

* * *

Beste poz bat bihotzan, handiagoa:
Gaur alaba txikia jaunartzen doa.
Jantzi barriz jantzita, ondo orraztuta,
amagaz eleizara, esku batuaz.

* * *

Gaur izan da igandeko meza nagusi.
Jaunak mahai inguruan, hainbeste txiki
izan dauz, maitekorrak, danak ixilik,
bihotz errubakoak, Berari eskintzen.

* * *

Hauxe da danontzako egun alaia.
Jaunaren onespenez, ospatu jaia.
Amamak emon deutso gomutakia,
irudi polit baten hauxe idatzia:

* * *

Birjinan besoetatik
gaur etorri da zugana
zeure laguna izateko
Jaungoiko seme bakarra.
Ez zaitetz inoiz urrundu
lagun maite honetatik.
Ez munduan, ez zeruan
ez dagolako hoberik.

18. MARGOLARIAREN EMAIA

Geure lurra maite dauan margolariak
lauki bat emon deust: itxaso haserreak
bitsaz betetzen dauz Galeako hatxak
maldatik igon gura, baina jausi.

So egin dot luzaro: hondar zabala
neguan agertzen da lagun gabe.
Batel hondaturiko olak, burdinak,
ezker aldeko hondarra, betetzen dabe.

* * *

Zer esan gure deust margolariak?
Laukiak ete dau gomutarazo-barri?
Gu bere, ludi honetan, urte askotan,
guda gogorra izanda, batelen antzez,
itxaso ertzara ekarri hazur makurrak
hildegira begira. Gero arte...

* * *

Hau da ikuspen ituna? Ez horixe.
Aitagana joatea. Espetxea hausil!
Zeru ertzeko kaian inguratuta
sinesmendunak bizi alai ta aske.

19. LEHENGUSINAREN HERIOTZAN

Ilbeltz honetan, hasikeran
zeure heriotzen barria,
ta hainbeste oldozpen itunak
neure bihotz barrenean.

* * *

Liorren eta Diman bitartean
aurkitzen da asabaren basetxea
anai bien alabak, eta biak
bardin izena, baita abizena.

* * *

Asabaren etxera, geure elea
hobeto ikasteko, joan nintzan
udabarri baten. Ni gaztea,
zu gazteago zinan, euskalduna;
ni, erdi-euskaldun baino ez nintzala.
Maiatz-azkena zala, iluntzea.
Zeure gorputz-inguru, zeru-mugan,
lepo oihalaz lotuta, zeure neba.
Abots argiz haizean abestia...
loren abesti zala, oroitzen naz.
Zu larrosa, benetan, bazara-ta,
larrosa pinpina zeure alboan.

* * *

Urteak igaro ta neskatoa
ezkondu, andra zabala bigurtu zan
eta bere nebatxu abadea,
Miren-Bihotz-Semea orain dala.

* * *

Zeure gogoen alde, danok otoi...
Neure barruan dago itxaropen;
lepoz eroan zenduan neba horrek
orain Jaungoikoagana eroango hau
goiko indarrez, zerura, lehen bai lehen.

20. BITXORI MARGOLARIA

Margo agerpena ikertu neban
San Nikolasen aurrean
atzo gabea, ta ondino daukat
edertasuna, gogoan.

* * *

Edertzaleen begi horreekaz
begituten dozu geure lurra,
ta gero oihalan itxiten dozuz
zeure bihotzaren zatiak.

* * *

Lauki bakotxa, bere margoaz,
da urregorritzko pitxia
dana loratsu, dana udabarri,
geure begien aurrean.

* * *

Eusko bazterrak: Lemona, Gamiz,
Mundaka, Dima, Sukarrieta,
itxas-baketsu, kaien ondoan,
ikusten dogu itxasoa.

* * *

Indusi-hatxak, abaden etxe,
Bernagoitiako torrea...
So luzaroan... ezin aldendu
lauki batetik bestera.

* * *

Eskerrik asko, Bitxori, zeuri,
Hainbeste lauki ederrakaz
ikusten dogu, negua izanik,
Euskadiren udabarria.

21. BILA

Zeure bila nabil.
Munduko edertasunak begituta gero
itxi begiak.
Izan leiteke holan hobeto ikusi
dan bikainena.

* * *

Giza antza gazteak
bereganatzen gaitu
baina horixe bakarrik ez da gauza asko.
Gogoan daukoz gauza ikusi ezinak:
narru garrantzi, ondasun,
maitetasuna, bai dira hobeak.

* * *

Geure gogo hilezina, mundu honetan,
haragizko ontzian aurkitzen da.
Inguratzen gaituan gauza guztiak,
gogo begietan dira ikurrak.
Bide ertzetan dagozan lora horiak
Jauna, urregorritzko txindiak,
sakabanatzen dozuz geure oinetan,
Zeure bezuzak dira, ene Jauna.

* * *

Hemetik igaro da...
dana jantzita bere edertasunez geratu da.

* * *

Zeure txistuaz deitu
Artzain On horrek. Biztu ta alai benetan,

usain ederrez, Zeure atzean gaituzu arinetan.
Zeureganantza noa, gabaz ta egunez
noiz ikusiko zaitut?
Aurrera, beti aurrera lainoetan...
Inok be ikusten ez naunean
aurkituko zaitut, ene Jauna!

22. LAZTANDU NAU, SEMEA...

Kaletik etozala, ikusi dodaz:
ama, argal, ule-zuri, baltzez jantzita;
bere ondoan alaba, ondino gazte
ona, galanta, ahoan irribarrea.

Barriz orduko aldeak gomutau dodaz:
alkar aurkitu zinen iturrian
biok begiak barre, hagin zuriak
maitasun izpi bizi bihotzean.

Ene semea,
handikiren alabagan
ipinten badozuz zeure begiak,
zeure gaixoa...!
Badatoz bere osabak bere bila
zugandik urrunduten, arin-arinka.

Igaro dira egunak, igaro urteak...
Urrun hil da gaixoa, atzerrian.
Ez naz ni inoiz ahiztu, bere irudia
bizi-bizirik daukat bihotzean.

Agurtzeko une baten hurreratu naz.
Ezagutu nau amak, abegi onaz.
Hitz batzuk egin doguz eta alabeak
maitasunez laztandu, agurtzean.

Zeugana barriz nator, seme gaixoa,
ikusi dot barriro maitalea,
gutziz galanta ondino
ezkongabea,
ta ziur nago:
mosu hori izan dala zeuretzat.

23. AGUR

Ez eizu negar, amama
noalako itxaso-zehar,
Amerikatik honaino
egin leiteke egunean.
Han egiten da erraz
hemen dinoguna: ezina.

* * *

Hor dago, berba ta berba
itxaropenez betea.

* * *

Bai... Gomutara datorkit
udan, baratzean,
ate ondoan, ostopean
habia ostenduta,
lehen arrautzak, gero umeak
pozik ikusi genduzan.
Hazi, ta hegoak indartu
badabiz inguruan,
baita azartsuena doa
abarrarik abarra;
Eguzki epel azpian
dana da poz-alai.

* * *

Eguna doa ta gaba
izaten da ilun, hotza
...ta biharamon goizean
baratzen, inudian,
agertu zan hotzak hilda
geure txindor gaixoa.

* * *

Bai, erraz etorri leike
Amerikatik hona.

* * *

Igaro dan guda-ekaitzak
aienatu euskotarrak;
batzuk Amerikan bertan, hazi dabe sendia.
Orain zaharrak Aberrira
bigurturik begiak
gura leuke etorri, baina,
ez dau gura sendiak.
Baten batzuk joan etorri
egiten dabenean
negarrez agurtuten dauz
euskotar gixajoak.

24. ELIZA ITXIRIK

Andra Marin eleiza, eleiza handia!
Handiak bai, sendoak, zeure harriak,
euren lekuan tente; igaro dira,
euren aurrean
ibaien urak letxe, urte, ta eunkiak.

* * *

Haraino helduten gara, ibilaldian,
gazteak ez garanok, negu arrastian.
Eta barruan, bakartaldian,
Jesusen oinazetan, geure eskariak.

* * *

Aurten bere, haraino helduten gara,
ta sartu gura geunke. Atea itxita.
Txukundu dabe eliza, polita dago,
ta zikindu ez daiten, itxi atea.

* * *

Hemen naukozu, Jauna, zeure atadian.
Zenbat bider Zu bere, bihotz atean,
deitu ta itxaron:
baina ez dabe idegiten, zeure semeak.

* * *

Gu-maitasunagaitik, gizona eginda,
maite gaituzulako, oteundegian,
itxaroten gaituzu, ilunpean.

* * *

IDAZLAN GUZTIAK

Baina batzuentzako, ez da nahikoa,
kanpoko atea bere, giltzaz itxita,
urrezko kaiol hortan espetxekoa
egin zaitube, Jauna, txori txikia.

* * *

Zeure maitaleak ezin hondoratu...
Geure zorakeriak, Jauna, parkatu!

25. EZ HAUSI IRUDIA!

Kutxa baten gordeta, dagoz argazkiak.
An gagoz gu, gazteak, alai ta bizkorrak.
Asko batu ginen, mendian, jai hatan,
Aberria goraltzen, danak jeltzaleak.

Ez dozu inoiz ikusi, erreka uretan,
Zeru, zugatzak, lorak, baita arpegiak
Irribarreka, hantxe, danak irudian?
Harri bat jaurti ezker, mila zati eginda,
irudi atsegingarri, aienatuten da.

Mendian jaioriko ura, iturritxoan,
garbi-gardena, pozik, harririk harrira,
kantari jatsiten da. Uhinak, txikitxuak,
alkarrekin batuta, doaz itxasorantz.
Hatxa biden erdian: urak, alboetan
aldenduta, egiten dabe, barrero bidea.

Bidea eginda gero, itxaso aurrean,
aurkituten badira, une baten... Tamal!
Zelan dago hain lohituta? Dana da bustina!

Urteak igarota, ez gara ikusi alkar...
Orain? Nik ez dot gura!
Buruko kutxatxuan, da gomuta alaia.
orain alkartu? Harria!

Ez hausi irudia...

26. BOROBIL ANTZERA

Zelan dago gaisoa?
 —Hil aginean...
 Sartu ta jezarri. Hor dagoz besteak.
 Jezarri eurekaz.
 Luze-luze eginda, begiak itxita
 hor dago ohean.
 Sudurra zorrotzen,
 erre-hautsa margoa, bere arpegian.
 Neure adiskidea, neure lagun ona
 orain bazoaz...

* * *

Umea nintzala, borobil gorria,
 putz-ontzi barria, igesi jatan.
 Badoa zeruan. Gero ta txikiagoa
 deritzat! Ai nire tamala!
 Ezin harrapau, ezin bere ekarri
 eskuetara.
 Baina boronbila ez,
 ez zan ituna. Arraina itxasoan
 baizen aske, pozik igoten gora.

* * *

Guretzat ituna. Baina askatu ezkerro
 zoriona behintzat.
 Buruen barruan, odol-taupadak
 joalen eresia, bigurtu dira.
 Gero ta arinago, pisurik gabe,
 bere arimea, gora altzaten da.
 Barkamen jantziatz, Jaunak jantzi dau.
 Jauregiko atear,
 bera pasetako zabaldu dira.

Bere sendikoak, ateraino, agurtzen
hor alkartuta.
Eguna ez da iluntzen!

Alaia ez da amaitzen!

* * *

Neure lagun ona, gomuta nigaz.

27. EMOIGUZU GAUR: DEUNTASUN ERA BARRIA

Zintzo Jaungoikoarentzat
zintzo herrientzako
gaur behar dogu artzaina
baita euskaldun orok.
Jaungoikoaren izenean
izan zaitez herrien abotsa:
maite ele zaharra, maite ama lurra
ta eusko legeak, maite askatasuna.
Zu, geure artzaina! Zu geure laguna!
Izan behar gara kristau ta abertzale
ta lagunakaz lan Euskadi aldez.
Berbiztu enda zaharra ta, geure ekanduak,
geure eresiak, geure ele kutuna.
Jaungoikoagan geure itxaropena.
Ito bihotzean, gorroto-kemenak!
Lagunak burrukan? Ez gara aldenduko,
beti garaituten txarkerien-ordainak.
Lagundu egiskuzu, honetan, artzaina!

28. ITZIARRERA BIDEAN

Igande goizean...
 Belbide zabalán,
 urdínán, belbilak
 badoaz hegazka,
 ikurriña-atzean.
 ondino goizalde...
 Lainoa inguruan.
 Baserri, zugatzak,
 herriak, zubiak,
 danak atzerantza;
 belbil erreskadak,
 aurrera bidean.
 Eskuman, or goian, ta laino ganean
 Tabirako hatxak, buru agurgarriak.
 Nik esango neuke, dirdiraz dauzala!
 Eusko herria hazten ikusi dabenak;
 hainbeste anei urte, aske izan da ta,
 zapalduta ehun urte, gorpuan antzera...
 Orain buru jaso, ta gora jarritzen,
 berbiztu da herria. Asabak pozarren
 hatx-tontorretatik, geure begira.

Gu, aurrera beti...
 Ezkerraz uriak, uri nagusiak:
 hormadi goiluze, biltzen dira bertan.
 Atzean geratu, gu beti aurrera.
 Barriro mendiak, ta mendi aldapean
 ardiak lakoxe
 basetxe zuriak, dagoz bananduta.

Hau da geure herria!
 Geure Mikel Deuna,
 zeure eguna ospatzen bagoaz eta,
 zu buruzagia, zaindu beti Euskadi.
 Gehienak garanok,
 onenak gaitezán, lagundu behar.

29. GOMUTAGARRIAK

Zegaitik ez oroitu
gudarien gurenda?
Azpiazutar Iñakik
dan-dana edestu eustan.

* * *

Geure guda galduta,
ez bihotzen kemenak
iritsi eben gazteak
jarraitu, dala onena.

* * *

Doixtarrek, geure aurka
(Gernika ez dogu ahaztuten)
ekin dabe luzaro,
Aberria hondatuten.

* * *

Badoaz, ba, Bretañan
Ikurriñan atzean,
doixtarren blokus hartzen:
Agertzen da han, aurean.

* * *

Bultz-bidetik aurrera,
ezer ez estaltzeko,
erraza da etsaientzat
talde osoa birrindu.

* * *

Abade eurekaz dauke.
Autortu ta Jaunartu
egin dabe gehienak.
Hilteko trankil dagoz
ta badoaz aurrera.

* * *

Iñaki jauna dabil
batzutan lehenengoaz,
arrisku nagusian;
beste batzutan, barriz,
epelak adoretzen
geratzen dala, atzean.

* * *

Zegaitik ez, doixtarrak
ez dabe danak erail
metrailetan boladaz?

* * *

Ikusi dabelako
datozala gizonak
bulartsu-bihotzdunak.
Euren menpean, ziur,
egongo dira hobe,
frantses azpian baino.

* * *

Leiho txikitxutik
zazpi Te Deuma abestuten
hasi da Azpiazu jauna.

30. JAZORIKO BAT

Badira Gabonak, hona hemen oporrak
 umeak jarrita, neure inguruan.
 Sutondoan gagoz, ta danak batera:
 Amama oin ipuina, esan kontu bat!
 Geure kontu zaharrak...
 Iturriko ura, hotza, gardena;
 zeure tantakadak, landaran ganean,
 lur barrutik urten, ta egunen argiaz,
 dizdiratsuak!
 Ez dago konturik, gaur edestia!
 Geure artean dagoz gizon apal-onak
 urre-bihotzdunak, lehengo denporan
 sarri egin ebenak gauza harrigarriak.
 Hauxe da ardao zaharra,
 zanetatik bero, ta bihotzan sua
 egitekoak.

* * *

Eusko Gudaritza, prantsesen artean
 doixtarren aurka, borroka gogorran
 ibili ziran.
 Batzutan ganetik, bestetzutan galdu,
 jazoten dan lez, edozein gudan.

* * *

Doixtar-eskuetan, jausi Ordoki Jauna,
 ta heriotz epaia emon eutsena.
 Badaroaz batzuk, hiltzeko mendian.
 Eskuak lotuta, kateaz, atzean.
 Polondarra izan bere laguna.
 Doixtarrak atzean ondo armatuak.

* * *

Bidea estututen zan
amilka ganean igaro ziran.
“Igesi egin daigun!” geureak dinotso.
Besteak gurago eban hiltea.
Amilkatik bera burua bota eban
geure gudariak.
Doixtarrak luzaro tiro ta tiroka
tontorren ganetik, ibili ziran.
Azkenez, joan ziran; ezebe mobitzen
ez eben ikusten. Hil zalakoan, badoaz aurrera.

* * *

Hiru egun igaro, egunak ta gabak.
Eskuak lotuta, odolez beterik
jo-zauritua.
Bedarra janari, baita ura edari
baeukan mendian.
Azkenez artzain bat arkitu
ta askatu. Zauriak osatu.
Gogortu atzera.

* * *

Hori jasan eban gure gudariak.
Hori edestu eustan Ordoki jaunak.
Horixe izan zan frantzitar aldean
Eusko Gudaroste, Buruzagia.

31. HILOSTE

Urrintxo, kanpaiak astiro ta itunki
hasi da joten...
Enparantza zabalán txirula-atabalak
mendiko negarra, guganatuten.

* * *

Goian da gorpua,
sedazko ikurriñaz, erdi estalduta...
Hareitz zahar-zintzoa,
azken igarantza, bururatuta.

* * *

Gurutz Deuna aurrean,
hil-kutxa ganean,
langileen txapela irabazita.
Hainbeste koroia:
lora eder gorriak,
lora eder zuriak, milaka atzean.
Geroago lagunak, itun eta ixilak,
zenbatu ezinak, aldatza goraz...

* * *

Zeure irakatsiak, bihotzan daukoguz.
Zeu-jarraitzeak izango gara.

32. HAUTS BIHURTUKO HAZ...

Eguazten honetan
hasi da, kristauak,
garizuma aldia.
«Jaungoikoagana
zuzendu zaiteze»
Eleiza Aman hitzak.
Baina ez jaku ahaztuten,
lehendik esandako
egi itzal handiak.
Hautsa baino, ez gara...

* * *

Alperriko lana,
burua goraldtu,
ta begitu besteak
sorbalda ganetik.
Aintza ta onespena,
Jaunarenak dira.
Hautsa baino, ez gara...

* * *

Jaunak egindakoak!
Ez ahaztu ba, Jauna,
zeure eskuetako,
garala eginak.
Ez itxi betiko
gu ludi honetan,
lurren azalean,
lohia ta lupetza.

* * *

IDAZLAN GUZTIAK

Nik ikusi dot
gela ilun batean
zulo txikitxutik,
sartuta izpi ederra.
Eguzki izpi horrek,
haizean hegazka
dabiltzan sastarrak,
urregorritzko hautsak,
eder dizditsuak
bigurtu behingoan.

* * *

Zugaz bizi ezkerro
pozik nago, Jauna,
zeure dizdirako
errautsa izateaz
orain eta gero.

33. EUSKO LOREA

*Emon ta zabal zazu
munduan frutua...*

Hamazazpi urte, ikasten zolia,
atzerrira joan da heziketa osatzen.
Ikastaro amaitu, egiten dabe jaia
ikasle-urteen garaipena ospatzen.

* * *

Ameriketan eraz egiten dabe dana:
inglesez hitz egiten, ekandu bereaz
neskak jantzi luze, ta mutilak, barriz
etiketa hutsaz, osoro jantziak.

* * *

Ordu bi luzeak pasau ziran bertan.
Saridun ikasle, danak banan-banan
estradora igonda, egiten dabe berba
eskerrak emoten, agurtzen, eta abar.

* * *

Heldu da berentzat igoteko unea.
Oste handin aurrean egin behar dau berba.
Hitz laburrakaz agurtzen dauz danak
eta amaituteko, bihotzeko garra urten dau ahotik:
“Euskadi askatuta, gora!” dino euskeraz.

* * *

Oste handi haretan, Deustuko semea
bizar baltz artean zidarrezko uleak,
kaikugaz jantzita, buruan txapela
“Gora!” erantzuten dau, malkoa begian.

34. IKERTALDIA

Arteta eta Orbetar Imanolen oroipenez.

Hobeto nagola osagilak dino,
 ta ataratzen nabe, bai, baratzer.
 Gaztea izan arren, orain gauzeza,
 ta Aberri maitea menperatua...
 Zer daukot aurrean? Barrero espexera.
 Benetan iluna etorkizuna.
 Alaia ta poza ez da zeuretzako,
 gudari gaixoa azpiratua.

* * *

Poztu zaitez, gaur ba, dino gaisozainak,
 gaur da zeuretzako, ikertaldia.
 Etorriko jatzu ikertzen sendia,
 gaur dator zu ikusten, anai gaztea.

* * *

Matrailatik bera negarra dario,
 nigandik urruntxu, gelditu da.
 Nik, izparringian begiak lotuta,
 bihotza gogortzen dot, bitartean.
 Nire anai txikia! Besarkatu gura
 negarrik egin barik, bere aurrean.
 Hanka bat bakarrik, ezin naz zutundu.
 Eta bera ez dator minez, nigana...

35. IZENIK ETE DAUKO

Leunkiro dator euria
 mendiak ur-hasetzen
 Beheko aldean iturria
 abaroa poztuten.
 Egarriz dator bidari
 bide luzea eginda,
 oi, zelan metal-ur horrek
 kentzen dauan egarría!
 Holakorik ez da saltzen
 kristalezko ontzian,
 izki handiaz bere izena
 paperan ipinita.

Geure herrien iturria
 zu zara olerkaria.
 Abestu, idatzi ta esan
 sarritan olertiak,
 ez da behar danak batu
 ta saldu idaztegian.
 Emon, emon ur garbia
 doala aldape behera,
 berak bihurtzen daualako
 geure lurra emankorra,
 pentsau beti horixe dala
 asaben ondasuna.

Inork edaten dauanean
 eusko gogoá bertan,
 irakiten bere odola
 bihotza barrenean,
 ta bere arima dardaraz
 asabakaz batera,
 inoiz, arren, ez esan
 “Edaten dozun ur hori
 nigandik urtena da”.

36. ETSALAK?

Gaueko hamabiak.

Zaratak egin barik mobidu da tren.
 Bagoia doa hutsik, argiak motelak;
 ez ahaztu, une baten, gagozala gerran.
 Deustch-menperatutik aske-aldera noa.
 Azken aginduak, diru pilo itzelaz
 daukodaz kolkoan, eta horrexegaitik
 neure baztertxuan, larri naz benetan.
 Muga igarotea! Hauxe da txarrena;
 hantxe alemandarrak kontrolatzen dabez
 dagozanak trenan.

Hemen geltokia. Bultzia lotu da.
 Lehenengo atetxutik sartu da deustchtarra.
 Niganantza dator. Entzun: taupa, taupa...
 Begiak eratsi, erdi lo bezela,
 baina barrenean bihotza taupaka...
 Horra, orlegi-prakak oski baltz ganean.
 Ez daitela lotu neure aldean, Jauna!
 Aurrera doa ta, atetxutik jatsi.
 Zelako arnasea, luzea, sakona,
 arrisku igarota.
 Baina praka orlegi, oski baltz ganean
 neuganantza etorten,
 begi itxita bere, beti ikusten dodaz.

Biharamonean,
 eskerrak emoten banoa elizara.
 Kepa deuna eleiza, Lurdesen hur dago.
 Hemen Frantzian alde z hildakoen zelaia.
 Ontxe hasten da meza;
 Jaupari ulegorri hortxe dago aldaran.
 Eraspen handiaz, astiro ta sutsu
 otoi-eskariak; ta bere inguruan,
 astiro ta sutsu, erantzuten danak.

Confiteor esaten, begiak apaldu,
ta hantxe ikusten dodaz,
jantzi-zuri ertzan xerraen azpian,
oski bat ganean
aleman gudari praka-orlegiak.
Aleman jaupari... ezta zeure etsaia?
Ez, ba. Orain, barriz, bihotza taupaka
oroitzen naz hitzak:
“Neure Aitaren nahia, egiten dabenak
dira neure anaiak!”.

37. BIHOTZ-JAUBEA

Mendi aldapean, pagadi azpian
lainoz estalduta, basetxe zaharra;
arpegi alaia, barriz zurituta,
zugatzak lorean, bere inguruan.

Itxasoko orroak, haraino heltzen dira;
hitzontzi-gizonen oldozpen, ametsak
eta itxaropenak, doaz eurekaz.

Zer dauko etxe horrek
eusko bazter baten ezkutatua,
gizonen bihotza betetako osoro,
munduko handitasun danak, ahaztuta?

* * *

Uri handiko kaian, orain lotu dira.
Dalako benetan ikusgarria,
danak lurreratu, ikustearren ba;
bera da bakarrik itxasontzian.

Ezpairik gabe, hango atseginetan
beharsari danak, banatuko dabez
bere lagunak.

Paper-zorrotik atara ta gero,
begitu banan-banan argazkitxuak.
Zein da ume zoli, argia, potolo,
andra gazte baten belaunbietan,
begiak dizditsu, ahoan irria,
maitekiro ikusten? Bere semea.

38. EUSKO-ENDA

Euskalerrian jaio, zanetan eusko odola,
Euskeraz hitz egiten... Ondino ez da nahikoa.

Asabaen bizitza oldoztu sarri askotan,
Zu be duina izateko, haren antzekoa.
Uriko irribarre-jai hotsetik aldendu.
Gailur haize garbia ta bakartasunak
Apaindu eben antzinan, eusko-gizon Jatorrak.
Garai izugarrizko-eginak ixilean
eginda, ahazturik dagoz, oin, euren izenak.

Euren buruen aintza bilatu ez ebenak.
Danak bakean bizi anaitasunean.
Ludiko biztanleentzat gerturik eusko odolak
“O” ikurra ta baietza, dauko gehienetan.

Mundu honetako ospeak guzurrezkoak dira;
euren atzean dabiz bakarrik zoroak.
Berez handia dana egiten da txikia...
(Zeru-lur Egilea, asto baten ganean
sartu zan Jerusalem uriko jaietan!)

Bihotz handi ta apala, kristau ona bezela
bizi, ta izango zara gaurko Euskalduna.

39. ERLEAK ETA ZORRIAK

Zelako jai ederra
 gaur bada egun handia!
 Zuek lan egin zenduen
 beti gogor ezta, aitita?
 Hara ba, gaur heltzen dira
 zuentzako hegaleak!
 Alde guztietatik
 dagoz hainbeste ikurriñak...
 Geure herria, benetan abertzalea!

Bai iloba, ikusten dodaz,
 hori bada atsegina...
 Baina, zuk badakizu
 erle ta zorrien artean
 beti dagoan alde handia?
 Erleak egiten dabe, lorakaz
 geutzako ezta.
 Geure odola zurrututa
 biziten dira zorriak.

Hara ba, egun honetan,
 Ai, gure Euskadi maitea!
 Eusko Jaurlaritzak daukoz
 erle gitxi, ta beti ugari zorriak.

40. IRAGARRIA?

Luzaro egon naz lauki haren aurrean,
 astiro so egiten dau neure begiak.
 Gorengotariko margolaria?
 Ezin dot nik esan, baina bihotzean
 Itxartu ta jagi da gomutea.

Goian hildegia
 burdinezko atea hodeien artean
 ikusten dira.
 Zerua ubelduta, hodeiak, gorriak
 gero ta gehiago ilundutuak.
 Dana da iluntasun ekaitzen aurrean.
 Beherago soloak mendi aldapean,
 eta danetan helduta, garia;
 galburu zuriak: buruak astunak
 makurtzen dira.

Gari buru honek, hainbeste ta hainbeste...
 Holantxe gazteak kalea betetzen
 estututen ziran, Aberri-Egunan.
 Zuek gari buru helduta zarie
 eusko gaztediaren irudipena.

Gariak badagoz etxera begira.
 Jaungoiko laztana! Etxerik ez dago...
 Bakarrik han goian dago hiltegia!
 Hotz-ikar gogorrak harrapatzen nau
 hazurretaraino, uda izan arren;
 alaia ta poza iges egin dabe.
 Bihotz tximurturik neure barruan.

Uxatuten dodaz oldozpen itunak.
 Adiskide bila iradun noa.
 Behar dot benetan lagunena jarduna.
 Eta halan aztintza, behin, ahaztu neban.

41. EGINKARIAK

Zein ete da mundu honetan
eginkari handiena?
Orain zahartzarora helduta,
ikusten dot argiaz.
Ez da herriak menperatzen
giz-izen emoteaz.
Ez, jadetsi mundu honetan
lekurik garaiena.
Ez, bihoztu donokian,
Jaun ondoan jartea...
(Anaideunen bien aman
eskai-soroskitsua!)

Jauna, hauxe da nire nahia
hau, neure berezia:
Jaun ahaltsuen, sari barik
otseina izatea.
Non, mundu zabal honetan
sari bako jopua?
Makur-makurrik eginda,
sartuta gurutz-pean.
Zu bakarrik begiratzen
joango naz zeure atzean.
Gurutz astuna da leuna
Zu bazagoz aurrean.

42. NEURETZAKO BIKAINENA

Goizean-goizik, etxetik urten
zer topa dozu bidean?
Gizon gaztea, bular sendoa,
buru jagia, indartsua,
tinko ibilera... Neure albotik
igaro da.

* * *

Neskatil eder, ondo jantzita,
lirain, alaia, begikoa.
Usain ederra bere inguruan,
begi irribarrez... igaro da.

* * *

Baratz bazterran, larrosondoko
ganeko adarran larrosea,
pipil gorria, erdi zabalik
haize bigunaz sehaskatua.
Ixil-ixilik agurtu dodaz
neure bidea jarraituta.

* * *

Gelditokian belbil haundia,
gazte ta zaharraz betetzen da.
Udea da ta, badoaz horreek
ibilte handia egitera.
Une batean, eurei begira
gelditu naz.

* * *

Horra hor bere, txori txikia
beren hegoaz altzetan da.
Zugatz ganetik, bere ibiltea
orain hasten da, zeru-zehar.

* * *

Ixil-ixilan agurtu dodaz,
neure bidea jarraituta.
Agur danai, ta ondo ibili.
Ez naz sartuko lehi horretan.
Ezagutu dodaz poz guzti horreek.
Orain, gurago dot kabia.

Gela txiroa, txiki ta argia.
Han, neu bakarrik eta ixilan,
aurkitzen dot sarri askotan,
Jaunak emonda, zoriona.

43. GORAGO BETI, ZEURE GOGO HORI...

Serantes inguruan hodei gorriak,
eguzkia sartuta mendin atzean.
Ilunak hasi dira lurrez ganean,
argi dago bakarrik sarkal-ortzia.
Ilunabarra...

Astiro, astiro, eguzkia jatsi da...
Haize hotzak hotzitu deust bihotza;
Alaitasuna, ez da neure laguna.
Gorago beti, zeure gogo hori!

Itxas erdian dago anai maitea,
Mexikorantza doan itxasontzian.
Honantza bihurtzen dauz bere begiak.
Euskadi da berentzat, gaur sorkaldea.

Eta ikusten dau itxas ganetik
eguzkia jagiten dizditsu, gero
abestuten hasi da, alai ta bero.
Gorago beti, zeure gogo hori!

Gizonen oldozpenak, huts-hutsak dira.
Eguzkia hiltzen zeure begiaz,
ikusi dozu, ta ezta egia!
Gorago beti, zeure gogo hori!

Noraino altza behar dot bihotz epela?
Jaungoikoaganaino
Bera da Egia,
Bizitza ta Bidea.

44. ALDAPE

Basetxe apala; mendi azpian
 geure enda zaharraren habi barria;
 habi jatorra, zazpi mutilak
 urte gitxitan, han jaio dira.
 Gero neskatxa,
 danen bihotzak alaitzen dira.
 Geure arkondarak lizatuteko
 orain arreba dogu etxean!

Urtea joan, urtea etorri,
 ezpairik gabe,
 aldatuko zan hango sendia.
 Pilpil txikiak, larrosa ederrak
 bihurtzen dira.
 Mutil koskorak, gizonak eginda
 bana banaka, aldatzen dira.
 Bat izan ezik, gazte-gaztea
 guda ankerrak eroanda, hil zan.

Aldape zaharra, zindo-baratza,
 Jaunarentzako bi, bereziak:
 bat Karmeldarra,
 misiolaria, joan zan bestea.
 Aldape zaharra, enda kabia,
 Euskadi atala agurgarria!

45. JAKIN-EZA

Geure baratzen, zugatz handian
abar artean ezkutauta
bere kabia, udabarrian,
egin dau txori bizkortxuak.

Birigarroa, geure laguna,
geure mailuki-zaintzen dauanak.
Marraskiloak, geure arerioak
jan ta garbitu landar danak.

Lau txorikume dagoz habian,
lumaz estaltzen hegotsuak.
Laster, bai, laster, handiak eginda
habia itxita, joango dira.

Astea igaro. Mundua ikusten
pozik joan dira txoritxoak.
Habia hutsik. Ez dakar amak
inorentzako janaria...

Badakizue ze ikusi dodan
geure auzo igertegian?
Birigartxua hilda, itota.
Lehenengo hegazka, bertan jausita,
jakin-ezinaz gaixiotxua!

* * *

Eusko gaztedi! Bazoaz azken...
nori jaramon egin behar?
Gaztea zara. Oi, jakin-eza!
Ez da zerua igertegia.

46. EUSKO LURRA

Mendien artean, arro sakonean
gudari gorpua, ahozpez datza
Euskadiko lurrai mun egitearren
hil-ordun aurrerantz jauzi zan...

Bere inguruetan lora ugari dira
zurbilduta lorak, hainbeste negar
oingo udabariak loraz burezten dau
lurragaz bat eginda dan gudaria.

Eusko lur mingotsa
Eusko lur maitea!
Gero ta barruan, bai, bihotzean
urrun egon arren, begiak itxita,
neu-gogoa hegaz, mun egiten deutsa...

47. ZORIONTSUA, ZU!

Para Manuel Ilarri, en el veinticinco aniversario de su primera Misa.

Ludi zabala edertasunez beterik dago!
Danak ikusi gura zenduzan.
Itxasontziko buruzagia, lortu ta gero
laster joan zinan, itxaso-zehar,
edertasunak so, ta abestuten.

Zolitasuna helduta gero,
irradi-hari, edonorantza bihurtu ta
entzun zenduan,
Iñaki Deunak zeru goititik
dear egiten: “Zeure ontzi hori
honantz arteztu!”

Josu-Lagundin esango deuste
dear horreri, zelan erantzun:
“Daukozun dana, laga biozu,
Jainko Semea jarraituteko”.
Entzun, ta egin.

Hogeta bost urte dirala,
jaupari eginda,
lehengo jaupa, Jaunari eskintza,
urte betea ospatzen dogu,
zeure ondoan, lehengusu maite.
Zoriontsua, bihotz-bihotzez,
esaten dogu, ta aintza Jaunari!

NARRAZINOAK



Lemoa (1927).

1. TXORIA KAIOLAN

Goiz hatan itxi eban lehenengoz habia.

Hegazkada labur-zakartxu bat eginda, bere habia dingilizka egoan zugatz-adar baten jarri zan.

Amea eltxoak harrapatzen urtenda ikusten eban han, urrun, mendiak eta ortziak alkar mosu emoten daben lekuan.

Bera izan zan handitxua. Harrezkero lumatuta be baegoan. Laster jakingo eban bere burua elikatuteko janaria bilatzen... Eta orduan berak bai hegazkadeak!

Loraz estalduriko lats-ertzeraino jatsita, ur garden-garbian sartu ta igeri, ta gero lumatxuak harrotu eguzkitan. Zugatzburu-ganera barriro igon eta handik mendiak baino harago hegaz.

A! Hegoak lumatuta eukiteak emoten dauan askatasun ederra! Berea da bizia, habien estutasuna itxita! Horretara oldoztuten egoala, pozez txioka hasi zan.

Bat-batez bere atzean zaratea susmau eban. Harantza begiratu ta une hatan izugarrizko esku batek harrapauta, gora jaso eban txori gaixoori.

Esku harek berarizko toki baten sartu eban txoria, iluntxu egon zan, baina bai epela ta biguna be. Mutilen kolkotan egoan.

Luzarotxu egon zan han, geldi-geldirik, arnasea hartzeko be bildur zala.

Gaixoari betikotasuna iruditzen jakon astia.

Azkenez, harrapau eban eskutzar berberak kolkotik atarata, burdinari lodidun espetxe baten aurrean imini eban. Atea zabaldu, esku to harek txori gaixoari barrurantz eragin eta bere atzean atea itxi zan.

Han bai eukazan janaria ta ura. Baina zelako janaria! Ez jakon berari bape atsegin. Eta atsegin izanda be ukuturik be ez eutson egingo.

Haren ituna! Larri egoan espetxe hatan. Loroak zatitu ta handik iges egiteko egiten ebazan ahalegin guztiak alperrikoak izan ziran. Ezin, ezin hausi! Betiko galdu eban askatasuna! Agur betiko bere gurariak sortu ebazan amets zoragarriak!

Ez eban inoiz ortze-zehar hegaz egingo, ezta loraz inguraturiko errekatik urik edango be.

Betiko espetxaldua... Hiltea ahal balitz! Bizitza ha baino gurago eban heriotzea!

Berak ondo ezaguturiko txio bat entzunda, burua biziro jaso eban, ta han bere ama maitea!

Berarentzako mokoia janariz betea ebala, habira bihurtu zan, baina ez eban umea idoro. Tamalez beterik, hasi zan umea bilatzen, eta jopu bat eginda espetxeratua aurkitu eban.

Euren mokoak alkartuta, amak laztandu eban eta barriro joan zan hegazka.

Laster bihurtu zan ostera be ta umeari mosu egiten doala, pikoan barruan janari bakana sartu eutson. Beste batzutan lez, ez zan ha eltxoa izan, bedar baten hazia baino.

Joan zan ama ta txori gaxoa kaiolako zotz baten ganean, sedazko kirikiñotxu baten antzez luma guztiak harrotuta lotu zan.

Biharamonean, txoria harrapau eban mutilak bera ikusten joan zanean, idoro eban kaiolako loruan, bere hankatxu gogortuaz gora, begiak itxita ta pikotxua erdi zabalik.

Hilda egoan.

Tamalez hil zan?

Ez, maite-maiterik eban amak zitala emon eutson. Gurago eban semea hiltea, jopu ikustea baino.

2. OTSOA TA TXAKURRA (Samaniegoren ipuinetik idorokia)

Mendiko larra zehar ebulan behin otso argal-argal bat narrua ta hazurrak baino ez eukazan otsoa.

Itzeletariko goseak eraginda ebilen ba, susmetan sastrapa ta otar-tean ea agertzen zan inon ehizaren hatsa.

Negu bihotzean izan zan. Basoa edurragaz estalduta egoan. Honegaitik eperrak euren habietan egozan; erbiak eta basoko piztiak ez ziran ausartzen hotza zala-ta, euren zuloetatik urteten.

—Negu honetako baraua, luzeegia dala deritzat —esan eban aho-pean otsoak—, urdailak eskatzen deustan janaria ezin emon gogorra ta ankerra izan arren. Neurea bai zoritxarra!

Honetara oldoztuten iharduala, menditik beherantza jasten hasi zan eta, bat-batez ikusi eban zidortxu batetik beraganuntz etorrara, txakur mardo ta lodi bat.

“Egun on!” —esanda, biak beheko aldera joiazan ezkeroz, berbe-tan hasi ziran, antzinako ezagunak ba ziran lez.

—Negu honen gogorra —esan eban txakurrak—. Hotzaren hotzaz dardaraz nago, sutonduan noiz etzungo nazan begira.

—Nik hemen basoan jasan behar izaten dodaz ba, eguraldi txar guztiak; batzutan hazurretaraino euriaz bustita; beste batzutan haize hotzak lehituta —erantzun eutsan otsoak.

—Nik barriz, bart gehiegi apaldu neban eta bedar erinkorrek jaten etorri behar izan nazalako etorri naz; ostantzean ez naz etxetik urteten —erantzun eutson txakurrak.

Gehiegi apaldu ebala bart! Egundo holakorik!

—Zelan arrano konponduten zara ba, horren oparo bizi izateko? —itandu eutsan otsoak—. Nik ahaleginak egin arren, ezin dot jatekorik idoro ba, ta goseak hilda nago —esan eban otsoak.

—Zetarako bizi zara, basoan? Etorri zaitetz nigaz urira. Han edozein etxetan, etxea jagoteko, pozik hartuko zindukeze. Zu sendoa ta azkarra zara ta, zugaz ez dago lapurren bildurrik.

—Ez deritzat ogibide txarra. Hamaika bidar ibili izan naz txartoago!

—Etorri ba nigaz. Han ondo esango deustue. Loditu be egingo zara!

Bitartean otsoak, txakurrak saman motzune bat eukala ohartu eban eta, adi-adi egoan berari begira, hatz ha zerena ete zan igarri ezinik.

—Zegaitik daukozuz saman uleak zehatz moztuta? —itandu eutson azkenez.

—A! hori ez da ezer; katearen hatza baino ez da hori.

—Kateak oster!...

—Bai, ni apur bat okerra naz bai? Ta, horregaitik, lotuta eukiten nabe. Baina jaten doazanean, askatuta, mahaien azpian egoten naz; honek botaten deust ogi koskorra; harek, hazurra; besteak, okela zatia...

—Agur adiskidea, —esan eban otsoak—. Basora bihurtzen naz ba. Zuk ondo jango dozu, baita lo egiteko be, leku epela izango dozu. Baina menpekoa zara. Gura dozuna ezingo dozu egin, jaubeak agindua baino. Zoaz, zoaz! jopuori, lotuta biziten. Nik, ogasun guztiak baino, askatasuna! gurago dot —epaitu eban azkenez otsoak.

Abere honen antzean, ez dozuez gizonak ikusi?

Batzuk neguan, jauregi ederretan bizi dira. Han ez dago hotzik: azpi-oihalak lodiak, jesarleku bigunak ta berontziak haizea epelduteko. Baina menpekoak dira. Horretarako, bizkar-hazur bihurkorra euki behar.

Beste batzuk arnas-haize horretan itoten diralako, dana labanzeria, eztikeria ta guzurra.

Gurago dabe basora joan eta mendi tontorrean askeak balira lez Aberriari bihotzez abestu.

Eta ahalegindu gogoak sendotuten eta gorputzak gogortzen, Aberriaren askatasuna, ahalik arinen etorri daiten.

Izan gaitazan otsoak; baina ez, Jaungoikoarren!, ipuin honen txakurraren antzekoak.

3. AITITA TA ILOBEA

Ilobeak.

“Arpegia gorrituta
darakus eguzkiak
gorriagotuko dira
bertoko mendiak.”

Aititak. Sutan ta bihotz-bihotzez urteten da zeure abotik abesti ori.

Ilobeak. Bai, aitita, gogo biziaz itxaroten dot gudaketa, Euskadiren arerioak menperatuteko.

Aititak. Itzala ta iluna da gudea, ene iloba!

Ilobeak. Ez da ituna, ez, Euskadi aldez bizitza emon Amets ederra!
...Mendian jausi! Igerturiko ire ta orbelak egingo dabe gudarienzat oge biguna...

Harririk harri jausten dan urak zauri odoltsuak garbituko dauz...

Arrats-haizeak, bere bekoki beroa hotzitzen, emongo deutso Aberri-amak bidalduriko mosu biguna...

Eta ez bada hiltzen, Aberri zaharra buru jaubea, jarei ikusi! Poza ta alai esan-ezina!

Aititak. Gaztetasunaren odol beroak horrela erizten deutso gudeari. Nik, inoiz ibilikoa nazanak, beste era batera ikusten dot: etxeak erreta, aberriak ostuta, solo emokorrak landak eginda, amen eta alargunen negarra, umezurtzak goseak hilik.

Ez da txarrena gudan hiltea ez. Txarragoa da holakoak ikustea, norbera zaharra dala, urteak lepoa ondo zamatua dagola, ta euren aldez ezer egin ezinik.

Ilobeak. Aitita, nik uste izan dot beti, zu abertzale zintzoa zarala. Aberriak eskatzen badau...

Aititak. Bai, baina begiratu behar da ondo Aberriak eskatzen dauan, ala ez. Guda bi izan doguz Euskadin lehengo euntean eta guda bi honeik hondatu dabe geure Aberria.

Ilobeak. Aldi hatan oker zenbiltzen kanpoko bakaldungai bateri aldezten. Guk egitekotan Euskadiren askatasunen aldez bakarrik egingo dogu gudaketea.

Aititak. Gu bere fueruak edo askatasuna geure Euskalerrri maitea-

ri ekarteko genbiltzan baina oker. Orain, zuk dinozun lez zabiltze zuzen.

Baina holan eta be, Jaungoikoak urrunduko al dauz geure aberri-
tik gudako egun baltz itzalak!

Ilobeak. Eta bitartean geure Euskadi buztarpean?

Aititak. Entzun, iloba. Notin bat gaixorik badago, guztiz txarto, ez hiltzeko izan lei ebakuntza behar izatea. Baina zenbat ez ete dira hiltzen ebakuntzan?

Beste biderik badago osatuteko, ebakuntzarik ez da egin behar ezelan be.

Ilobeak. Badauko geure Euskadik beste biderik ala?

Aititak. Itxaron egin behar dogu. Behar bada Jaunak agertuko deusku laster bide hori.

Bitartean, ahalegindu gaitzan Euskadi indartuten. Makal-makalik dagonari be ebakuntzarik ezin leikio egin, bai-dakizu. Beraz, indartu Euskadi!

Ilobeak. Egia da, aitita.

Aititak. Euskadi izango da indartsu ba, bere seme-alaba guztiak abertzaleak diranean. Badagoz asko. Baina ondino hainbeste falta dira!

Ilobeak. Bai, egia. Horreek ekarri behar doguz geure aldera.

Aititak. "Irakasten ikasten da" dino esakunak.

Neure eritziz, barriz, abertzaletasuna zabalduteko, ez da hasi behar besteai irakasten. Hasi behar da norberen burua abertzaletuten biziro. Besteen bihotzak berotzeko norberen bihotza labea egin behar da.

Esan, azaldu, agindu, ez da nahikoa.

Euskotarrak onartean hitz asko, agindu, asko entzun dabe... ta dana izan da hutsa, guzurra.

Ilobeak. Baina, gu ez gara besteen antzekoak.

Aititak. Horregaitik zuek irakatsiko deutsozue herriari egipenez.

Abertzaleak bazarie, bete zintzo-zintzo Jaungoikoaren aginduak: agindu bakotxa zehatz-zehatz, Jaungoikoa dalako geure lehenengo agintaria. Hurrengo beste geure agintarien agintzak beteko dozuez.

Ilobeak. Gazteok handia dogu bihotza, baina gauzak hain zehatz egiteko, buru arina...

Aititak. Bihotz handia eukitea nahiko da. Bera, osorik opaldu Euskadiri.

Baina zoritxarrez asko dagoz, ez bihotz handidunak, ezpabere min luzea daukenak. Askotan entzun deutset gazte batzuei. Nik, izkilua hartuta, mendira urten... Iño! Pozik ibiliko nintzake atzerritarrak hiltzen!

Holakoak entzunda etorri jatan burura ipuin ha.

Orein edo basauntz bat egoan oldostuten txakurrakaz burrukan ebilala. Bere adarrakaz hankaz-gora bota txakurrak, eta gero aboaz eta ostikoaz zatitu ta birrindu.

Honetariko ametsak darabilala txakurren zaunka entzun eban eta... basoan ezkutau zan ahalik arinen, bildurrez, hanka mehetxuak dardaraz!

Gazte horreek ez dira izango orein-antzekoak, tira. Baina eurek gura daben sasoi hori heldu artean zer egiten dabe?

Abendea maite dabela dinoe ta ardaotegietako edariaz abendea hondatuten dabiltzaz.

Euskadiren ekanduak maite dabela, baina gurago dabe erbestetarren jantza zikina.

Hori da hitzagaz gauza bat esan eta egitez beste bat adirazotea.

Ez zaitez, zu iloba, inoiz, horretarikoa izan!*

* Ipuin hau argitaratu zanean hurrengo oin-oharra euki eban:

“Hori don hori Utarsus. Ekin gogotik, zeure idazlanak gogotsu irakurriak izango dira-ta, baina apurtxu bat laburrago. —A”.

4. BELEA TA USOAK

Antzinan izan zan bela bat guztiz baltza, beste bela guztiak izaten diran lez, *kro-kro* egiten ebana bere abots gogor latzagaz. Ganera botaten eban hatsa iguingarria, abere hilen okela ustelak jaten ebazalako.

Mendi tontortxu baten bizi ziran, barriz, uso zuri-zuri batzuk. Politak ziran, eta ederto atonduten ziran alkarregaz euren batzar txikiak (usoak ez ei dauke beztunik horregaitik edo, izango zan.)

Bela baltzari otu jakon ederto bizi izango zala usotxuen artean, baina zan itsusia; ikusi ebenean usoak, iges egin eben ikaratuta, mendi-zehar.

Neguan zan eta mendiak edurragaz egozan zuri-zuriak, usoen hegoak lakoxeak.

—Ni bere zuririk, usoak lez jantziko naz, eta orduan maite izango nabe, oldoztu eban beleak.

Eta basora joanda bete ebazan bere lumak edurragaz, goitik behe-ra, bilin-bolaka ibilita. Pozik egoan belea bere gorputza ta bere hegoak zuririk ikusita. Joan zan harro usotegira. Baina... bere gorputzeko beroak apurka urtu eban edurra, ta bere hegoetan, lumak baizen baltza egoan.

Usoak barriro iges egin eben beragandik.

—Baina zer dala-ta ez nozue gura zuen adiskidetzat, ez naz ba zuek lakoa?

—Zeure azerikeri horrek ez deutsu ondo urten —erantzun eutsen usoak—. Guk maite dogun edur garbiaz jantzi zara, geure antzeko zuri-zuria danaz. Baina orain guretzako gorrotogarriagoa zara, lohitu, baltzitu, kutsatu egin dozulako edur zuri garbia zeure ukutuaz.

* * *

Badagoz atzerritar batzuk euskotarrak jantzita, geure elea ikasi dabe-ta.

Bihotz baltzdunak badira, espainatarrak dira-ta ekandu gaiztodunak badira, geure euskera garbi maitea euren ezpanetan hatsituko da.

Gomutau Irakasleen hitzak: bere elea ez dakian euskotarra Abe-

rriaren bihotzean arantzea da. Bere aberria maite ez dauan euskotarra, Aberriarentzako arantza bi. Eta euskerea ikasi dauan arrotzak, hiru arantza sartzen dauz Eusko-Aberriaren bihotzean.

5. KEPERIN ETA KARMELE

Hil ziran biak, senar-emazte zintzoak. Jeltzaleak.

Ez euken umerik, baina zenbat lan, eta zenbat onura Aberri alde!

Aldizkari baten irakurri dot, Jel alde idatziriko lantxu batek, zelako eztabaida ekarri eban. Lantxu horren aurka idatzi ebana be, hil zan; baina baeukazan seme-alabak. Eta seme gazteenak, bere aita goralduten eta bere asmoa jarraituteko, atara dau barriro arazoa argitara.

Ez dot ipiniko izenik. Abertzaleen artean kezka bat iziotuten bada, nik ez dot sutara egurrik bota gura.

Idazki horren azkenerantz semeak dino: “Ezetsia, bere lanarentzat izan zan ez lagunarentzat”. Eta argibiderako diño: “Eztabaida hori jazota, guda igarota gero, alkarregaz bizi izan dirala, Ipar-Euskadiko herri txiki baten”.

Hitz horreek gomutapen asko ekarri deustez burura.

Bai, Ipar-Euskadiko herri txiki baten bizi ziran senar-emazteak eta bere etxea hemetik igesitako gazteentzat aterpea izan zan. Han aurkitzen eben, jana, logelak eta ama baten ardura ta zainak.

Egun baten, nik be etxe horretan ikertu nebazan. Etxe hatan gordetan ebezan hainbeste idazti, aldizkari, izparringi ta argazki.

Alkarregaz bizi zirala dino semeak.

Etxetxu hatan izango ete zan?

Kristau zintzoak dana parkatu. Hartuko ete eban, bere aurka hainbeste idatzi ebana aberkide anai lez?

Hori izango zan zuen gurenda.

Horregaz argitzen zan, Euskadi ta askatasuna, maite bazenduen, eurak baino barrurago ta gorago, zuen bihotzetan, Jaungoikoa.

Hori zuen garaia.

Hareitz-ganean dogu Gurutze Deuna, beti geure Goi-Buru.

6. BARRI POZGARRIA

“*Voici la maison*” (Hauxe da etxea) esan eutson Koldok Pierreri etxe aurreko enparantzara heldu ziranean, eta gero bere laguna bertan itxita, aurreratu zan atadiraino deadarka: “Eup, badago inor?” Dana ixila egoan barruan, kanpoan barriz txoriak txiruli gozoak egiten ebazan sagar loratsu-abarretan.

—Ondino goiz da; soloan dagoz urrean— jarraitu eban Koldok, beti prantsesez, baina orduan ikusi eban Josepa, atxurra lagata, eurenkana abiatu zala.

—Kaixo, Koldo, hemetik zabiltz? Gurasoak ikusten ezta? Eta zela-koa izan da azkenengo itxas-ibilaldia? —itandu eutson Josepak euren ondora helduta.

—Ona, ona izan da, Josepa, gogor zabiltz? Hau dozu neure lagun Pierre; alkarregaz lan egiten dogu, Noruegako nabegazino-konpani baten —Josepak orduan begiratu eban gizon ulegorri ha, irribarre zabalean hagin guztiak erakusten ebazana, baina barbarik egiten ez ekiana.

—Honek ez daki euskeraz, jarraitu eban Koldok, baina neure lagun handia da eta neure prantses motroilo-tortoiloz konponduten gara, *n'est-ce pas?* —Pierreri eta gero Josepari barriz—. Non dago Mikel? Albista onak daukoguz zuentzat.

—Behiekaz uretan joan da. Baina sartu zaitzeze barrura, gaztai apur bat edo jango dozue.

Barrura sartu ziran ba, ta Josepak, mahai ganean zapi zuria ipinita, gaztaia, ogia, ardoa ta edontziak ipinten ebazan artean, behien urruma entzun zan. Badatoz, esan eutson Koldok Pierreri. Josepak ateraino urtenda, arin lotu behiak:

—Mikel, hemen inor dago zeure begira!

Askaria jaten eben bitartean, alboko kortan abotsak eta zaratak entzun ziran: “Hago geldi Txiki”, “Orrau, ia, ba, ia”. Azkenean, behiak lotuta, bedarrez beterik aska aurrean, paketu ziran eta Mikel eskuak bustita astinduten haizeaz siketu eitezana, eskatzean sartu zan.

—Arratsaldeon eta on egin daizuela!

—Mikel, albista onak doguz zuentzat—esan eben Koldok mahaitik zutunduta. Eta besoa sorbalden ganetik pasau eutson etxeko jau-

nari itanduaz—. Zer gura zeunke, Mikel, gehien gehien, mundu honetan?

Sorbaldak altzauta, irribarre pozgabetxu bat eginda:

—Guretzako, honezkerok, zer ete dago pozkarri mundu honetan?... Jontxu gurea, geure seme bakarra hil zan ezkerok, ez dago guretzat zorionik.

—Ez esan, Mikel, Jon hil dalakorik, hori ez da egia, guk oin artean dakiguna da, aienatu zala...

—Ez deusku esan Erromanek, azkenengo orduan beragaz bakarrik egon zanak, dana zelán pasau zan, ba?

—Mikel! Neure lagun honek, Pierrek, dakaz zeure semearen barriak!

—Ez holakorik esan, gehiagokok bage esperantzarik ez dot neure bihotzean sortu gura.

—Jezarri zaitez, gizona, jezarri zaitez, eta esan, Erromanek esan deusun guztia. Hemen, astiro, gure artean, dana ikusi ta pentsau egin behar dogu ondo. Zuk, esan dakizuna; Pierrek esango dau berak dakiana, ta izan leiteke biak dakizuenaz, egia, egi osoa argitutea.

—Ez jat bape gustetan, gomuta mingor honeek berbiztutea...

Bere aulkian jezarrita, lepoa artez artez, esku biak gogor batuta amantalen ganean, bieri entzuten begi zoliekaz, onartean isilik egon zan Josepak, bizi bizi esan eutson bere senarrari.

—Esan ba, Mikel, esan behin, eta ikusi daigun.

Pierre bere, jezarrita jarraitu zan, baina orain bere ezpanetatik irribarrea joan jakon, adi adi egoan, ulertu ezinik.

—Ba, Erromanek zehatz-zehatz, dana kontatu eustan, dana: arratsalde erdian, ipar haizea hasi zan ta hareek bultzauta, hodei baltzak zeru guztia goibelduten. Ontziko hagetan, puntetan, argi-txakurrak agertu ziran, eta behingoan, tximisten argi bizia, eta trumoi ikaragarrikoak. Olorroak hara ta hona erabilten eben ontzia... Azkenean "Itxaropena" albotik hausita ura burrusta barrura sartzen jakon.

Orduan, gomazko batelak itxasora bota, ta gizonak han sartuta, itxi eben "Itxaropena" ontzi ederra, hondatuten euren begien aurrean.

Baina itxasoa ez zan baretuten, uhinak eta olatu itzelak bateltxuen ganetik igarota, gizonak apur apurka eurekaz eroaten ebezan. Azkenean baten baten barrenean etzunda, Jontxu geurea ta Erroman, bakarrik geratu ziran, eskutik helduta Jaungoikoari bihotzez otoi egiten. Holako baten Jonnek esan eban: "Gu ez gara hilteko bildur! Ipini

daigun geure bizitza Jaungoikoaren eskuetan. Berak daki egokiena zer dan guretzat”, eta hasi eban abots sendoz: “Sinesten dot Jaungoikoa, Aita Ahalguztiduna...”. Nik bere, beragaz, erregutu neban, jarraitu eban Erromanek baina: “Sinesten dot hilen berbiztutea” esan orduko, ikaragarritzko oleatuak bateletik atara ninduan eta legorrerantz eroan ninduan. Lehenengo uger, ta gero narrezka lurren ganean, zutundu nintzanean, itxasora begitu, ta geure gomazko batela Jonegaz, beraldiak urrun eroan eban; oztaz ikusten zan uhinen artean.

Geure bila etorri zan itxas-ontzi salbagilea ta ni altzauta gero, harantza ta honantza jira bira luzaro ibili zan, uretan galduak batu gurarik baina ez zan inor agertzen...

Horixe da Erromanek esan eustana.

“Itxaropena” hondatu zan. Geure itxaropena be, beragaz galdu jakun.

—Errazoaia dozu, holantxe izan da oinarrean, baina adore barria hartu eizu. Pierrek neure lagunak, esango deusunagaz, eta Jon, zure semearen idazkia erakutsiaz ez dozu gehiago esango Jon hilda dagonik —esan eban Koldok; eta gero bere lagunari, prantsesez, jarraitu eban—. Nik uste neban lez, gomazko batelean, aienatu zan. Holantxe ba zure edeskera ta onena, baterakoak dira. Esan, esan ba orain, zeure semeak idoro ebena!

Orduan Pierrek aulkia mahaiaren ondora aurreratu, mahai ganean ukondoak ipinita eskuak alkarregaz korapilatuta, Mikelen begietan bere begiak ipinita, astiro ta gogor, hobeto ulerrerezoteko edo, frantsesez asi zan:

—*Tout près de chez nous se trouve la Baie des Trépassés.*

Koldok itzuli eban euskeraz:

—Bretañan, honen baserri ondoan, Hildakoen izpazterra dago.

(Halan jarraitu ziran. Baina nik esango dot Koldok esaten ebana bakarrik.)

Itxas-adar horretara itxarinak ekarten dauz galduriko ontzien apurrak eta hondakinak: ontzi krosko zaharrak, saihetsak eguzkitan han aurkitzen dira. Hondartza ha da, olgetako lekurik guren izana mutikoentzat; honen semeak be, hantxe, gurasoak gura daben baino sarriago egoten dira. Egun baten etxeratu ziranean, nagusitxuenak prakako sakelean paper bat ekarri eban.

—Begitu, aita —esan eban—. Gomazko batelen apurrak topa doguz. Sakela osorik ondino baeukan. Guk pentsau dogu ogi opilak

edo, ete egozan barruan, baina paper hau baino ez da egon. Badago idatzita, baina nik ezin irakurri. Ia, zuk ahal badozu.

Aitak hartu eban papera; ezin ezer ulertu. Baina buruari emon eutson, itxasoan galduriko baten azken idazkia zala. Umeakaz hondartzara joan zan. Jakin gura eban ontziaren izena. Itxas-agintariak jakin erazoteko.

Hara heldu orduko itxas-gora igarota, ez ebezan gehiago ikusi goma apurrak. Idazkia, aitak gorde eban bere paper-zorroan. Batzutan, lagunei erakutsi, baina inok ez eban ezer ulertzen.

Urtarrilean, hasi zan Noruegako petroleo Konpani baten behar egiten eta han ezagutu eban Koldo. Lagun handiak egin ziran.

Egun baten, Pierrek esan eutson:

—Zuk bere, geure moduan, bretonen moduan, beste hizkuntza bat dakizu, ia ba zuk ulertzen dozun hemen daukadan paper hau.

Eta sakeletik paper zorroa atara, ta handik hartu eban nahiko lohi egoan idatzitako paper bat, eta Koldori emon eutson. Koldo, papera hartuta, lehenengo begirakuneagaz zurbilduten hasi zan eta papera dardara egoan beré eskuetan. Pierrek oratu eutson:

—Zer dozu? geixorik ala? dardarez zagoz?

Koldok kendu eutseon eskua, bere besotik.

—Ixil, ixilik! Itxi naizu!— esan eban, malkoz beterik eukazan begiak, paperetik aldendu barik.

Amaitu ebanean, papera laga barik, burua altzau ta itxaso ta zero mugan begiak josi ebazan.

Pierrek esaten eutson:

—Zer da ba? Ulertzen dozu ala? Zer dino?

Azkenean, bere konortera etorrira, Koldok esan eutson:

—Bazenki, zer dan neuretzat paper hau! Neure adiskide baten azken agurra... Ez, ez, txarto esan dot. Beste mundutik etorririko agurra... Euskeraz idatzita da papera. Sinestu ezina...

Orduan honek irakurri ta prantsesez esan eustan paper honetan dinona, jarraitu eban Pierrek, eskoia, arkondarako sakelera eroanda.

—Paper hau emongo deustazu, esan eustan Koldok.

—Bai ba, zeuretzako horren gora handikoa bada, zeurea da...

—Ez, ez, jarraitu eban honek, zuk eroango deutsezu haren gura-soai bere semearen idazkia. Lehenengo oporketan hara joango gara.

—Halantxe etorri gara ba, halantxe euki dot erea, zuen lurralde zoragarri hau ezagututeko. Eutsi, hemen dago zuen semearen idazkia.

Berba honeek esaten ebazan bitartean sakeletik paper-zorroa atarata papera tolestuta handik atara, ta Mikeleri emon eutsan.

Honek maitekiro hartu eban papera, zabaldu ta begitu alde bietatik; gero bere andreari opaldu eutson.

—Ea, Josepa, zuk neuk baino ikuspen hobea dozun, nik lausoa daukot begietan eta betaurrekoak ez daukadaz hemen; jakean, goian dagoz.

—Nik bere ez dot ondo ikusten, banoa gora, ikuspiden bila.

—Ez joan oin, gero irakurriko dogu biok astiro, astiro, baina orain Koldok leiduko deusku arinago.

Eta Koldori emon eutson idazkia. Hau ba irakurten hasi zan:

—«Guraso maiteak: Helduko ete da paper hau zuen eskuetara? Ez naz ito. Bizirik nago, ta ederto bizi be. "Itxaropena" hondatu zanean, ekaitz ikaragarri hatan, bakarrik geratu nintzanean gomazko batelean, barrenean etzunda, hotzaz dardaraz, umezurtza lez ikusten neban neure burua, ta Zeruko Amari uste osoaz deituten hasi nintzan.

Denpora gitxi barru, apur apurka itxasoa baretuten hasi zan, baina ni larriaren larriaz burua arindu, ta lokartuta lez geratu nintzan. Zenbat denpora igaro neban horretara? Ez dakit. Zelan itxasoa ekarri ninduan hondartza honetara, bez. Baina neure konortera etorri nintzanean, lagunez inguratuta nengoala ikusi neban, basa lagunak ziran, narruz erdi jantzita; baina abegi ona egiten eusten. Emon eusten salda beroa edateko. Bilotsik nengoan, neure jantziak eguzkitan sikatuten egozan. Jantzi, ta neure gomazko batelera joan nintzan. Jakin neban non egoan, lagun piloa hantxe batuta egoalako. Eurek ez ekien alboko sakelak zabalduen. Han gordeta egoana, ogi opilak, edaria ta abar, zati-banatu nebazan eurekaz.

Biharamonean muru bizkarrera igonda, ikusi neban ugartean gengoazala. Hemengoak, eurek egindako txanelaz badoaz beste ugartetara. Baina zeintzuk dira ugarte honeek? Ez dakit. Itxasontzi handirik ez dot ondino ikusi.

Apurka apurka ikasten dot euren hizkera; ez da gatxa; hitz asko ez dauke-ta. Aizkora ta abar harrizkoak, burdinik ez. Nik erakutsi deustet zelan egin, gauza batzuk, horregaitik maite nabe ta hemen nago euren erregea banintz lez. Neure gomazko batela zatitu dot. Euren azpiko zatiak guztiz oneratsuak dira askotarako. Baina alboak, sake-lak dagozan zatiak ebagita, itxasora botako dodaz, sakel bakotxean zuentzako idazki bategaz. Horretarako, txanelan, joango naz urruti-

raino ta urarinak eroan al dabe zuen eskuetaraino helduteko moduan. Hainbeste gauza daukodaz esateko, baina paper gitxi, ta, noiz eukiko dot gehiago? Itxasontzirik pasauko da inoz hemetik? Zuen gomuta bizi-bizia daukot bihotzean.

Ostantzean osasun ona ta honen errege moduan bizi naz. Honeek aranbaltzak dira, ta neska ta andra batzuk guttiz galantak. Ni barriz uletsu ta bizar luzeduna. Gehiago ez da kabituten. Maite maite zaituet. Jon.»

Koldo irakurten egoala, entzuten zan ixil mixilka: “Ene Jaungoiko laztana! Ene Ama Birjina Begoñakoa! Nok olakorik pentsau? Jon gurea!...”. Josepak esaten ebazanak, bere amantala punta bategaz begiak sikatuten ebazan artean.

Mikelek be, begiak, malkoaz lausotuta ebazala:

—Ene mutilak! Ekarri, ekarri paper hori, guretzat bota dau Jonek, ezta? Mirari handia ez dala galdu, ta geure eskuetara heldu dala. Papera hartu ta esku artean maitekiro erabili eban, irakurri gurarik. Josepa joan zan gora betaurrekoak ekarten.

—Ikusten dozue? Beste seme bat seinzaroan hil jakun: alaba bi ezkonduta daukodaz, baina beti neure ametsa, neure goizeko izarra, mutil hori izan da, hain zuhurra ta hain apala! Itxas zaletasuna euki eban, nik neure gartzaroen euki neban lez. Baina ni itxas-arotzan geratu naz. Berak bai itxaso-zehar ibiltaldiak!

—Eutsi betaurrekoak —esan eban Josepak eskatzean sartu zanean—, irakurri ondo, gero izango da neure aldia.

Bitartean Koldok esaten eutsen Pierreri:

—Ikusten dozu honeen poza? Zuk ekarririko idazki horrek, hogeii urte gitxienez kentzen deutsez lepotik. Horra hor, gartzetuak, alaiak...

Mikelek emon eutsan idazkia bere andreari ta buruari eraginaz:

—Bai, bai, holantxe —diño—. Nok holakorik pentsau...?

Josepak betaurrekoak ipinita, begitu eban idazkia; gero bere senarra, gero beste lagun biak.

—Idazkera, ez da bete-betea Jonena... Antzekoa bai...

—Han, hemengo erreztasunak ez dagoz. Zelako mahaia, zelako aulkia? Horregaz, idazkera aldatuten da. Zeure semea bere, oingo ule ta bizarrakaz ikusiko bazendu, ezagutuko ete zeunke?

—Bai ba. Horretan zurekin nago...

Andra-gizonak, bakotxa bere pentsamentukaz, ixildu ziran.

—Orain gu bagoaz, esan eban Koldok. Jonen barri ona ekarri

deutsuegu gaur. Hurrengoko barri ona, Jon ber-bera zuek besarkatuten datorrela izan dedila.

—Eskerrik asko, esaten eben andra-gizonak ateraino lagunduta.

Ez dakigu zelan pagauko deutsugun egin deuskuzun mesedea. Mutiltxu horreek, idazkia aurkitu daben zeure seme horreek, bidaldu honantza oporketan; ondo zainduko doguz-eta.

—Gabon, ba.

—Agur, agur.

Gau hatan ez eben asko apaldu etxe hatan, baina hitz egin barriz...

Goizeko ordu biak baziran eta ondino Mikelek esaten eutson ohean erdi lo egoan bere andreari:

—Ni beti itxas bazterrean zura marrusketan, baina neure semeak barriz zelako jazokun harrigarrikoak ikusi dauzan! Ondino ni biziko naz. Jaungoikoak bizirik gordeko nau, geure Jontxun abotik entzuteko gertaldi mirarizko horreek.

Eguna zabaldu orduko, bajoian Josepa, egunero lez, eleizarantz mezea entzuten.

Baltzez jantzita, eleizarako ohitura dan lez, baina bere barrenean poza.

Aldatz behera joiala, eguzkia agertzen zan sorkalde-mendi ganean: landetan, bedar brintza bakotxak bere garo-arpulu dizdiratsua. Bihotza, berez igoten zan, Jaunari eskerrak emoten, edertasun ha ikus-tiaz.

—Eskerrak zuri Jauna, batez bere gaur, atzo ekarririko pozgarri barriak, neure gizonantzat adoretzu ta indargarriak izan diralako. Gero, bere gogoa arakatuten, neuretzako ez dira pozgarriak izan ala? Nik ez dodaz barri horreek oso-osoan sinestuten? Ez dakit ba... Baina nik benetan sinestuten dodana da, zeure zeru eder horretan, Jauna, neure semearen gogoa badauko zu, zeure ondoan, ugarte hatan baino askozaz zoriontsuagoa dala.

7. BERMEO

Ikastaroa amaituta, neure iloba Jon Ander, USAtik etorri da, gugaz udea igaroten, eta Euskadi ezagutzeko asmoz.

Gaur, Bermeo ikertuko dogu.

Pozik goaz berebilean. Berak Bizkaiko herri ospetsu hori ikusiko dualako ta nik antzinatik ezagutu neban herri maitea, barriro iker-tuko dodalako.

Mungia igarota laster Solluben gagoz. Orain aldatz behera.

Bat-batez, bidea ukondo bat eginda, hantxe, aurrean, eguzkia itxasotik urtenda dakusgu. Harrituta geratzen gara; hango edertasunak ixilik utziten gaitu. Eguzki ahaltuak, eguzki erregeak, itxasotik altzetan dau burua. Eta beragandik eta gureganantz urregorritzko bide dizdiratsu zabala agertzen jaku.

Neuretzat, eguzkia, itxaso ondoan egoten danean, beti izan da zerbait ituna. Eguna amaitzen doa... ta azkenean laino gorritzen artean, itxasoak, eguzkia iruntsiten dau.

Hemen barriz dana poztasuna, dana da alaia. Itxasoak sortzen dau eguzkia! Eta bide zabal dizdiratsu hori! Nik gura neuke bide horretatik aurrera, uger egin, atsedean gabe, eguzkia heldu ta besarkatu arte...

Bihotza gartsu sentitzen dot barruan...

Itxasoak eguzkia sortu! Hauxegaitik bermeotarrak ete dira hain kementsuak eta itxasgizon azkarrak?

—Inoiz ikusi dozu eguzkia itxasotik urteten? —diñotsat Jon Anderreri.

—Ez, baina niretzako ez da gauza harrigarria. Ez dinozue, hemen, itxaso barruan Begoñako Ama Birjiña, Jaungoiko-Amaren irudia, itxas barruan daukazuela? Bera da Egunsentia. Beragandik sortu jakun Zuzentasun-Eguzkia!

Hango edertasunak eragin deutso zoramenezko erantzuna.

* * *

Enparantza zehartuta kairaino heltzen gara. Hantxe ikusten dogu batel bat kairatuta, mailetatik gora atun baltzak dakarrezala.

Euskera baino ez da entzuten.

—Zelan ete da hauxe? Hemen danak euskeraz egiten dabe, eta beste herrietan ez hainbeste.

—Bermeotarrak abertzaleak diralako.

Atzerritarrak honaino heldu arren, alboetako baserri ta uriak babesten dabe uri hau.

Oldoztuten geratu gara luzaro.

—Bai, bai —dino Jon Anderrek. Alde guztietatik jaukituta, hemen gogortu zan geure elea.

Bizkaiko lurretatik gehien gehien itxaso barrurantz aurreratzen dana, Bermeo da.

Hauxe da geure Macchu Picchu.

Inka gaixoak, espainatarren indar-sartzeen aurkatz, beti atzerantza ta gorantza heldu ziran azkenen zokora.

Euskaldunak bardin, baina hemen ez dago Macchu Picchu moduko mendi gorengorik, horregaitik hemen itxasorantz... Hauxe da geure azken zokoa.

* * *

Erabagi dogu gorantza igotea uria ikusten.

—Antzinakoa da uri hau?

—Bilbo baino lehenago eregi zan. Erdi-aroan ezagunak ziran Bermeoko burdinolak eta ontzigitzak. Fernando III Deunak bertan egindako ontziakaz, burruka egin eban, Sevilla, moroen eskuetatik askatzeko.

Amerika aurkitu ta gero, hemengo itxasgizonek Elkano eta Magallanes lagundu ebezan ludiari bira emoten. Eurretatik, izen bat badakigu: Akuriotar Jon.

Arrantzale azkarrak ziran bermeotarrak, makalaua bila joanez gizon trebe horreek Terranova Colonek Amerika baino askoz aurrerago aurkitu eben. Baleak harrapetan be berezikoak ziran.

Horregaitik Bermeoko ikurdian hiru gizon, balea ganean ikusi daikegu.

—Ikurdi horrek zeozer gehiago dauko?

—Bai. Goian agure burua, gero beherago otso bi, bakoitza kurubil baten sartuta.

—Ai! Hori ederto dago. Otsoak banan banan kurubilan sartuta, badaezpadan...

Hizki batzuk be ba daukoz: “imprimir Bermei stemma proderi”.

* * *

Hizketan, hizketan, Eupeme Deunaren txadonara heldu gara.

Eleiz ederra, godoen tankeraz erekia. Barruan begiak berez doaz berin-leihora, Fernando Catolikoa foruak zin egiten. Bai, polita da, baina nik kasu handirik ez deutsot egiten. Atzerritarraren zin-eginak ezin leikeguz sinestu. Isabelek bertan zin egin eta gero “Cardenal Cisneros” alduna egin eban, hemengo eztabaida konpontzeko.

Cisnerosek begi zoliaz igarri eban, eusko enda Euskalerrian bizi dan artean Espainaren jabetasunak, hemen beti izango dauzala etsaiak.

Horregaitik asmatu eban hemengo lagun talde handiak Andaluziara eroatea eta beste horrenbeste lagun, handik hona ekarri...

Ez naz gomutatzen orain zein herritan (Zestonan ete zan?) ibilke-
ra luzea eginda gero, zaldiak aldatu ta atsedenduten geratu ziran Isabel I ta bere laguntza; honeen artean egoan bere ohartzaile, Cardenal edo horreetariko bat (Foruak zin egiten etozan). Herri-
tarrak Erreginagaz nor etorran jakinik, Cardenal horri, atzera bihur-
tu eragin eutsoen. Eta joanda gero, berak zapalduriko lurra erre eben, bidea garbitzeko. Erreginaren laguntza ikaratu zan benetan...

1340 urtean Inglaterrako Eduardo III erregeak, lurrez eta itxasoz burrukan sarritan ibili zanak, Bermeogaz alkar antolak egin ebazan alkarregaz bakean egoteko.

* * *

Gure berbaldia jarraitzen da.

—...Eta zelakoak dira hemengo andreak?

—Emakumeak? Gizonak baizen kementsuak. Jazoriko bat edes-
tuko deutsut: antzinatxuan Jauntxo-aldia (Dictadura) baino lehen-
txuago erregezaleak etorten ziran hemengo autarkiak euren aldez ba-
tzeko itxaropenaz eta hitzaldiak botaten ebezan.

Baina hitzaldien erdian andra batek abotsa altzetan eban:

“—Txo, uger eiten bakizu?”

Errez igertzen zan euren asma: andreen artean hartu eta bota itxasora. Eta inoiz egin eben.

Beste jazorikoa: hau Franco aldean. Rufino berebilaria zan. Egun baten bere nagusiak hona etorri behar izan eban, eta Rufinok berebilean ekarri eban.

Bere lekuan itxita, alditxo bat euki eban aske ta uritik inguru bat egiten egoala, iraun-olaraino heldu zan. Leiho batetik lurpeko lantokian hainbeste neska ta andra beharrean ikusi eban. Nahiko argi egoan han behean, goiko aldean leiho asko burdinezko taketaz hesita eukazalako. Leihoak zabalik egozan, baina beheko emakumeak kalean igaroten zana ezin eben ikusi. Espetxe antza eritzon gela handi ha eta hantxe egozan andreak, beralako euskaldunak eta abertzaleak aurki. Gehiago pentsatu barik, leihoko burdinak oratuta, makurtuta, hasi zan abesten: "Askatasun eguzkia basotik urten da". Hango abots guztiak bereagaz unean batu ziran. Itxasoko hotsa baino handiagoa zan hango barrunbota, ta etxe guztia dardaraz egoala uste eban berak. Ikaratu zan: zer esango eban bere nagusiak entzungo baleu? Arin ajenatu zan.

Emakumeak, eregitea harturik jarraituten eben, gogotsu, abesti aberkoia.

* * *

—Zuek sarri askotan erabilten dozue hitz hau: enda. Horregaitik esaten dabe endazalekeria dozuela. Zuk, zer diñozu horretaz?

—Gauza guztiak luzeeran daukiez mutur bi: hasikera ta amaikera. Enda maitatzeak bardin. Bata: endaganako ardurarik ez. Bestea: norberen enda onena ta mundu guztiaren jabe ta nagusia izan behar dala (Hitler).

Zintzotasuna dago erdian.

Enda, geure sendi handia da. Sendia etxe baten bizi dan lez, eusko enda, Euskalerrian.

Sendi barek ondasun eta etxealde asko daukazanean morroiak kanpotik hartzen dauz. Ugazabak, bigunez eta maitasunez hartu behar dauz, eta etxeko sendiak, bardin. Baina seme-alabak beti izan behar dira, morroiak baino lehenago. Ezta?

Zoritxarrez heldu leiteke aldi bat, kanpotarrak indarrez etxe hatan nagusitu leitekezana. Orduan zer?

—Orduan, etxeko sendiak, inoiz baino alkarren maiteago.

—Horixe!

—Kristinauak garan ezkeru, ez dogu inor gorrotau behar, baina geure sendikoak maiteago izateko, nor galazo?

Urteak joan urteak etorri, geure enda atzerritarraz nahastatu da.

Endazalekeriaren bildurrez, hori ontzat hartzen badogu, eunki batzuk barru Euskadi gomuta bat baino ez da izango.

Gure enda-maitasuna hobena da geure zapaltzaile begietan.

Baina guk Barrionean irakurri daikegu, Joseba Deunaren etorkia. Eta behean ohar bat: Joseba Deunak zintzoa zalako, ohitura zan lez, etxadiko neska bat emaztetzat hartu eban. Horregaitik dakigu Jesus geure Gaizkalea, Daviden semea zala.

* * *

Atalaiaraino heldu gara. Leku honen ederra!

Zugatz tantaien azpian jesarleku asko, zurez eraztutako aulkiak, ondo margoztuta. Gu ertzeraino goaz, itxasoa hobeto ikusteko.

Han, Izaro ugarte dago. Ugarte hau ikusten dodanean burura etorten jataz beti Adolfo Larrañagaren neurtitzak:

Las noches de luna llena
se ve como una ballena.

Gazte nintzanean, bikote hau barregarri neritzon baina orain guztiz irudizkoa dala uste dot.

—Ugarte horrek bere, badauko bere atzea, ezta?

—Bai. Hor lekaidetxe bat egoan. Prantzikotar lekaideak, araudi zuzenak jarraitzen ebezan: txiroak ziran, euren ateak beti zabalik eta itxas-txoriak erkideaz ebezan etxe barruan, eta txoriak euren lagunak ziran jaten ebenean.

Askitzak edo ipuinak, be, badagoz. Esate baterako: Anai gazte bat ei egoan, lekaide ala herri-gizon izateko eztabaidan. Egunez lekaideak az otoi ta lana, baina gabaz ixilik eta inork jakin barik, uger egiten eban Bermeoraino bere maitetxua ikusten.

Gau baten ez zan maiteagana heldu ta biharamonean lekaidetxean be ez zan agiri. Izaro urrun dago ertzetik, eta itxasoa batzutan hain hasarre egoten da...

* * *

Jon Anderrek ingi-orri txikitxu bat atarutzen dau ta ha irakurrita diñost: Torre Erzilla. Ondino hau ez dogu ikusi.

—Itzultzean ikusiko dogu, astirik badago. Badakizu Gorlizen gu itxaroten egongo dirala bazkalorduan.

—Zelakoa da, ba, torre hori?

—Hargintza ederra, hormaldi sendoa.

Sualdiak egon dira Bermeon hiru biderrez uste dot. Horretariko bigarren aldi, etxe guztiak erre ziran. Zutik eta osotasunean, baka-rrik Eupeme Deuna txadona ta Erzilla Torrea geratu ziran.

Gura badozu orain Erzillatzaz hitzegingo dogu.

Zuk jakingo dozu Madrilen jaio zala, 1533garren urtean. Abizena euskotarra eukan. Bere senideak ikasdunak ziran. Ondino umea zala Virgilio ta Lucano irakurten ebazan. Erregearen semearen laguntzaz Londresera joan zan. Baina bere gogo, urduri ta arriskuzalez, baimena eskatu eban Ameriketara joateko.

Hurtado de Mendozagaz Hegoaldera joan zan Araukotarrak bakeztuteko. Zer ikusi ete eban han? Zelakoa ete zan bakea lortzeko era? Larehun urte igaro ta, ikusi dogu ondino berrogei urtetan, zelan eskuratzen daben bakea: Hildegiko bakea! Hilerriko gentza!

Ezin jasan hainbeste alperriko ankerkeriak. Haren aurka jarrita, berak be, hilteko epaia irabazi eban.

Epai hori ez zan bete, baina espetxeratu eben. Askatasuna lortuta, Limara joan zan handik Europara itzultzeko. Alemania, Austria eta Italiatik ibili zan. Azkenean Madrilen geratu, eta Chileko aldiak, gomutatzen *La Araucana* idatzi eban. Espainako guda-eresirik onena. Baina ez espainatarrak goraltzeko, araukotarrak baino.

Hogei urte behar izan eban guztiz amaitzeko. Caupolican, Lauzaro ta Colocolo eginkariak edesteko.

Pablo Nerudak espainatarren aurkaz idatzitako neurtitzetan diño: Erzillak bakarrik ez eban odolezko txolan edan.

* * *

—Goazen oraingoan bitxabaletik gora. Gauza ikusgarriak dagoz itxas-ertzean.

—Baina belu egingo jaku... Ez, hobe izango da berebila itxi dogun lekura itzultzea, holan arinago egin leikegu azkenengo iker-taldi hau.

Bakiotik Bermeora gatozanean, beti egiten doguz hiru geldiuine: lehenengoa Ama Birjina itxasperatuta dagoan lekuan, Gaztelugatxe parean. Bigarrena 1913ko ekaitzaren gomutagarri aurrean, eta hirugarrena Naparra itxasontzia ondoratu zan lekuan. Geldialdi bakoi-tzean, jasoriko hataz oroitu, ta otoi bat astiro ta bihotzez esaten dogu. Hori da geure gurutzbide aberkoia.

Lehenengo geldi aldi itunak eta azkenengoz alaia egingo doguz; heriotzaren ostean berbizkundera datorran lez.

—Kai aldean ontzi asko ikusi dodaz. Lanari uko egiten dabe? Ala oporretan dagoz?

—Nik, euren joanaldia eginda, atsedentxo bat hartzen dagozala barriro lanean hasteko, uste dot. Ontzi asko ikusi dozula diñozu; badakizu zenbat ontzi daukozan Bermeok? Berrehun eta berrogeta-marren bat inguru. Horregaitik kai-alde handiagoa behar dabe, portu txikia ta portu handia, hainbeste batelentzako ez dira nahiko. Ugana geroago ta luzeago egikuntzan beti dagoz.

Hemen sartu ezinik ontzi batzuk Bilboko portuan geratzen dira. Batzutan, batzuk, beste batzutan, bestek.

—Halan bada, poztuten naz. Tamalgarria da gehienetan ontzi asko kaian lotuta ikustea, edo lan-etena edo lanik eza esan gura daua-lako.

—Hemen ez dago holakorik. Batel asko portuan uriaren aberas-tasuna da.

—Izpegi ederra: Bermeoko kaia!

—Bai margolariak ondo dakie hori. Zeinek ez dau hemen so luza-ro egin eta euren lauki ederrenetarikoak lortu?

Etxera joanda erakutsiko deusut Carbonellen ingurraztian, Bermeoko kaietzaz hamar lauki: itxasgora, itxasbehera, dizdirak eta abar.

Nik bere, margoztuten hasi nazanetik, asti orduetan, sei biderrez egin dot Bermeoko uria: kaia, atalaia, enparantza...

—Bilbotarra izan arren, zuk asko maite dozu uri hau.

—Bai, egia da. Hogetamahirugarren urte inguruetan, hizlari nin-tzanean, gau baten hemengo antzeztokian hitz egin neban. Ni baino aurrerago Julio Jauregi Jaunak (G.B.) hitz egin eban. Zenbaketazko ardurazko lana, guztiz ona, garrantzitsua, baina erderaz egina. Amaitu ebanean txaloak jo eutsiezan, baina hotzak... Ez hainbeste...

Gero nik euskeraz hitz egin neban. Zer esan neban? Ez gauza han-

dirik; baina nire bihotzak bermeotarren bihotzakaz batera taupaka egin eban. Neuretzako bai izan zirala txaloak.

Dana amaitu zanean, urtekeran, kalean jende asko egoan, gu itxaroten, eta gu igarokeran, osterara be txalo beroak...

Txalo aldi hareek kalean, bihotzera heldu jatazan. Askotan gomutatzen naz: gorapena ezagutu dot, bermeotarren artean.

Osasuna, maitasuna, gorapena... Hiltea ez jatan ardura, gauzarik onenak dastatu nebazan eta...

Ordutik hona berrogetamarren bat urte igaro dira, orain ikusten dot neure bizitza osoa ez zala. Ondino mingotsa ta samina ezagutu behar nebazan.

8. ¿QUIERES TRABAJAR CON NOSOTROS?*

¿Era un sueño? Me parecía hallarme en un garage amplísimo o más bien en una vasta caverna, apenas alumbrada por la antorcha que llevaba mi extraño acompañante. Este se inclinó y cogió del suelo un aparato consistente en un tubo cilíndrico que se sustentaba sobre tres paletas y cuya parte superior cónica, terminaba en una aguja. Entonces me di cuenta de que por el suelo había infinidad de torpedos semejantes.

—¿Va a lanzar ese torpedo? —le pregunté.

—No es un torpedo.

Mientras sonreía silenciosamente, colocó el aparato de postura conveniente y con una astillita que encendió en su tea, le aplicó la llamita por la parte inferior. Yo me preparé a soportar la terrible detonación tapándome los oídos y abriendo la boca pero para asombro mío, no hubo detonación, aunque el torpedo subió con una rapidez vertiginosa. Allá en lo alto se encendió una luz verdosa mucho más potente que una bengala y a su claridad observé que no estábamos en una caverna ya que se veía cielo, los montes se recortaban más abajo y cerca de nosotros había árboles y follaje.

Al cabo de cierto tiempo, el artefacto, descendía y la claridad cesó. Cayó el cilindro de aluminio y se enterró en la tierra blanda.

—Se acabó el cohete —dije yo.

—No era un cohete, ni se ha acabado —dijo el encapuchado—. Tú no has podido percibir que cuando el cuerpo del aparato caía, se ha desprendido una especie de bala luminosa, incandescente que seguía su ascensión con la velocidad de la luz.

—No, no lo he visto —dije yo—. Y ¿qué es? ¿Es un satélite artificial?

Sonrió la cara austera bajo la capucha.

—Su destino es mucho más alto que dar vueltas alrededor de este pobre planeta.

* Narrazio hau ametsetan izan eban idazleak. Izartukeran jarraian idatzi eta holan geratu zan.

—¿Es pues un minúsculo cohete que va a la luna?

—Más alto, mucho más alto.

—Dígame, no lo comprenderé si no —le rogué.

—Esa centellita incandescente, marca al centro de donde salió; nada detendrá su marcha hasta llegar al manantial eterno de luz y fuego, al sol.

De la misma manera que el anterior encendió otro cohete que ascendió. Cuando allá arriba brotó la gran claridad, esta vez rosada, miré a mi extraño acompañante. ¿Quién será éste? —me preguntaba yo—. ¿Un derviche del desierto? ¿Un monje tibetano?

—Sígueme ahí —ordenó.

Avanzó él primero, llevando su antorcha encendida delante, yo seguía a la sombra que proyectaba su cuerpo.

El sendero era algo inexplicable, algo irreal, se tenía la sensación de andar sobre nubes algodonosas.

—Marchamos sobre el tiempo, no sobre el espacio —me dijo mi guía sin volverse.

Cuando se detuvo y se volvió con su antorcha, pude ver perfectamente donde nos encontrábamos. Siempre sobre el suelo la misma infinidad de torpedos o cohetes, pero ahora había muchos hombres vestidos de una manera semejante a mi guía, aunque la capucha echada a la espalda dejaba ver las cabezas descubiertas. Todos trabajaban entre los torpedos. Algunos cerca de nosotros desenterraban algunos de estos artefactos, que estaban casi hundidos en el fango.

—¿Es que estos también pueden valer aún? —pregunté.

—Sí —me contestó.

—¿Es que la carga de pólvora, dinamita, trilita o lo que sea no está ya mojada e inútil? —insistí.

—Estos se lavan, me contestaron amablemente, nosotros los lavaremos con una agua preciosa. Se secarán al sol, manantial de vida. Luego se encenderán y subirán muy alto...

Más allá en una especie de central eléctrica, otros hombres, pulsaban botones, que actuaban por percusión sobre los detonadores de otros cohetes que también ascendían...

—¿Quieres trabajar con nosotros? —me preguntó mi guía y entonces observé que sus manos y sus pies estaban estigmatizados y que las llagas eran luminosas.

—Yo sí quisiera, pero no sé nada, no entiendo nada —contesté.

—Yo te explicaré la alegoría que has visto. Los torpedos, los cohetes como tú los llamas, son los hombres. Todos esperan la llamita de la fe cristiana para remontarse. Los que ascienden por medio de esa llama iluminan a su vez las tinieblas de los otros. Luego el cuerpo cae y se entierra; es cuando el alma se desprende como bala inflamada y va al encuentro de la Vida, a fundirse dentro del manantial de luz increada de donde salió. Hay que sacar del fango los que están hundidos, lavados con la preciosa sangre de Cristo en el Tribunal de la penitencia y secados al calor de la Eucaristía, pueden ascender como antes de haber caído. Los que trabajan en la central eléctrica son los que escriben revistas y libros buenos que desde lejos hacen vibrar las almas y elevarse. ¿No conoces a algún compañero que anda por malos caminos y va a hundirse en el fango? ¿No quieres atraerlo con tu amistad y tu buen ejemplo? ¿No quieres encenderlo con la llamita de tu fe? Si lo haces, tú verás como va subiendo, va elevándose. Tú puedes muy bien trabajar así. Necesitamos obreros del bien. Ya nos dijo el Divino Maestro con otra alegoría: “La mies es mucha...”. ¿No quieres trabajar con nosotros?

9. ITXASOAN GALDUA

—Zelan batu dozuz hainbeste? Laster beteko dozu zorrotxua.

—Bai, baina ni goizetik etorri naz, zu baino lehenago.

—Ni, ordu erdi nabil atzera ta aurrera, harea busti artetik, eta lau baino ez dodaz harrapeu.

—Badakizu zelan egin behar da? Egon adi adi, ta ikusten dozu-nean pusikatxu bat eztanda egiten dauana, hantxe harea aldenduta topauko dozu bat.

—Ia ba. Hortxe pusika eztandu. Atzamarraz zulatu ta... Hemen dago txirla eder bat. Hor beste batek haizeaz zulatuten dau harea. Etorri zorrorra, zu bere. Hara, hor beste bat. Hatoz ona polit hori, zeure anaiakaz gudaroste indartsua egingo dozue, erbestetuaren gosea hiltzeko.

—Hitz labanakaz ez lilikatu, gero lapikoan dirakin uraz egosteko.

—Honek jakingo dau honezkero, ta ezbadaki, orain ikasiko dau, lurrean be, itxasoan letxe, handiak txikerrak jaten dabela.

—Eskerrik asko Karmele, orain uste dot, neuk be, arrozagaz eta perxillegaz apari gozo egingo dodala.

Hiru ordu lauren igarota, Mertxeren zorrotxua be, ia beterik egoan.

Capbretoneko hondartz zabala, jende gabe egoan. Gero mutil baztuk agiri ziran, haize-parpalaz, bata-bira. Frantsesez hitz egiten eben. Eta guda-erbesteturiko anderen ondoan igarotean, destainez *Chercheuses* deitu eutsen.

—Eta zu, lapurren semea, erantzun eban Mertxe. Baina berak ez eban ulertu.

Karmelentzat be, blaustada baizen mingotsa izan zan arren esake-ra, baina ixildu zan.

Emakume bieri pasa jake, egun hartako txirlak batzeko gogoia, eta hasi ziran oleatuak puskatzen ziran ertzatik ibiltzen.

Uhinak bigunkiro eurekana helduta, handiren oin-hutsak, mun egiten eben.

—Hau bere, geure itxasoa da Kantauria; baina itxasertza ez da geurea lakoa. Han, hatxak, hemen hondartza leuna...

Ez hainbeste. Ikusi hor altzetan dira hatxak; ez guztiz andiak baina bitarteko haitz batzuk. Guazan haraino.

Haitz haretan mutxiloï ugari ziran.

—Batuko doguz Mertzxe?

—Gaur ez, itxi beste egun baterako.

Ukondo haretan itxasoak ekarririko harriak ugari, baita itxas bedarrak hare artean. Botilla baltz bat, erdi lurperatua, altzetan eban samea, txorkoaz estalduta.

Bere baltzetasunak ager-erazten eutson. Eta urrunetik oiñu egiten eutsen bidariai: “Ez nozue ikusi? Ni hemen nago zuen begira”.

—Osorik dagola esan lei. Karmelek apur bat sakondo bere inguruan, eta: bai, osorik dago. Zelan ez-ete-da hausi hatxen artean?

—Baina beitu, paper bat dauko barruan.

—Zabaldu ia zer dan.

—Txorkua, ezin dot atara.

—Ekarri niri! Ez ba, neuk be ezin dot.

—Hatxaren kontra jo! Ikusi behar dogu zer dan.

Botilla puskatuta, ingi-orri batzuk, ondo tolestuta atara ebezan Euskeraz idatzita! Ezin sinestu, begien aurrean eukena.

—Ia ba, hasi hasikeratik.

Hauxe da hasikera:

«Guraso maiteak bizirik nago.

“Itxasoko Izarra” hondatu zanean, ola baten ganean, luzetu nintzan, ondo oratuta uger egin barik.

Hirugarren egunean, ugarte onen hondartzan, itxasoak itxi ninduan. Hemengo biztanleak zainduta laster osatu nintzan, ta hemen nago. Danak dira onak. Nik irakasten dautset zelan egin gauza batzuk eta buruzagi lez nauke. Arkondara poltsan euki neuzan orritxu honek eta lapize punta bat, halan ba ikusi dodanean botilla hau, ez dakit zelan etorrikoa (kosta jat jaubetutea) pentsa dot zuberi idaztea.

Hor doaz ba, orritxu honeek, mosu handi bategaz Bermeorantza bidaltzen dodaz. Agur. Laztanduten zaituet, Patxi».

—Ikusten dozu!... Une baten, batak bestea begiratzen, eta ezpanak luzetuta estu-estu, burua gora ta behera eragiten, geratu ziran, ezer esan barik.

—Holakorik!

—Nozkoa ete da?

Guk ez dakigu ezer. Gizonai eroango dautsegu. Eurek jakingo dabe hobeto honegaz zer egin behar dan.

Asmo honegaz etxerantza abiau ziran arin-arin.

Kalean gora kalean behera ebiltzan gizon gazteak. Hego aldeko izparrak geroago ta txarragoak ziran. Dana galduta!

—Bai da tamala!

—Eta gu zer? Zer egin geinke?

—Batzuk Ameriketara joateko ustea. Baina beste batzuk diñoe: «Itxasorantz begiratzen daunak! Txerrenak!».

Halan inarduten egozala, Iñaki ta Jon ikusi ebazan, andreak artega ta arin etozela eurekana.

—Zer daukozube horren larri etortzeko?

Beitu botilla baten barruan zer aurkitu dogun!

Eta paper-orriak atarata emon eutsozan.

—Hum —egin eban Jonek orriak irakurrita ta gero—. Honek behintzat topa dau ogibidea.

—Bai baina, horretarako... horretarako, lehenengo itxasoan galduta izan behar zan, erantzun eutson Iñakik bere lagunen sorbalda ganetik orriak irakurrita.

Jonek andreari orriak bihurtu eutsozan.

—Eta halan geratzen zarie hain trankil? Ez dozue ikusten orri honek Bermeora eroan bihar dirala, ta han bilatu "Itxasoko Izarra"n galdu diranen senideak, eta itandu Patxiren gurasoak nun bizi dira, ta eurekana paper-orriak eroan...

—Capbreton ez dot uste bermeotarrik dagonik. Horretarako Donibanera joan beharko da.

Gizonen gogoaldia ikusirik andreen alaitasuna hotzitu zan, baina Karmelek, behintzat ez eban galdu orritxu hareek Patxiren gurasoen eskuetan ipinteko erabakia.

—Baionara joan behar dot Madameren jersea egiteko lehenak erosi behar dodaz; honeetariko kolorerik hemen ez dago, esan eutson Karmelek gizonari larrosa-kolorezko olarra erakusten.

Iluntzerako atzera etorriko naz. Bazkaria eginda itxi dautsut: baba-lekak, patatak eta txarri-kaderak. Berotu baino besterik ez dozu behar. Tomateak be badagoz.

—Ondo dago. Geroarte ba. Ez berandu etorri.

Alkar laztanduta, joan zan Karmele autobusen geldokira.
Ordubete barru Baionara helduko zan.

Lehenak behingo baten erosita gero Donibanera joateko asmoaz.
Hantxe bere senide batzuk bizi ziran: izeko ta, lehengusu-lehengusi-
na eta abar.

Itxaroten eban Mikelek kapitana, ontzi gidaria zanak bere gizona
baino txera hobea egingo eutsela, botilan aurkituriko orritxuai.

Ez dakigu nundik eta honaino, zoriona izan dabenak, ez doguz
itxi behar azkenengo bide laburtxu hau, egin barik.

Guraso zaharrentzat zelako poztasuna izan behar da, hildatzaz
euku semea, bizirik eta ondo egoala jakitea.

Lehenengotarikoa helduta, leku ona topau eban leiho ondoan, eta
handik adi adi egoan besteak esaten ebena ulertzeko. Bape ez eutson
ardura hareri zer pasetan jake; bakarrik aditu eban atzerrien elea ikas-
teko.

Baionara helduta, laster erosi eban larrosa kolorezko lenak, margo
oso polita zan. Madamentzako, nahiko lodia zan eta, hamar ilari
beharko ziran. Berak emondako diruaz ordaindu ebazan, baita joan-
-etorri kostea be.

Erbestetukoak, halantxe burua ataraten eben: andrak ehungintzaz
eta gizonak lur-lanetan lagunduten, baina dana ixilka.

Frantziak hartzen ba eben guda-atzerrituak, txangolariak, ikuske-
lariak lez, bakarrik hartzen ebazan. Dirudunak, bizitzeko beste euki
ebenak. Hantxe lan egitea debekatuta euku.

Madame Laborde izan zan, eurek bizi ziran etxetxuko jaubea, ta
Karmelek egindako jersei eta jantziakaz bere adiskideari bekaizkeri
emoten eutsen, egundo esan barik nundik atara ebazan soineko hare-
ek.

Donibanera helduta, bere izekoren etxerantza joan zan. Baratz
txiki baten atzean bizi ziran izeko ta lehengusuak. Hareek be erbes-
tetuak. Mikeleri, lehengusu nagusiari batez be, gura izan eban
Karmelek, botilan aurkituriko orritxuak erakustea.

Eguberdia zan. Gozo-toki baten, opilgozo hamabikoa erosi ta
ordu baterako senideen ateko txilina jotzen eban.

—Ene Karmele! Ongi etorri! Antzinatik ez zaitugu ikusi! Aurrera,
aurrera!

—Egunon izeko —ta mosuak alkar.

—Ze pozik nago zu ikustiaz! Ontxe bazkaltzeko egon gara.

Miren ipini beste azpila ta honentzat. Zelan honaino etorri?

—Baionara lenok erosten etorri naz eta pentsa dot apur bat gehiago ibili ta zubek ikusi ta agurtu.

—Ederto, ederto!

Mahai inguruan jazarri ziran eta bazkaltzen eben bitartean, gerra barri txarrak apur bat azterketuta, sendien barriak, alkar jakin eraziak, bazkaria amaitzen Karmelek pastel-bildura zabaldua, lehenengo izekoari ta gero lehengusu-lehengusinei opa eutsezan.

—Zetako ekarri dozuz? Gozo dagoz, baina orain diruari arduraz begitu behar jako. Hau barik be, zeure etortez, poza handia izan dogu.

—Ez dot hau bakarrik ekarri. Beste gauza bat daukot zueri emoteko, ta hau izango da zuentzako lana ta buruaustea. Eta hori esanda, aurkituriko orriak, atara ebazan. Txirlak batzen gengozala Capbretonen hondartzan hatxen artean, botila baten barruan, orri honeek aurkitu doguz. Zer deritzozue? —eta Mikeleri emon eutsazan.

—Hum! —egin eban honek, behingoan irakurrita, —ipuin polita deritzat.

—Ia, ia esan eban Mirenek ekarri niri. Eta goraki irakurri eban dana.

—Holakorik! esan eban izekoak.

—Jazoriko sinestu-ezina! —adirazo eban Mirenek.

—Neure ustez, orri honeek, bermeotarren eskuetan ipini behar dira, gainetu eban Karmelek. Eurek erraz aurkituko dabez Patxiren gurasoak, euren eskuetara orriak eroateko. Hemen bermeotarrak dagozala entzun dot.

—Bai, ba dagoz. Kai ondoko ardantegian, batzen dira iluntzean, hemengo arrantzaleakaz.

—Orduan, zuk, Mikel, eurekana eroango dozuz.

—Bai baina. Beste aldera pasetako ez da izango erraza. Hau, bakenpora balitz edozelan. Baina denpora honetan... Orain...

—Zuk eroan bermeotarrakana. Eurek erabagiko dabe. Bulartsuak eta adoretzuak dirala beti entzun dot. Eta euskotarrak diranez, urtesuentzako, lotsa ta maitasuna ugari izango dabe bihotzean.

—Ugarte haretatik eta Capbretonera etortea izan ba da. Handik eta Bermeora heltzeko, ez da izango errazagoa.

Mikel ardantegira heldu zanean, arratsaldean, inor be ez egoan, mahaitxu inguruan, ondino goiz zalako.

Jaubeagana helduta azaldu eutson bere lehengusinek ekarririko orrien kontu hasiera.

—Nik egia esateko, ez dot ikusten argi, arazo hau egiazkoa dan ala zalaparta baino ez. Baina nik agindu neutson bermeotarren eskuetan ipiniko dodazala orritxuok, eta hemen izten dautsudaz. Zuk emon zintzoena danari, zeure eritiziz.

—Bai. Juanjori emongo dautsodaz, haxe da neure ustez, egi-zale gizona.

Eta han geratu ziran orritxuok.

Apur-apurka lagunak heltzen ziran; baina ez eben prisarik sartzeko eta ardauaz batera kartak eskatzeko, ohi dan lez, eguneko jokaldia hasteko. Atean geratzen ziran audiaka, eztabaidan, umore txarraz.

Ardolaria ateraino urten zan, eta esan eutsen:

—Albista pozgarria daukot zuentzat. Itota, hildatzaz euki dozu-bena bizirik dago.

—Hainbeste hil dira ta hainbeste ito dira! —erantzun eban batek, sorbaldak altzata.

—“Itxasoko Izarra”ko ontzi-mutilak ezetu dozuez?

—Hori antzinako kontua da.

—Patxi bizirik dago. Botila baten barruan, bota dauz bere albistak.

—Bah, bah... botilako kontua. Orain lan-gabe asko dagoz, astidunak, eta beta igaroteko edozer asmatzen dabe.

Ardantegiko jaubea barrura sartu zan, gehiago esan barik. Zetarako? Harentzat gizon bat hilda edo bizirik egotea, bardin zan.

Mikel kapitanari orriak bigurtuko dautsedaz, pentsa eban.

Baina nik agindu neutson Juangori emotea. Ondino Juanjo ez da etorri.

Gazteak euren eritzia baino besterik ez dabe entzun gura.

Gerotxuago Juanjo etorri zan. Berrogetamar urteduna gitxi gorabehera. Giltzetan uleak zuriak.

Atean egoenai “arratsaldion” esanda, barrura sartu zan, gazteak ez eukan alkarkizun handirik.

Bere lagunak ondiñn ez egoela ikusirik, salmahairaino alboratuta txikerdia eskatu eban.

Edontzi lodian ardaua botata “Izpar bat daukot zuretzat”, esan eutson ardalariak.

—Ixilka esango dautsut, denda ostera etorri.

Barrura sartu zanean, karta-azala ipini eban bere eskuetan. Han irakurten zan: “Patxiren gurasoentzat”. Mikelek halan emon eutsozan Capbretoneko hondartzan aurkituriko orriak.

Karta-azala begituta gero “Hau zer da?” itandu eban Juanjok.

—Jezarri, jezarri. Astiro esan behar dautsut: zuk ezetu zenduan “Itxasoko Izarra” n lan egiten eben itxas-mutilak? Patxi izan zan bat.

—Bai, ezetu neban, baina “Itxasoko Izarra” Dakarreko bidean atunetan joiala, hondatu zan. Patxi ta danak ito ziran.

—Hara ba, haren albistak, botilan sarturiko papertxuetan heldu dira. Hortxe barruan dagoz orritxuak.

Juanjok atara ebazan orritxuak (karta-azala ez egoan itxirik) eta irakurri eban astiro.

Begiak zabal-zabalik, bazter batera beitzen, burua gora-behera eraginda, une luze baten geratu zan.

—Zer pentsetan dozu? Egia izan leiteke, ala zalaparta baino ez?

—Nun topa dabe botilea?

—Capbretonen hondartzan, esan dautsut. Dakaretik Capbreton baino, hau dago hurrago.

—Baina nok esan dau itxasoa kartazain trebea danik? —Juanjo oldoztun egoan—. Patxiren aita ontzitegian harotza zan. Patxik bere hasikeran, han beharra egiten eban baina gitxi irabazten ebalta ta arrantzalea izatea gurago eban.

Ostera bere orriak astiro begitu.

—Ez dozu ikusten hau lapize lodiaz idatzita dagola? Arkondararen poltsan euki eban arkatza, aitaren arkatza, lapizen punta bat izan zan, urki. Harotzak arkatz lodia erabilten dabe beti... Zertzelada txikia da baina. Nik egia dala deritzot.

Eta egia bada, Anton Gabilondo ta bere andrearentzat, zelako gozagarriak izango dira orri honeek! Eurek ezetuko dabe izkia, bere semiarena ba da.

Gixajoak! Euren seme gazteena, gudan hil da.

Ahalegina egin behar doguz orriak eurekana helduerazoteko.

—Nik bete dot nire agintza, esan eban ardanlariak. Orain zuri toketan jatzu, gura badozu. Eroan orriak, eta zuk ikusiko dozu, zer egin behar da eurekaz.

—Bai, bai, ikusten dot... Baina ez dakit nundik hasi...

—Eroan karta-azala ta guzti. Poliki-poliki, arteztuko dozu arazo hau. Hau esanda urten zan dendara ta salmahaien atzean geratu zan, ardanlaria.

Juanjo be, urten zan bere atzetik, baina dendan ez zan geratu, kalera joan zan.

Ez eukan lagunakaz hitzegiteko gogorik be.

Etxerako bidea hartu eban.

Zelan egingo dot? Baten batzuri emon ala neronek eroan?

Behingo baten ezin erabagi.

Orain, ilun ikusten dot dana. Baina bihar goizean, lo egiten ba dot gabeon, argiago ikusiko dot dana, ta idoroko dot, Jaunaren laguntzaz, orriak Patxiren gurasoen eskuetan ipinteko bidea.

Berbiz

ARTIKULUAK



Euskal umeekin erbestean. Saint-Christaud (Haute-Garonne) (1939).

1. COMENTANDO*

En el pleito nacionalista que sostienen las naciones oprimidas, ¿qué felices son aquellos pueblos que, ya que no pueden convencer a los poderes públicos del derecho que tienen en sus reclamaciones, porque el interés les venda los ojos, tienen de su parte a los ministros del Señor, que convencidos de la justicia de sus aspiraciones les animan y exhortan a seguir por el difícil camino comenzado!

Son felices porque, ¿qué bien hermanan el sentimiento patriótico con el religioso! y ¿qué empresa será difícil para un pueblo llevado por ellos? Ved a Irlanda, donde el clero es patriota, con qué fervor lucha por la santa causa de libertar a su patria del poder de los protestantes.

Pero aquí, en Euskadi, no sucede eso, pocos son los religiosos que nos animan a defender nuestras doctrinas. ¿Nos van a decir, quizá, que nosotros no estamos en el mismo caso porque el estado que nos domina es «la católica España»?

Pero ¿es que todavía no se han convencido, de que el pueblo vasco, desde que está dominado por el estado español, desde que el erdera impera y se introduce en los más apartados rincones, va perdiendo su fé, su religiosidad, sus buenas costumbres?

¿No saben que el nacionalismo tiene como fin alejar a los vascos de la perniciosa influencia extranjera y llevarlas a Dios? ¿no saben que sus doctrinas han salvado a muchos jóvenes de perderse ahogados en ese ambiente saturado de vicios importado por España?

¿Por qué no nos secundan, pues, ellos, en nuestra campaña moralizadora?

Será, quizá, porque ocupados en otros asuntos de Dios no hayan tenido tiempo de estudiar el nacionalismo, la idea que va tomando tanto incremento que hoy domina en el pueblo vasco.

Quizá sea prudencia, temor de molestar a los extraños, defendiendo nuestra causa a pesar de ser tan justa...

Ignorancia o prudencia, tendremos que resignarnos si no quieren mezclar los asuntos de Dios con cuestiones de los hombres.

* Artikulu hau "Colaboración femenina" izeneko atalean U.T.S. moduan sinatuta argitaratu zan, baina «Utarsus» bera da artikuluaeren egilea.

Pero a lo que no podemos resignarnos, de lo que protestamos con toda nuestra energía de vascos y de cristianos, es de que en el templo, haga uso el orador sagrado de la palabra de Dios, para consolidar en nuestra patria la denominación españolista, esa denominación por la cual nuestra raza se está perdiendo física y moralmente.

Protestamos de que se use la palabra de Dios para inducir a error a quien no está enterado, y para, en aquel lugar de recogimiento, levantar una tempestad en el pecho de los patriotas vascos.

Si como hombre, sostiene la equivocada teoría españolista, haga el favor de no defenderla en el templo, donde, por respeto al lugar, no puede contradecírsele, sino en la prensa u otro sitio donde se puedan refutar sus argumentos.

2. JAZORIKOA

Ez dozue entzun ene irakurleak lehengo egunean geure herrian jazo dana?

Hemengo langile batzuk, beharra lagata olatik urten, eta euren etxeetara heldu baino lehenago, ardantegira sartu ziran, alkarregaz ardao pizkat edateko asmoz. Han geure elez barriketan iharduela, ohi dan lez atzerritar bat sartu zan, eta jakina, ez eutson ondo eritxi euskeraz egiteari, ez, ba, abo guztientzako eginekoa ezta bera be ez da-ta, ta eurakana joanda esan eutsen, bere aurrean ez erabilteko basatien (*salvajeen*) hizkerarik.

Geureak be mutuak ez ziran-ta, adoretzu ta giza-legez aldeztu eben erabilen euskera ederra.

Lehenengo urten zan atzerritarra makaldutera joiala ikusita, beste euretar batzuk lagundu jakozan, alperrik, baina, euskeldunen alde urten ebenak gehiago izan ziran-eta.

Azkenerrako sortu zan sortu behar zana; burrukea, gudea! Han izan ziran *galopadak*, arrapaladak!... Zer izan zan hango apatxotsa "Agerre"tik aurrera!!...

Hauxe da jazo zana. Zer deritxazue?

Tamalgarria ta lotsagarria dala dinoe batzuk, nik baina besterik dinot, burrukaldi hori, euskaldun orontzat dala onuratsu-onuratsua.

Zer ba!... Gura daben guztia esaten itxi? Ez holakorik, aldeztutea aske dagon arte behintzat! Honelako ezбайдatxuak egunoro behar litzakez, zaurian ukutuagaz, zauriduna bizkortu egiten da-ta. Dakusgunez ba, geure-geurea dogun euskal ele ederra aldeztuteko, nok zirikatu behar dogu, ta egunoro zirikatu ezkerro ba, euskaldun odola bizi-bizi eginda, bere-bereak diran gauzak aldeztuten hasiko litzake.

Aitatu dodan jazokuna baino kaltegarriago dan gauzarik bada euskerarentzat; erderarako umeen artean sortu ohi dogun zaletasuna, euskerea inorako be gauza ez dan hizkuntzea dala sinestu-erazota. "Erderea apainagoa dala!..." "Jango dan ogia irabaziko bada, erderea behar-beharrekoa dala!..." Eta euskeraren arerioak dinoezan tentelkeri honeikaitik, hiltzen itxiko ete deutsagu, ba geure-geurea dan ele

maiteari? Arpegi itsusia dauan notin batek, beste batzuk baino itsusiago dalako beste zio barik, bere burua baino beste galantagoa deritxonarena maiteago dabela jakingo bagendu, zer esango genduke? Zoratuta dagoala!... Euskerea itsusia dala-ta beste geurea ez dan hizkera bat maiteago dauan euskaldunatzaz be beste hainbeste esan geinke; zoro-zoro bat dala!...

Euskerea geurea da, Jaungoikoak geuri emondakoa da euskerea. Beraz galzoretan, aldeztu egin behar dogu, lehentxuago aitatu dodazan euskotar adoretuak aldeztu eben eran; eta maitatu, zinez baina maitatu be, ez beste ele batzuk baino ederrago dalako, geure-geurea dalako baino.

Erderea "urretxindor"-abestia baizen txukun-goxo-polita dala, eta euskerea, negute gogorretan Anbotoko hatxetatik eta, beheko ibarretara jasten diran bela-abesti garratz-itsusiaren antzekoa?... Ez da ardura itsusiagoa balitzake be; maite izan daigun euskerea, geure-geurea da-ta!

Lemonatik, 1930ko urtarrilean.

3. IKASTOLETAN BI ELEZ

Askotan entzun dozue “abertzaleetasun barik euskerea ez da ezer”. Ez dira gogorregiak hitzok? Nik askotan entzun dodaz hitz horreek, baina gehienetan euskaldunak ez diran abertzaleen ezpanetatik eta bihotzean ezpaia sortu izan jat.

Euskerea! eusko-ele zaharra! Zer geratuten jaku gaurko euskotarra, geure asabak izan eben izakeratik euskerea baino? Askatasuna galdu, ekandu garbiak lohitu. Eusko odola inon badago abizen *euskerazkoak* iragarriko dabe.

Bai, euskerea eutsin egin behar da, zelan edo halan, oldozten neban, eusko endaren azkenengo iragarkia dalako.

Bergarako euskal egunean, leihoetan baita txegoetan irakurriten zan “Ikastoletan euskerea, euskerea nahi dogu”.

Otxandion bere ikastoletako bi-elereen alde hitzaldia egin zan. Holakoak ikusi ta entzunda, neure bihotza nasaitu zan apur bat oldozturik: Bizkaian euskal herriko auzo ikastoletan euskerea be erabilten da, edo behintzat kristau-ikasbidea euskeraz ikasten da, ta irakasleak euskaldunak dira.

Baina ordutik hona ikusi dot geure auzoko ikastola baten, euskaldun irakasle bateri etxean ikasiko kristau ikasbideko ikaskaia hartzen, eta neure bihotza tamal-mingotsez bete da.

Umeak egon ziran zutunik irakasle-mahaien inguruan. Lehenengoak pozik, garaileak; besteak itun lurrera begira.

Hona hemen: dinost irakasleak, gaurko ikaskaia jakin dabe erdaldunak (baita atzerritarrak be); euskaldunak ez dabe ikasi euren euskal ikaskaia.

Zegaitik ete...? begiratuten dodaz ume euskaldunak. Itun, lotsaturik dagoz.

Honek, Campionen Pedro Mariren antzez esango leukie “euskerea? ez baneki, hoba”. Erderazko ikaskaia, errazagoa, nik be ikasiko neban.

Erderaz errazago ume euskaldunentzat?

Esango deusuet.

Umeak ikasten dabe elea euren amaren ezpanetatik, baina ikastolara joan orduko ez dakiez euren bizitzan erabiliko dabezan hitz guztiak, ehun batzuk baino.

Ikastolara joanda hasten da euren gogoa zabaltzen.

Hasikeran umeak dagoz bildurtuta, ixilik. Irakasleak, euskalduna izan arren, irakatsi guztiak egiten dauz erderaz. Noz edo noz, ulertzen ez badau, egiten deutso euskeraz apur bat berari. Lehendik ikastolara hasi ziranak, nagusiak, gehien dakienak, baita irakasleak be, hartu-emon guztiak egiten dabez erderaz.

Urte bat edo urte bi barru, badakie erderaz, euskeraz dakien beste ume euskaldunak.

Ordurako ikasi dau irakurten ta idazten, eta orduantxe hasten da bat benetan, bere gogoa zabaltzen, landuten, irakatsi barriakaz. Ordutik aurrera ikasten dau benetan elea... ta zein ele? Atzerritarrena. Erdal-iztia, Espainako Edestia, baita Ludistia be zelan? Anei bider esango dau “espainatarrak ixan genduzan, ezpainatarrak daukoguz”...

Baina badago be kristau-ikasbidea euskeraz?

Bai, baina zetarako euskeraz? Ze gatxa! Hitz hareek berak ez dauz inoiz entzun: etxean ez, kanpoan bez, eta ikastolan bez. *Autortu, zinezkintza, agintzariak, etc.*

Apur bat apainduta dauko euskerea kristau-ikasbideak, baina umeak dakian euskerea, ez da landu, horregaitik ez dau ulertzen, ezin ikasi, berarentzako da aldatz-gora igon ezina.

Zer egingo dau irakasleak, abertzalea ez danak?

Bera da euskalduna, beharba ikasiko eban euskerea errazago lortuteko ikastolaren bat eta beragaz irabaziak... Zelan, abertzalea ez bada, maite izango dau euskera?

Berari kosta jakon ikastea, baita euren ikasleai, Gotzain agindua dala-ta euskeraz egin beharragaz kostaten jake asko kristau-ikasbidea ikastea. Ostantzean gauza guztiakaz badoaz aurrera...

Han dagoz sesinoan erdaldunak aurrean, garaileak.

Zer egingo jako, dino ikasleak, euskeraz gatxagoa bada? —Ba nik gura dot erderaz ikastea. —Baita neuk be... Euskerea zetarako?

Ez, abertzaletasunik ez badago, ez ikastoletan euskerea. Ez daitela urten ukuilutik, etxean bakarrik sukaldeko beroagaz, sendien maitasunagaz bizi daitela.

Orduan ulertu neban inoiz baino hobeto Sabinen negar saminak deadar egin ebanean “Hil aberria zakigu!”. Bai ama-euskera laztana, gurago leiteke zu hilda ikustea zure semeak honetara ezestea baino.

Ikusiko bazendu zure amaren argazki zaharra inoren eskuetan, eta zitalok antzinako eraz jantzita egoalako edo, zure amaren lepotik irri-

barre egiten, ez zeunke gurago argazkia erreta ikustea, haren eskue-
tan baino?

Ahaztu daitela guztiz euskerea, erabilten dabenak maite ez bada-
be. “Hil euskerea zakigu!”, “Eusko-abertzalen bihotzen beroak biztu-
ko zaitu!”.

1930ko XI-Ian

4. ¿CUÁNDO...?

Recogida en mi habitación después de la fiesta de Elorrio, aún veo desfilar en la imaginación aquellas banderas que bajaban de Besaide... ¡Qué emoción ante aquel ejército de nuestros bravos mendigoxales que venían del monte, al pasar entre la multitud que los aclamaba!

¿Sería porque son ellos los que aun a costa de su sangre van a traernos la libertad de la Patria? ¿O había sido porque ante tanta gente reunida, con las banderas victoriosas desplegadas al viento, parecía realmente, como dijo el bertsolari de Bermeo, que celebrábamos el triunfo de la Patria redimida?

Sin embargo, entre tanta alegría y tanto regocijo, sentí una pena...

¡Cuántas banderas volaban soberanas sobre las cabezas al saludar a la muchedumbre los grupos numerosos!

¡Cuántas banderas, más tarde, en los balcones del batzoki! Cuántas bajaron los mendigoxales de Besaide!

...Y, ¡aquella nuestra immaculada bandera blanca, que ostentaba en su parte superior la enseña de la Patria, la bandera de Emakume-Abertzale-Batza, bendecida en Sukarrieta dónde ha quedado?

¿No nos entusiasma ya la bandera, toda blanca, que representa la pureza de nuestras costumbres que nosotras habíamos propuesto conservar en Euskadi a toda costa; toda blanca, representando la fe de nuestros mayores, que nosotras hemos de hacer perdurar en nuestros hogares como los vestales el fuego sagrado.

¿No amamos ya el fondo rojo que ostenta en su ángulo superior, que nos recuerda la sangre roja de la raza vasca? ¿O ha perdido nuestro afecto la cruz espada de San Andrés, emblema de nuestras libertades?

¿Cuándo volverá a agruparnos nuestra bandera en derredor suyo?...

¿Cuándo? Ahora. Ahora o nunca.

No se ha levantado aún el sol de la libertad en Euzkadi, pero la aurora de este día apunta ya sus destellos en el horizonte.

¿No lo habéis sentido así en Elorrio?

Es, pues, la aurora del gran día. Los hombres trabajan ya ani-

mosamente. ¿Cuándo nos despertaremos nosotras, mujeres de Euzkadi?

¿Esperaremos al mediodía? ¿Esperaremos a que los hombres, ellos solos, nos traigan la libertad?

No; no podemos descansar mientras ellos trabajan para ir luego únicamente a celebrar su triunfo.

Todos los oradores que alzan su voz predicando la buena nueva de la salvación de Euzkadi nos dirijen su saludo afectuoso de hermanos. Y todos, todos piden nuestra colaboración.

Tenemos que ayudarles a sembrar la semilla salvadora del Nacionalismo.

Nosotras somos las que hemos de hacerla llegar hasta las madres que no pueden oír lo que predicán los hombres en nuestras fiestas vascas, porque están allí, en el remoto caserío meciendo la cuna del hijo.

¿Cuándo, cuándo nos levantaremos las mujeres de Euzkadi? Ahora, a la aurora, como mujeres hacendosas.

Emakume-Abertzale-Batza nos llama. Vayamos a sus filas, pongámonos bajo su bandera blanca, símbolo de fe, de paz, de pureza y también de amor a la raza vasca y a su libertad.

Y vayamos luego a extender la buena nueva del Nacionalismo entre las mujeres de Euzkadi, que, como dijo Napoleón, para salvar a una nación hacen falta ¡madres!

5. EN EL GRAN DÍA

Aquí, un pueblo. Sobre la fachada blanca de los viejos caseríos, la enseña patria que besa ya el sol...

Y grupos de mendigoxales y lindas jóvenes rodeando nuestra bandera, que esperan su tranvía especial.

Otro pueblo... Y colgaduras, muchas colgaduras pendientes de los balcones y adornando las viejas balaustradas de las carcomidas escaleras de los caseríos.

Y en todos los ojos la misma alegría y la misma ansiedad.

Mira aquel caserío en el que ondea izada más alta que el tejado nuestra enseña, sostenida en el palo nudoso y sin pulir, que representa a mis ojos, el brazo rudo y musculoso de la raza, que ha despertado y está ya en pie.

¡Aleluya! Me parece que se levanta mi corazón en mi pecho, en una explosión de alegría, como si quisiera llegar, para besarla, hasta nuestra Ikurriña que ondea en lo alto...

6. EN EL CAMINO DE LA LIBERACIÓN*

Terminado mi trabajo, unas ideas que dejo apuntadas para alguna conferencia, levanto la vista hasta el retrato de Sabin que tengo delante.

Ya me ha ocurrido antes de ahora que al mirarle, como para consultarle su parecer sobre lo que estoy haciendo pro Patria, le veo mirándome tan fijo que me hago un momento la ilusión de que es el Maestro vivo que atiende y aprueba.

Esta impresión se me repite hoy más fuerte. El fleco rojo de la pantalla da un ligero tinte sonrosado a sus facciones delgadas, que hace más real la sensación de vida y tiene tan fijos, tan fijos en mí sus profundos ojos...

¡Sabin! ¿No apruebas lo que he hecho hoy?

Y como esperando la respuesta, me quedo contemplando ansiosamente el retrato.

En esos ojos tuyos parece asomarse tu alma grande, atormentada por el amor desesperado a tu Patria, que has hallado esclava y envilecida.

Consumido por el fuego interno, aparecen ya en tu rostro las huellas de la enfermedad que ha de llevarte al sepulcro.

¡8 de noviembre! Hoy treinta años atrás salías de la cárcel para morir en breve! ¡Es hoy aniversario de aquella liberación, preludio de la liberación eterna!

Y como si el espíritu de Sabin hubiera encarnado en este retrato, siento que su rostro grave hoy no aprueba, que sus ojos profundos investigan, que penetran hasta el fondo de mi conciencia con una mirada mezcla de ruego, de amor, de tristeza...

—Hijo, ¿eres tú de los míos, de los nacionalistas vascos? —me dice lentamente, recalcando las palabras.

* Artikulu hau Sabino Aranaren heriotzaren XXIX. urteurrena zala-ta egin zan *Euzkadi* egunkariaren zenbaki berezian argitaratu zan. Bezperan, 1932ko azaroaren 24an, aurreratu ziran ekintza guztiak: meza, lore-eskaintza, hitzaldiak eta *Euzkadiren* ale berezia. Ale horretarako jasotako artikuluen barri emoten da bertan, eta han dator beste askoren artean “En el camino de la liberación” izeneko artikulua Sorne Untzuetak egina.

—¡Maestro!—le contesto en una explosión de contrición y amor que me estruja el corazón, me aprieta la garganta y me nubla los ojos—. No, no merezco llamarme de los tuyos, porque yo no he sufrido por la Patria.

